


Arnasguneak hizkuntza gutxituen biziberritzean

Nazioarteko konferentzia

Territories of higher speaker density in minoritised language communities

International conference



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea



**UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA**



Arnasguneak hizkuntza gutxituen biziberritzean

Nazioarteko konferentzia

Territories of higher speaker density in minoritised language communities

International Conference

Asier Basurto Arruti, Iñaki Lurrebaso Biteri
(editoreak / editors)

Egileak / Authors

Asier Basurto, Conchúr Ó Giollagáin, Iñaki Lurrebaso,
Elin Haf Gruffydd Jones, Étienne Lemyre, Mikel Zalbide

Udako Euskal **Unibertsitatea**
Bilbo, 2026

Editoreak / Editors:

Asier Basurto Arruti, Iñaki Iurrebaso Biteri

Argitaratzailea / Publisher:

Udako Euskal Unibertsitatea

Sustatzaileak / Promoters:

UEU, UEMA, Soziolinguistika Klusterra, Coppieters Foundation

ISBN: 978-84-8438-963-7

DOI: <https://dx.doi.org/10.26876/Arnasguneak.2026>

Babesleak:

Azpeitiako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurlaritzza

Europako Parlamentua



Proiektu honek Europako Parlamentuaren laguntza ekonomikoa jaso du. Ardura bakarra egilearena da, eta Europako Parlamentuak ez du bere gain hartzen bertan aurkeztu den informazioaz egiten den erabilerarekiko inolako erantzukizunik.

This project received financial support from the European Parliament. Sole liability rests with the author and the European Parliament is not responsible for any use that may be made of the information presented therein.



CC-BY-SA 4.0 Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa

CC-BY-SA 4.0 Attribution-ShareAlike 4.0 International

<https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/>

*Hizkuntza gutxitu batean bizitzeko
ahalegina egiten dutenei*

*To those striving to live their lives
in a minoritized language*

Aurkibidea / Index

1. Hitzaurrea	7
1. Foreword	155
2. Zer dira eta zer ez dira arnasguneak? Zergatik dira garrantzitsuak?, Mikel Zalbide (Euskaltzaindia)	9
2. What are and what are not breathing spaces? Why are they important?, Mikel Zalbide (Euskaltzaindia)	157
3. Komunitate bernakularrak babestea hizkuntza gutxituen biziberritzean: gizarte-analisi dinamiko bat, Conchúr Ó Giollagáin (University of the Highlands and Islands)	27
3. Protecting Vernacular Communities in Minority Language Revitalisation: A social dynamic analysis, Conchúr Ó Giollagáin (University of the Highlands and Islands)	177
4. Frantsesa Kanadan: hiztun-dentsitatea eta hizkuntzaren erabilera, transmisioa eta ezagutza, Étienne Lemyre (Statistique Canada)	63
4. The French language in Canada: speaker density and language use, transmission and knowledge, Étienne Lemyre (Statistique Canada)	211

5. Continuum and Co-dependence: the inter-related dynamics of higher, mid and lower-density Welsh-speaking communities,	
<i>Elin Haf Gruffydd Jones (University of Wales Trinity Saint David – ELEN).....</i>	79
5. Continuuma eta kodependentzia: gales-hiztunen dentsitate altuko, ertaineko eta baxuko komunitateen dinamika elkarlotua,	
<i>Elin Haf Gruffydd Jones (University of Wales Trinity Saint David – ELEN).....</i>	227
6. Hiztun-dentsitate desberdineko lurralde-eremuen elkarrenergina euskararen ahultze- eta indarberritze-prozesuetan,	
<i>Asier Basurto Arruti (Soziolinguistika Klusterra) eta Iñaki Lurrebaso Biteri (UEMA).....</i>	101
6. Interaction Between Areas with Different Speaker Densities in Basque Language Weakening and Revitalisation Processes,	
<i>Asier Basurto Arruti (Soziolinguistika Klusterra) and Iñaki Lurrebaso Biteri (UEMA).....</i>	249
7. Euskalduntzearen inpaktua, lurraldearen euskalduntasunaren arabera. Euskararen indarberritzerako lurralde-estrategia baterantz,	
<i>Iñaki Lurrebaso Biteri (UEMA).....</i>	125
7. The impact of Basque-language acquisition, according to the Basque-language vitality of each territory. Towards a territorial strategy for Basque revitalisation, Iñaki Lurrebaso Biteri (UEMA)	275

1. Hitzaurrea

Argitalpen hau 2025eko urriaren 16an eta 17an Azpeitian egin zen «Arnasguneak hizkuntza gutxituen biziberritzean» nazioarteko konferentziaren testuinguruan sortu da. Topaketa haren helburua hau izan zen: hizkuntza gutxituen biziberritze-prozesuetan hiztun-dentsitate handiko eremu edo arnasguneek duten garrantzia aztertzea eta gai horren inguruko ikerketa, esperientzia eta proposamenak partekatzea.

Hizkuntza gutxituen kasuan, arnasguneak funtsezko espazio soziolinguistikoak dira: bertan hizkuntza gutxitua nagusi izaten da eguneroko komunikazioan, eta belaunaldiz belaunaldi transmititzeko baldintzak indartsuagoak dira. Horregatik, eremu horiek hizkuntzaren bizitasunaren adierazle garrantzitsuak dira eta, aldi berean, hizkuntza gutxituen biziberritze-estrategien ikuspegitik erreferentziazko laborategi sozialak.

Azken hamarkadetan, euskararen soziolinguistikan eta hizkuntza-politikan arreta berezia eskaini zaie arnasguneei. Hala ere, fenomeno horren antzeko errealitateak munduko beste hizkuntza gutxitu askotan ere identifikatu dira, eta hainbat izendapen jaso dituzte: hiztun-dentsitate handiko eremuak, hizkuntza-gotorlekuak edo komunitate bernakularrak. Horrek guztiak agerian uzten du gaiak nazioarteko dimentsioa duela eta diziplina arteko begirada behar duela. Testuinguru horretan sortu zen konferentzia hau antolatzeke ekimena: esperientziak elkarrekin kontrastatzeko, ezagutza partekatzeko eta hizkuntza gutxituen biziberritzean arnasguneek izan dezaketen eginkizuna sakonago aztertzeke.

Konferentzia **Udako Euskal Unibertsitateak (UEU)**, **Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA)**, **Soziolinguistika Klusterrak** eta **Coppieters Fundazioak** elkarlanean antolatu zuten, eta hainbat erakunde publikoren babesarekin egin zen. Ekimenaren izaera lankidetzan oinarritu zen: ikerketa akademikoa, politika publikoak, tokiko esperientziak eta gizarte-ekimenak elkarriketan jartzea izan zuen xede, arnasguneen gaia ikuspegi zabal eta integratutik lantzeko.

Liburu honetan biltzen diren testuak konferentzia hartan aurkeztutako ponentzia eta gogoeta batzuetatik abiatuta prestatu dira. Helburua ez da jardunaldi haren transkripzio hutsa eskaintzea, baizik eta bertan sortutako ideiak eta eztabaidak modu egituratuan jaso eta komunitate zientifiko zein sozial zabalago bati eskaintzea.

Espero dugu lan honek ekarpena egitea arnasguneen inguruko ezagutza sendotzen, hizkuntza gutxituen biziberritze-estrategietan duten eginkizuna argitzen eta etorkizuneko ikerketa- zein ekintza-ildo berriak inspiratzen.

2. Zer dira eta zer ez dira arnaguneak? Zergatik dira garrantzitsuak?

Mikel Zalbide (Euskaltzaindia)

Editoreen oharra

Arnagune kontzeptua euskal soziolinguistikara ekarri, definitu eta zabalpena emateko lanetan ageriko bidegile izan da Mikel Zalbide. Fishmanen lanak eta egile horrekin izandako zuzeneko harremanak izan ditu horretarako oinarri, alde batetik. Eta, bestetik, euskararen indarberritzeari lotutako jarduera profesionala, ikerketa-ibilbidea eta hausnarketa. Gaiari buruzko Nazioarteko Konferentzia eta hari lotutako argitalpenaren baitan eraikitako eztabaida eta ezagutza Mikel Zalbidek ezarritako zimenduen gainean sortutakoa izan da. Horregatik, 2025eko urriaren 16an eta 17an Azpeitian (Euskal Herria) egindako saioetan Zalbidek arnaguneen inguruan duen ikuspegia laburbiltzen duen bideo-elkarrizketa hedatu zen (<https://vimeo.com/1127291981>). Eta, horregatik ere, esku artean duzun argitalpen honetan egile horrek arnaguneen ideia azaltzeko idatzitako artikulu argigarri baten zenbait pasarte jasotzea beharrezko ikusi da.

Bat Soziolinguistika Aldizkariaren 110. zenbakia gaiari buruzko monografikoa izan zen. Bertan, besteak beste, Zalbidek arnagune kontzeptuaren ezaugarri nagusiak xehatu zituen «Arnaguneak. Etorkizuneko erronkak» izeneko artikuluan¹.

Jarraian dakarkiguna aipatutako artikulutik hautatutako pasarte batzuk dira. Lana bere osotasunean eta xehetasunean ezagutzeko borondatea duenak jatorrizko aldaerara jotzea du biderik zuzenena. Kasu honetan, zatiak erauzteak berekin dakarren ikuspegi partzialaz jakitun, baina jatorrizkoari aldaketarik ez egiteko irizpideak gidatuta, hiru atal bere horretan ekartzea hobetsi da. Honakoak dira, hain zuzen ere, artikulutik hartutako hiru atalak:

- I. Zer da arnagunea, oro har?
- II. Zer ez dira arnagune, partez edo osoz?
- III. Zergatik dira arnaguneak hain garrantzitsu, euskara indarberritzeko?

1. Zalbide, Mikel (2019). Arnaguneak. Etorkizuneko Erronkak. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 110(1), 11-78. <https://bat.soziolinguistika.eus/produktua/bat-110-2019-1-arnaguneak-etorkizuneko-erronkak/>

I. Zer da arnasgunea, oro har?

Joshua A. Fishman-ek (1991, 58. or.) bere *Reversing Language Shift* ezagunean «physical breathing space» aipatzen du une batez: «breathing space»² horren itzulpena da *arnasgunea* (Zalbide, 2001). Lehen hurbilketa moduan, «demographically concentrated space where Xish can be on its own turf, predominant and unharassed». Hots, eta gureraren etorriz,

- Euskal kontzentrazio demografiko handia du arnasguneak: euskaraz dakite bertako herritar guztiek edo gehienek eta, bereziki, *eguneroko mintzajardun arruntean herritar guztiak edo gehienak euskaraz ari izaten dira beren artean, arnasgune barruan.*
- Eguneroko mintzajardun arruntak euskararen aldeko nagusitasun-moldaera argia du bertan, eta nagusitasun hori ez da eztabaidatzen: «predominant and unharassed». Euskaraz egiten da hor, besterik gabe. Gizarte-araua bizi da hori: Donostiako Kontxan bainu-jantzia edo bikiniak, ez ordea sostena eta kuleroa, janztea bezain arau zabal³. Arau zabal eta, zergatik ez dakigula baina ondo kontuan dugularik, haustezin. Gauza bera gertatzen da arnasguneetan: bertakoek bertakoekin, hitzez eta ohiko solasgai bizi-pizgarriez, euskaraz jardutea arau nagusi da ingurumen horietan.
- Eguneroko mintzajardun arruntean euskarak ageri duen nagusitasun gotor horri eskerrak, bertako *biztanleen ama-hizkuntza belaunez belaun transmititzen da* arnasgunean, *mintzaldaketa ohargarririk gabe*. Transmisio horri eskerrak, *hizkuntzaren mendez mendeko iraupen-katea ez da arnasgunean eteten*. Arriskuak arrisku, euskarazko nagusitasun-moldaerari eusten zaion artean *belaunez belaun transmisio-katea ez dago galzori bizian*.
- Eguneroko mintzajardun arruntak oinarri *ezagunak* ditu, jardun-gune eta harreman-sare nagusiei dagokienez: etxea eta auzoa, kalea eta lagunartea,

2. Jakintza-esparru zabalagoetan ere aurkitu izan du *Breathing Space* terminoak aplikazio akademikorik. Medikuntza-alorrean, alergia kontuei buruzko lanetan, ikus adibidez Gregg Mitman-en 2007ko *Breathing Space: How Allergies Shape Our Lives and Landscapes*. Yale University Press. Aplikazio horrek ez du gure arnasgune-kontzeptuarekin lotura zuzenik. Joshua A. Fishman-ek hizkuntza-soziologiaren sailean, ahuldutako hizkuntzak indarberritzeko saioen atalean, sortutako formulazioak ari gara hemen, ez osasun medikoaren alorrekoak.

3. Arau hori ez da erabatekoa: badira noski eguzkia edo bainua goiko pieza gabe hartzen duten emakumezkoak: gutxi(ago), baina badira. Ez da «betidaniko» araua ere, ez eta «betirakoa». Gizarte-arauak aldatu egiten dira aldian behin. Aldatzen ez diren artean arau dira ordea: guztiok dakigu leku eta aldi jakineko norma soziala zein den eta, oro har, norma horretara biltzen gara gehienok gure eguneroko jardunean. Laburbilduz: gizarte-araua «arau» da, bizirik dirauen artean.

taberna eta denda, eliza eta herriko plaza, aisialdia eta kirol-gunea, eskola eta (ahal den heinean) lan-esparrua. Horietan euskara nagusi baldin bada, *arnasgune betean* gaude. Aldiz, hortik herrenka hastean *arnasgune bete* izateari uzten zaio, *arnasgune erasan* bihurtuz. Erasate-lan hori areagotu egiten bada nabarmen, horren ondorioz sortzen den moldaera berria ez da *arnasgune*.

Berririo esango dugu, funtsezko kontua baita hau: demolinguistika aldetik jaun eta jabe da euskara arnasgunean. Euskaraz jakiteaz gainera *euskaraz ari izaten dira*, *eguneroko mintzajardun arruntari dagokionez*, jaiotzaz edo geroko etorreraz (ezkontzaz, lanbidez,..) bertan bizi diren herritar guztiak edo gehienak. Hiztun horiek «bere kabian» sentitzen dira arnasgunean: euskarazko jardun arruntari dagokionez esparru geoterritorial «segurua» dute arnasgunea. Euskaldunak euskaldunekin herri-giroan euskaraz bizi diren lekua, euskara «etxeko nagusi» sentitzen den eremua. Inork behartu, xaxatu edo eraso gabe bizi dira bertan euskaraz. Arnasgunea ez dute hizkuntzagatiko gatazka-leku; besterentzat ere ez da, normalean, aparteko arazo-iturri soziolinguistiko. Barruko edo kanpoko inork ez ditu eguneroko jardun arruntan euskaraz egitera behartzen. Hori esijitzen du gizarte-arau zabal den normak, hori da normala. Era berean, eta oro har, kanpokoek ez dituzte xaxatzen edo erasotzen herrian euskaraz bizi direlako. Bertako haurrek, neska-mutilek eta gaztetxoek bere osoan (aski era betean) eskuratzen dute gurasoen hizkuntza⁴. Darabilten hizkera-modu horren barne-osaera eta beren mintzagaitasun-moldea aldatuz doaz hainbatean, baina bertako neska-mutilek, gazteek eta sasoikoek euskaraz egiten dute beren artean nagusiki: etxekoekin, lagunekin eta herritarrekin euskaraz bizi dira normalean, hitzezko jardun arruntari dagokionez⁵.

Aurrera begirako ondorio argiak ditu gertakari horrek, estatistikoki: a) bikote euskalduna egiten dute bertako gazte gehienek eta, horrela, herrian bertan (edo inguruko beste arnasguneren batean) asentatuz euskal familia sortzen dute maiz: hiztun-elkartearen jarraipen-bermea, belaunez belaun eguneratu beharrekoa, da familia-giro euskalduna sortze hori. Herriko lagunarteak eta gizarte-bizitzak (eta, ahal dela, lan-esparruak) zurkaiztu egiten du euskarazko jardun-gune hori.

4. Ekarpen zoragarriak eginik ditu gai honetaz, inoiz aipatu izan dugunez, Nancy Dorian-ek.

5. Hizkuntza-ukipenaren eragina indartuz doa arnasguneetan ere, oro har. Erdal hitzez gainera esamolde asko eta asko etxekotzen ari dira herriko gazte(txo)enean artean. Are perspektiba zabalagoan koka liteke fenomeno hori. Zerainean Elena Mendizabalek eta biok zenbait urtez egin genuen azteraldiaren argitan (ikus urte haietako *Xaguarde* aldizkaria), (orduko) 60 urtetik beherako belaunaldiak galera nabarmena ageri zuen 70 urtetik gorakoan aldean, baserri-munduari loturiko hitz-altxorrari dagokionez. Erdarak gero eta nabarmenago erasanik ere, ordea, euskaraz egiten dute beren artean Zeraingo heldu eta gazte gehienek. Nagusitasun-moldaera hori da kontua, hemen axola diguna.

b) Euskararen nagusitasun-moldaera⁶ argi horri eskerrak, arnasgunean ez dago *eus > erd* mintzaldaketa⁷ zabalik. Are gutxiago galera osoa⁸. Belaunez belauneko jarraipena inon baino seguruago bermaturik dago hor.

Eguneroko mintzajardun arruntari dagokionez, hortaz, osasun oneko hiztun-elkarteetan normal dena normal da arnasgunean. Ama-hizkuntzaren *belaunez belauneko jarraipena* da osasun oneko hizkuntza bizien iraupen-bide nagusia. Hori da osasun oneko hiztun-elkarte orok ahuldutako hiztun-elkarteen aurrez aurre duen bereizgarri soziolinguistiko nagusietarikoa: hainbatentzat nagusia. Ama-hizkuntzaren *belaunez belauneko jarraipena* sendo dago gure arnasguneetan: beste inon baino sendoago. Funtsezko ezaugarria da hori: perspektiba geoterritorialari dagokionez arnasguneetan bakarrik gertatzen zaigun ezaugarria. Aparteko antolamendurik gabe ikasten dute arnasguneetako haurrek euskaraz egiten. Eskolara joan aurretik euskaldun trebe izan ohi dira: jakitez eta, batez ere, egitez trebe. Jakitez elebakar edo euskal-elebidun; egitez guztiak edo gehienak euskaldun (konparatiboki) garbi. Euskal eskolarik gabe, are erdal eskolaz, *belaunez belaun* eta menderik mende euskaraz bizi izan dira. Orain ere gutxi fio. Lagungarri ederra dute gaur egun, hori bai, eskola: a) egunaren zati ohargarria (% 16 inguru) euskaraz betetzen dute neska-mutilek, maisu-maistrekin eta eskolagunekin; b) euskaraz irakurtzen eta idazten ikasten dute, lehen ez bezala; c) herriko euskararen erregistro informal-intimoez gainera hizkuntzaren aldaera jaso-formalaz baliatzen ikasten dute hainbatean; d) erdara (gaztelania eta, partez, ingelesa) ikasten dute orobat (ik. Zalbide, 2016). Lehen ez bezala, alde dute orain eskola. Alde eta, gizarte berri honetan, oso beharrezko. Hizkuntzaren geroa ez du ordea, arnasguneetan ere, batez ere eskolak bermatzen⁹. Mintzajardun arruntaren

6. Hizkuntza-soziologiaren alorreko «dominance configuration» delakoa (ez Uriel Weinreich-en 1953ko formulazio psikolinguistikoa) dugu hemen gogoan. Ikus, adibidez, Fishman, Joshua A., Robert L. Cooper, Roxana Ma etab., 1968: *Bilingualism in the Barrio (The measurement and description of language dominance in Bilinguals)*. Bertako perspektibatik ikus, adibidez, Zalbide 2009 eta 2016.

7. Alemanezko *Sprachverschiebung*, ingelesezko *language shift* edota gaztelaniazko *desplazamiento lingüístico* dugu gogoan, *luze-zabaleko mintzaldaketa-z* dihardugunean. Bertako perspektibatik ikus adibidez Zalbide 2001, 2002 eta 2016.

8. Terminologia teknikoari, eta hartatik eratoritzen den kontzeptu-lanketari dagokionez ikus, adibidez, alemanezko *Sprachverlust* eta, batez ere, ingelesezko *language loss* bere (zati-)sinonimo ugariekin: perspektiba gradual batetik hor daude, besteak beste, *language attrition*, *language obsolescence*, *language loss* eta *language death*.

9. Bat dator ondorio etsi hori mundu zabaleko hainbat gertaera konprobatuekin. Austriako Estirian bizi diren esloveno-hiztunen kasuaz, esate baterako, Vienako unibertsitateko K. Prochazka-k eta G. Vogl-ek ondorio hau ateratu dute berrikitan, *Diffusionsphysik* delakotik hartutako metodoaz: «The simulation shows that other habitat conditions (the language of schools, and in parishes) are of minor influence» (azpimarra gurea). Iturria: K. Prochazka-k eta G. Vogl, 2017: Quantifying the driving factors for language shift in a bilingual region. PNAS 114(17), DOI: 10.1073/pnas.1617252114. Ikus orobat Eva Obermüller: «Welche Sprache in Schulen oder Gemeinden offiziell gesprochen wurde, hatte zumindest laut den Berechnungen kaum Einfluss auf die Entwicklung» (azpimarra gurea). Iturria: Eva Obermüller, «Warum Sprachen verschwinden».

eguneroko erabilera-espektro zabala¹⁰ da, beti eta nonahi, osasun oneko hiztun-elkarteetan arau nagusi. Hori da munduko hizkuntza bizi-sendo guztien jarraipen-bide normala, belaunez belaun bere buruari eusten diona eta, eten-urratze larririk ezean, menderik mende irauten duena. Jarraipen-bide horri sendo eusteak lehentasun argia du, ahuldutako hizkuntza bizirik gordetzeko eta, hortik abiatuz, ahuldutako hiztun-elkartea bere osoan indarberritzeko. Gune horiek dira, hainbat adituren ustean (ikus bereziki, bertako eta mundu zabaleko perspektibak uztartuz, S. Altube¹¹ eta J. Fishman), ahuldutako hizkuntza indarberritzeko saio arrakastatsu ororen abiaburu nagusia eta sostengu gotorrena. Ingurumen horiek galtzen badira, askoz zailagoa da handik aurrerako biziberritze-saioa.

Beste zenbait ezaugarri. Arnagune beteak eta erasanak

Goiko elementuek definitzen dute aski zorrotz arnaguneak zer diren. Ezer gehiago esan al liteke horretaz? Nolakoak dira arnaguneak, hemen eta orain? Honako zertzelada hauek erantsi behar zaizkio, gure ustez, goiko definizio- eta azalpen-saioari.

- a) *Ingurumen geoterritorialak, ez soziofuntzionalak edo birtual hutsak*, dira arnaguneak: eguneroko mintzajardun arruntean (erabat edo batez ere) euskaraz bizi diren auzoak, herrixkak, herriak, herriarteak eta, inoiz (gero eta bakanago), eskualde osoak.
- b) Biztanle-kopuruz txikiak edo oso txikiak dira arnaguneak, eta lurralde-antolamenduaren aldetik aski periferikoak oro har. Hiribururik edota 50.000 biztanletik gorako hiririk ez dago, aspaldian, arnaguneen sailean. Herribururik bai: Azpeitia da gaur egun, askogatik gainera, herriburuen artean arnagunerik handiena.
- c) Gipuzkoan daude, egungo egunean, arnagune gehienak; Bizkai-Nafarroetan ere badira zenbait, dena den. Aldiz hortik kanpora oso herri gutxi dira arnagune, eta gutxiok ere aski duda-mudazko dira (Arabian Aramaio?, Iparraldean Baigorri ingurua?).

science.ORG.at (2017ko martxoaren 14an argitara emana). Ahuldutako hizkuntza eskola bidez bizirik eusteko edo indarberritzeko saioen emaitza ahularen ondorio etsi hori bat dator, orobat, mintzaldaketari buruzko teorizazio-saio landuenekin. Ikus horretaz, besteak beste, Fishman-ek eskolaren eragin mugatuari buruz behin eta berrito esandakoak: ikus Fishman 1991 (artikulu horren aurrekaria euskaraz ere bada: Fishman 1990).

10. Umetan eta gazte(txo)tan batez ere etxean, auzoan, lagunartean, parkean, kalean, eskolan, kirolgintzan eta ikus-entzunezko zabalbideetan. Helduaroan, horrezaz gainera, lan-munduan eta harreman-sare gero eta zabal-ugariagoetan, aurrez aurre edo birtualki.

11. Ikus, batez ere, funtsezko artikulu hauek: «La vida del euskera» eta «Más sobre la vida del euskera», zehaztapenak bibliografia atalean.

- d) Arnasguneak «irla» edo «uharte» bihurturik daude egungo egunean: ez dago Bizkaitik Nafarroara hedatzen den arnasgune zabalik, Gipuzkoa erdian harturik. XIX. mendetik aurrera zabalduz joandako, eta egungo egunean ia erabat buruturiko, mintzaldaketa biziaren ondorio da euskal mintza-esparru gotorraren zatikatze hori: jende gehien bizi den hiri(buru)ak, industria-gune handi(en)ak, trenbide- eta karretera-lotune nagusiak eta administrazio-gune operatiboak erdaldundu ziren lehenik, ordura arte arnasgune izandako eskualde zabaletan¹², eta bazter-fenomeno bihurtuz joan ziren horregatik, perspektiba geoterritorialtik ere, arnasguneak.

Eguneroko bizimodu arruntean «erabat edo nagusiki» euskaraz egite horrek ez du esan nahi, inondik inora, euskal hiztun-elkartearen espazio geoterritorial osoa (euskal hiztun-herria, horren arabera Euskal herria) bitan banatzen denik: batetik *arnasguneak*, bestetik *arnasgune* ez diren auzoak, herriak eta eskualdeak. Formulazio dikotomiko hori baino ondotoz bihurriagoa da azken hamarkadotako mapa soziolinguistikoa. Arnasgune gotorrenetik hasita (ia) erdara hutsezko mintza-esparrura bidean *continuum* luzea dago, eta tarte-bitarte luze horretan bizi gara euskaldun gehienok. Beraz, eta labur bilduz, *continuum* horren punta-mutur batean, ez tarte-bitarte luzean, daude arnasguneak: punta-muturrik euskaldunenean.

Punta-mutur batean egonik ere, arnasgune guztiak ez dira zeharo uniforme, molde bakarreko eta berdina; guztiak ez dira, bereziki, «euskal gotorleku huts». Euskaltasun handieneko ingurumen geoterritorial horretan ere barne-bereizbide argia dago: azpi-*continuum* nabaria. Guztiak ez dira gotortasun-maila bereko. Aldea dago arnasgune batzuetatik besteetara. Arnasgune hitza ez da, horregatik, zenbaitetan aski: termino ahula da, batez ere, arnasgune batzuetatik besteetara dagoen (gero eta nabariagoko) aldea gordin markatu behar denean.

Bitan edo hirutan banatu ordez lautan edo gehiagotan ere sailkatu litezke arnasguneak, segun zer barne-aldakortasun mota aztertu nahi den. Oraingoz ez diegu irabazi handirik ikusten sofistikazio handiagoko azterbideei: biko eta hiruko banaketaz analizatuko dugu beraz, gaurkoan, arnasguneen egungo (eta begien bistako) errealitate aldakor-komplexua.

12. Gipuzkoan, Eguren aintzakotzat hartu behar bada, arnasgune genuen Gipuzkoa gehiena XIX. mendearen erdialdean. Badago motiborik, halere, Egurenen deskribapen zorrotza beste zenbait testigantzarekin konparatu behar izateko.

II. Zer ez dira arnasmune, partez edo osoz?

II.1. Udalerrri euskaldunak ez dira, beti eta nonahi, arnasmune

Gauza biak batera joan litezke, eta maiz samar hala gertatzen da, baina ez dira baliokide huts. Bi gauza dira, formulazio teorikoz zein aplikazio praktikoz, *arnasmuneak* eta *udalerrri euskaldunak*. Bateratsu erabili ohi ditugu maiz, hizkera arruntean eta azalpen landuagoetan, baina bata eta bestea ez dira gauza bera, beti eta nonahi. Ondoko puntuotan daude, gure ustez, bien arteko berezitasun nagusiak.

- a) Definizio operatibo berezia dute, hasteko, batak eta besteak. Udalerrri euskaldunak identifikatzeko orduan herritarren mintzagaitasuna hartzen da oinarri: herritar gehienek ba al dakite euskaraz? Gutxieneko langa ezartzen duen portzentaje jakina definitzen da hor, operatiboki, *udalerrri euskaldun bai* ala *udalerrri euskaldun ez* erabakitzeke: demagun % 80ko langa¹³. Herritar guztiek edo gehienek beren artean euskaraz egiten duten ala ez, aldiz, ez da *udalerrri euskaldunen* definizio operatiboan espresuki kontuan hartzen: bistan da euskaraz jakitea eta euskaraz egitea ez dabiltzala arras urruti, herritarrek (guztiek edo gehien-gehienek) euskaraz jakin behar baitute beren artean euskaraz egiteko. Euskaraz jakiteak ez du, ordea, euskaraz egitea ondorioztatzen: ez ahoz eta ez, bereziki, idatziz. Herritarren eguneroko mintzajardun arruntak erabakitzen du, aldiz, ingurumen geoterritorial bat *arnasmune* den ala ez: etxean eta auzoan, kalean eta lagunartean, bertako gizarte-bizitzan oro har euskaraz egiten al da, erabat edo nagusiki? Baiezkotan, ingurumen hori *arnasmunea* da; bestela ez. «Gehienetan ez dute egiten, konforme, baina jakin badakite» esateak ez du balio. Herritar (gehienek) gehienek egin behar dute euskaraz, arnasmune izateko: ez ezinbestean nonahi eta noiznahi, ez interakzio guzti-guztietan nornahi delarik ere solaskidea¹⁴.

13. Iñaki Lurrebasoren lana da honetan guztian, gure ustez, definizioz argiena eta aplikazio-ahalmenez lagungarriena.

14. Erdaldun bat herrira etortzen denean (turista moduan, egun pasa), esate baterako, erdaraz egiten zaio. Horrek ez du, ezinbestean, eguneroko mintzajardun arrunta itzulipurdikatzen. Besterik da erdaldun asko sarri (herriko tabernak, plaza-ingurua eta are bertako jolas-parkeak zabal okupatuz, zer esanik ez bertara bizi izatera) etortzen direnean.

Bai, ordea, eguneroko mintzajardun arruntaren ohiko leku, situazio eta harreman-sare nagusietan. Batez ere hitzez egin behar dute euskaraz¹⁵.

- b) *Udalerri euskaldunak* «udalerri» dira neurriz, berez eta ezinbestean: halaxe definiturik daude. *Arnasguneak* ere «udalerri» izan litezke neurri-hedaduraz, baina ez dute ezinbestean udalerri izan beharrik. Hortik gorako neurria ere izan lezakete arnasguneek¹⁶: demagun Urolako erdi- eta behealde gehiena (Azpeitia ingurutik Zumaia aldera), edota Leitzza-Areso-Berastegi-Eldua(in)-Berrobi herri-sorta. Udalerri-mailatik beherako neurri-hedadura duen ingurumena ere izan liteke arnasgune, horren adibide seguru eta errazik eskueran ez daukagun arren: Amorebietako Etxano-Duda-Epaltza-Alakao-Arrinda auzoaldea baliagarri ote da ikuspegi hori argitzeko?
- c) Gehienetan deskriptiboa bada ere udalerri euskaldunen ikuspegia, perspektiba zinetikorik ere izaten du hainbatean: euskaraz dakitenen portzentajea gora doan, bere hartan dirauen ala behera datorren analizatzen da maiz, halakoetan. Aldiz, bere ardatza eguneroko jarduera arrunta duenez beste aztergai honetan zentratzen da arnasguneen kontzeptu-lanketa: eguneroko jarduera arrunt hori belaunez belaun sendo transmititzen ari den, ala galduz doan.

Labur bilduz: hizkuntza-gaitasunean zentratutako analisi demolinguistikotik abiatzen da nagusiki udalerri euskaldunen definizio operatiboa; bertako biztanle guztietatik zenbatek euskaraz dakien, eta portzentaje hori adin-taldez talde nola bilakatzen ari den: hori izaten da bere aztergai nagusia. Hizkuntza-soziologiaren elementu teoriko hauetan oinarritzen da nagusiki, aldiz, «arnasgune» kontzeptua: a) eguneroko mintzajardun arruntan eta, mintzajardun zabal-nagusi horren ondorioz, b) jarduera horren belaunez belauneko jarraipenean. *Udalerri euskaldunek* bestelako definizio operatiboa dute, eta bestelako aplikazio praktikoa. Horregatik, *arnasgune* guztiak *udalerri* (edo auzo zein eskualde) *euskaldun* dira baina *udalerri euskaldun* guztiak ez dira, hemen eta orain, *arnasgune*.

Bi gauza izateak ez du esan nahi arras diferente eta bateraezin direnik. Besterik erakusten digu errealitateak: aurrerago azalduko denez *udalerri*

15. Idatzizko interakzioa indartuz doa, dena den, belaunaldi gazteenetan batez ere. Idatzizko interakzioa ere eguneroko jardun arruntaren sailera hurbiltzen ari da beraz, hori dela medio. Alde handia dago ordea, oraindik, plano bien artean. Erdarazko «periodikua leituz ilustratzen da» orain ere, maiz aski, herriar euskaldun asko. Zer esanik ez dokumentazio ofiziala edo lan-esparrukoa tarteko direnean.

16. Garai batean, duela 150 urteko Gipuzkoan, Eguren-en aitormena erabat oker ez badabil, eskualde osoak genituen arnasgune: ia probintzia osoa, hiriburua eta zenbait herriburu alde batera utzita. Oraindik ere antzematen da izarraitzen eta Hernioren gerri-bueltan euskal giro bizi(ago)ko *continuum* bat, udalerri hutsetik harantzago doana. Baita Aizkorri-Aloña mendikatearen inguruko hainbat herri(xka)tan ere.

euskaldunak eta *arnasguneak* ez dabilta, hainbat kasutan, elkarrengandik batere urruti. Baina ez dira gauza bera eta, zenbait kasutan, tarte handia dago batetik bestera.

II.2. Arnasguneak ez dira «euskaldun gehienak bizi diren lekua»

Biztanlez txiki dira arnasguneak: gehienak oso txiki. Txikitasun hori dela medio, euskaldun gehienok (euskaraz dakigunon hiru laurdenak baino gehiago) ez gara arnasguneetan bizi. Egunean zehar erdaraz baino maizago (edo erdaraz bezain maiz) euskaraz egiten dugun hiztun gehienok ere ez gara, antza, arnasguneetan bizi. Arnasguneak aski elementu sekundario dira, beraz, mintzagaitasunean oinarrituriko hiztun-elkarte osoaren kopuru-perspektiba hutsetik. Hizkuntza indarberritzeko saioa ezin da hortaz, inola ere, arnasguneetara mugatu. Baina kontuz: kopuruz sekundario edo periferiko izanik ere, zentral-zentralak dira arnasguneak. Zentraltasun hori ez dago gaitasun linguistikoaaren plano demolinguistiko-kuantitatiboan, beste bi puntuotan baizik: a) eguneroko mintzajardun arruntaren euskal nagusitasunean, eta b) hiztun-multzo trinkoen belaunez belauneko transmisio betean.

Kontzentrazio demografiko handiaren eta «betidaniko gizarte-ohitura»-ren eraginez eguneroko mintzajardun arruntan euskara hain bizi egoteak eta mintzajardun horren belaunez belauneko jarraipen-bermeak, ez euskaraz «dakiten» hiztunen kopuru-portzentaje hutsak, ematen die arnasguneei aparteko garrantzia. Euskaraz dakien jende gehiena ez da, urrundik ere, arnasguneetan bizi. Bertan bizi direnek dute ordea, askogatik, euskarazko jarduna bizien, osasuntsuen eta, horrenbestez, gerora transmitigarrien. Ikus, aurreraxeago, S. Altubek eta J. A. Fishman-ek horretaz esandakoa.

II.3. Euskarak presentzia nabarmena¹⁷ duen hainbat instantzia (tartean zenbait gotorleku) ez da, definizioz, *arnasgune*

Ondoko instantzia edo gotorleku hauek ez dira, eta definizioz ezin dira izan, *arnasgune*: a) euskarazko eskola-sarea (nagusiki D eredukoa), euskarazko unibertsitate-atalak eta euskaltegiak; b) euskarazko komunikabideak: *Euskadi Irratia*, *Euskal Telebista*, *Berria*, *Argia*, *Herria* etab.; c) Herri Aginteetako atal elebidunak, Euskara Zerbitzuak etab.; d) euskarazko kultura-kontsumora

17. Zer da, hemen eta orain, nabarmena?: zenbaitetan nagusia, inoiz erabatekoa.

bideratutako hainbat ekimen: euskal liburu- eta disko-azokak, euskal antzerki-, kantu- eta dantza-taldeak, etab.; e) euskaltzale-elkarteak eta euskararen aldeko ekimenak: *Kilometroak*, *Korrika* etab. Instantzia horiek ez dira *arnasgune*: herriko biztanle guztien multzo nagusia hortik kanpora bizi da urtean zehar, eguneko ordu gehienetan; hiztun horien eguneroko mintzajardun arrunta bideratzen duten harreman-sare zabal-etengabeak instantzia horietatik kanpora daude nagusiki; hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipenaren kate luzea (35-40 urtera artekoa) instantzia horiek baino jardun-gune zabal eta basikoagoetan oinarritzen, hezurramitzen, elikatzen, osatzen eta garatzen da hiztun-elkarte osasuntsu orotan.

Eguneroko bizimoduan erdara nagusi (zenbaitetan jaun eta jabe) den ingurumenetan (normalean kale-giroan) euskal gotorleku izatera iristen da goiko instantzia horietariko zenbait: horrelakoa da, bereziki, EAEko (eta, zein bere neurrian, Nafarroako eta Iparraldeko) eskola-mundua. Garrantzi ohargarria dute instantzia horiek, dudarik apurrena ez dago horretan, euskara indarberritzeko. Ezin baztertuzkoak dira, bakoitza bere alorrean eta bere heinean, euskal hiztun-talde askori bizirik eusteko eta beren eguneroko harreman-sareak nabarmen indartzeko. Arnasgune gehienen eta bestelako ingurumen askoren osagai sendo eta balios dira hortaz, sarri, gotorleku horiek; hala dira, bereziki, eskola-esparrua eta beste zenbait ingurumen soziofuntzional. Lagungarri ederrak ditugu hortaz gotorlekuok, banaka zein taldean harturik, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko orduan. Baina instantzia guztiok (tartean gotorleku nagusiok) ez dira arnasgune, eta ezin dira izan. Ez dira eguneroko mintzajardun arruntaren iturburu nagusi, oinarri beregain eta iraunkor¹⁸. Ez dira belaunarte osoa bere baitan duten biziguneak: adin-tarte jakineko kideak oso gailen dira bertan, eta bestelakoak ahul edo hutsal. Ez dira belaunez belauneko jarraipenaren berme-iturri. Arnasguneak badira hori guztia, hein ohargarrian¹⁹; beste instantziok (are gotorleku sendoenok) ez. Instantzia soziofuntzional horiek gotorleku izatera iristen badira ere zenbaitetan, instantziok ez dira eguneroko mintzajardun arruntaren oinarri zabal eta iraunkor; are gutxiago belaunez belauneko jarraipenaren berme-iturri beregain. Instantzia edo gotorleku horiek «arnasgune soziofuntzional» bailiran azaltzea, nahasmendua sortzea da gure ustez. Arnasguneek hain berea eta hain

18. Demagun gotorleku-instantzia indartsu eta zabalduena: eskola-mundua. Eskolatik kanpora (maizenik eskolara joan aurretik) ikasten dute ikasle gehienek hitz egiten (etxean eta familiaretan, auzoan eta haur-parkean, lagunartean eta jolasean,...). Are gehiago: (oro har 16 edo 18 urtera arte, unibertsitate bidetik doazenean are beranduago arte) irauten duen eskola-aldi luzean ere eskolatik kanpora pasatzen dituzte esna-ordu gehienak (askogatik gehienak). Eskola-aldia amaitutakoan, are nabarmenagoa da eskolaz kanpoko bizimoduaren pisua eta eragina.

19. Hala izan dira belaunez belaun eta menderik mende. Orain ere halatsu dira, aski erasanik ez dauden heinean.

noraezekoa duten eguneroko mintzajardun arruntaz, hiztun horien kontzentrazio demografikoaz, hartarako oinarri geoterritorialaz, ingurumen horretako barne-sare trinkoez eta, hori guztia dela medio, ama-hizkuntzaren belaunez belaun transmititzeko ahalmen beteaz ahazturik bestelako instantzia soziofuntzional horiei «arnasmune» deitzea kontzeptuaren jatorrizko adiera, orain ere behar-beharrezkoa, desnaturalizatzea da.

III. Zergatik dira arnasmuneak hain garrantzitsu, euskara indarberritzeko?

Esana dugu dagoeneko, populazio-espektroari dagokionez herri-herririka txikiak direla arnasmune gehienak, ia guztiak. Baditu horrek, hemen eta orain, bere ondorioak: demolinguistikazko analisiek argi erakusten dutenez, euskaldun gehienok arnasmuneetatik kanpora bizi gara egungo egunean²⁰. Euskalgintzaren aktibazio-gune gehienak arnasmuneetatik kanpora daude orobat: administrazio-atal elebidun nagusiak, euskarazko komunikabideak, argialetxeak, unibertsitate-erakin eta ikergune gehienak, antzerki- eta musika-talde euskaldunak... horiek eta beste hainbat arnasmuneetatik kanpora daude oro har. Alde askotatik bazter-fenomenoa dira arnasmuneak, ez gizarte-bizitzaren berrikuntza-habi.

Txikiak, gutxi eta bazter-girokoak izanik, zergatik dira hain garrantzitsu? Euskalgintza sendo-asmozkoak ez ote luke euskaldun gehienon habitat nagusietan, XXI. mendearen euskarri diren hiriburu eta konurbazio gero eta zabalagoetan, zentratu behar? Ez ote da zentzuzkoago gehiengoari kasu egitea, hoberenean ere gainbehera datozen ingurumen geoterritorial txiki-zipriztindu horiek, eta bertako herritarren beharrak eta gogoak gero(xeago)ko uztea? Ezezkoan gaude. Hona zergatik:

- a) Eguneroko euskal mintzamolde «normala», osasun oneko hiztun-elkarteen mintzajardun arruntaren antzekoena, **hor** (arnasmuneetan) dago indar betean. Indar betean edo, zehazkiago esanik indarririk beteenean: askotan **hor bakarrik**. Euskaraz egiten da **hor**, erabat edo nagusiki, etxean eta kalean, lagunartean eta tabernan, auzoan eta herriko plazan, eskolan eta udaletxean. Euskara da nagusi, hitzez behintzat, gizarte-giro zabalean (jai-ospakizun eta auzolan, elizkizun eta parkeko jolasaldi, kultura-ekimen eta eztabaida politiko, kirol eta bertso-saio). Lanean ere bai partez, inon baino maizago.

20. Hori bakarrik ez: arnasmuneetako herritar asko «arnasmunetik kanpora» bizi da hein ohargarri batez: gero eta «arnasmunetar» gehiagok handik kanpora egiten du lan; kanpoan egiten ditu orobat erosketa gehienak, kanpoan egiten bere Batxilergo-, Lanbide Heziketa zein unibertsitate-ikasketak, handik kanpora burutzen aisialdiko hainbat ekimen, eta abar.

- b) Arnasguneetan bizi den jendeak bitxitasun-seinalerik edo salbuespen-markarik gabe egiten du euskaraz, bertan eta arnasgune horren hainbat ingurutan. Aparteko esfortzu, ordain-sari, autozentsura edo sakrifiziorik gabe egiten du euskaraz, hitzez ari delarik. Zergatik? Inon idatzi gabeko gizarte-arau honegatik: «hemen horrela egiten da». Ingurumen horietan «horrela egitea» agintzen du bertako gizarte-arauak. Indarrean dirauen artean, lege asko baino erabakigarriago da gizarte-arau edo norma sozial hori. Hizkuntzaren bizi-iraupenerako giltzarri den arau hori arnasguneetan bakarrik daukagu bizirik. Arnasguneetatik kanpora, espazio soziofuntzionalaren esparru jakinetan izan ezik (demagun erdara nagusi den hiriburu, hiri eta herrietako D ereduko irakasleen jarduna, eskola esparruan) aski zartaturik, indargabeturik eta maiz galdurik, dago norma sozial hori. Arnasguneetan bizirik dago, erabat edo hein handi batean, eguneroko bizimoduaren espazio nagusietan (etxean, auzoan, familian, lagunartean, plazan eta tabernan, mezetan eta udaletxean²¹, eskolako jolaslekuan eta frontoian, herriko festetan eta ezkontza-hiletetan,..) hitzez ari garelarik²² «euskaraz egitea» agintzen duen bertako gizarte-araua.
- c) Euskal hiztun-elkarte beregaina, eguneroko jardun arrunta euskaraz bideratzen duena, ingurumen horietan bizi-bizirik dagoela erakusten dute arnasguneek. Argi antzematen du hori edonork. Errespetu handia eragiten du euskarazko jardun arruntaren berezko bizitasun horrek, bai euskaltzaleon eta bai euskaltzale ez diren (bertako zein kanpoko) askoren artean²³. Euskaldunok euskaraz bizi garen espazio geoterritorialik izan badela erakustea funtsezko eginbeharra da, euskal hiztun-elkarteak etorkizunik izango badu. Arnasguneek azaltzen dute argien, euskaraz «normal» bizitzea zer den. Hizkuntza-normalkuntzaren bila bagabiltza, arnasgune horietan gaude osasun oneko hiztun-elkarteen eguneroko mintzajardun normaletik hurbilen. Gain-kostu txikienaz eta kritika-bide murritzenaz hor atera dakioke euskalgintzari, *bide batez* jardunik²⁴ batez ere, etekinik hoberena.

21. Herritarren eta udaleko arduradunen edo zerbitzarien arteko hizketaz ari gara, ez bertako langile apurren idatzizko jardun espezifikoaz. Arau nagusi izatera gutxitan iritsi den arren, bide batez esanik, idatzizko jardunean indartuz doa euskarazko administrazio-lana hainbat arnasguneetan.

22. Hitzez, ez idatziz, bideratzen dira hizkuntza (hots, hiztun-elkarte) osasuntsuetan eguneroko mintzajardun arruntaren interakzio horiek, erabat edo nagusiki.

23. Besterik da, oso, inoiz (zenbaitetan ez hain aspaldi) halakorik izanik dela eta bihar-etzi berriro ere halakorik izan ledin nahi dugula erreibindikatzeko. Eskubide oso-oso dugu euskaltzaleok gure amets hori erreibindikatzeko, baina «beste gauza bat» da hori. Erdal munduak lehen begi-kolpean antzematen du bien arteko aldea.

24. «Bide batezko» euskalgintzaren inguruan, ikus, orobat, Zalbide 2007.

- d) Euskaldun garbien sorgune oparoa da arnasmunea. Eguneroko bizi-pozak eta beldur-gorrotoak, esperantzak eta atsekabeak, bizi-giro informal-intimoaren gertaerak, pasadizoak eta gora-beherak aparteko graziaz eta hitz-etorri onez azaltzeko gai diren hiztun beteen sorburu eta agergune dira arnasmuneak. Funtsezko oinarri izan ohi da hori, hizkuntza formal-landuaren garapen-lanerako ere. Ez da batere harritzekoa, hortaz, euskal profesional asko (beraiek edo beren gurasoak) arnasmuneetatik etortzea. Bizi izatera kalera jaitsi badira ere profesional horietariko gehienak, arnasmuneen *background* horretatik datorkie euskal hizkuntzaz airoso, zalu eta dotore baliatzeko doai aparta. Hitz-etorri oneko euskaldun trebe landuen harrobi dira arnasmuneak. Altxor preziatua da hori, oso, ahuldutako hiztun-elkarteontzat²⁵.
- e) Eguneroko mintzajardun arruntean, euskara da arnasmuneetan nagusi. Bere lekua du hor ere erdarak (eskolan atzera egin du, baina aurrera doa lan-esparruan, turismoan, ikus-entzunezkoen kontsumoan,..). Erdara (gero eta nabarmenago) hor egonik ere, euskarazko mintzajardun arrunta da arnasmuneetan nagusi: mintzabide bakar, jaun eta jabe edo, gero eta maizago, soil-soilik nagusi. Kontuz: «soil-soilik nagusi» esatea distraigarri gerta liteke: eguneroko mintzajardun arruntari dagokionez hor bakarrik da euskara, herri edo eskualde mailan, nagusi. **Hor bakarrik.**
- f) Haur-gazte-helduen katean, jaiotzatik hasi eta 35-40 urtera arteko ibilbide luze-bihurrian, *eusk* > *erd* mintzaldaketarik ez da arnasmuneetan luze-zabal gertatzen ari. Migrazio bortitzik edo bestelako eten-urratze larririk gertatzen ez den artean, hortaz, belaunez belauneko transmisioa segurtaturik dago arnasmuneetan.

Labur bilduz: osasun-egoera onetik beste edozein ingurumen geoterritorial edo populazio-segmentu baino hurbilago daude arnasmuneak, plano kolektiboari dagokionez. Osasun bete-betean ez, baina beste inon baino osasuntsuago bai. Horregatik da hain noraezeko, horregatik da hain zentral eta ezin alboratuzko, arnasmuneetako nagusitasun-moldaera horri indar betean (ahalik eta indarrik beteanean) eustea. Ahuldutako hiztun-taldea indarberritu liteke, hildakoa ez. Hildakoa biziberritu egin liteke gehienik, ez indarberritu. Hiztunen eguneroko mintzajardun arruntean hilik dagoena biziberritzea askoz lan zailagoa da, ordea, ahulduta dagoena indarberritzea baino.

25. Atzerriko beste hainbat aditu (Weinreich 1953, Gal 1979 eta 1995; Riehl 2006; Knipf-Komlósi 2011 etab.) oso kontuan hartzekoak direlarik ere, Nancy Dorian-en ikerlanei arreta biziz begiratzea komeni da gure ustez «altxor» horren zenbatekoaz eta nolakoaz argi jabetzeko: ikus Dorian 1981, 1992 [1989], 2010 eta 2014. Etxekoetan hor dugu, berriro ere, Seber Altube (Altube 1920, 1929-1930, 1933 eta 1936). Altuberen ekarpenaz egoki jabetzeko ikus, besteren artean, Josemari Velez de Mendizabal 1979 eta 2000).

Ez gara ezer berririk esaten ari. Kanpoko eta etxeko hainbat adituk esandakoa errepikatzen ari gara funtsean. Ikus dezagun, laburzki, aditu horiek (horietariko zenbaitek, gure ustez adierazgarrienek) gai honetaz zer esan duten.

Arnasguneen garrantziaz kanpoko eta etxeko zenbait adituk esandakoa

Ondoko galdera hauei erantzuten saiatu izan den aditurik bada, kanpoan zein etxean: 1) ahuldutako hizkuntza indarberritu eta «bere onera» ekarri ahal izateko, zer behar da batez ere? 2) hiztun-elkarte batean hiztun batzuek baizik jarraitzen ez badute beren hizkuntza belaunez belaun transmititzen, nondik komeni da hiztun-elkarte hori berregiten hastea? Goazen atalez atal.

- 1) *Ahuldutako hizkuntza indarberritu eta «bere onera» ekarri ahal izateko, zer behar da batez ere?* Era askotako erantzunak eman izan zaizkio galdera honi²⁶: erantzun horien errepaso arin bat nahi duenak ikus beza, adibidez, Zalbide 2002. Aniztasun horretatik funtsezko planteamenduetara hurbildu nahirik, kanpoko eta etxeko aditu bi aukeratuko ditugu gaurkoan. Ez dira inondik inora bakarrak. Bai, ordea, ahuldutako hizkuntzak indarberritzeko orduan kontuan izan beharreko elementu nagusiez aski argi eta ozen mintzatu izan direnak eta, oro har, beste aditu askoren bide-erakusle gertatu direnak. Kanpokoen azalpenetan Joshua A. Fishman-en hitzak izango ditugu gogoan, eta etxekoetan Seber Altube hartuko dugu aipagai.

Kanpokoen artean honela mintzatu izan da Joshua A. Fishman, behin eta berriz, bere *Reversing Language Shift* edo HINBE-saioaren lehentasun-gunea azaltzerakoan: «the fulcrum²⁷ of the GIDS scale is commonly²⁸ stage 6» (Fishman, 2001, 467. or.). Bere «Stage 6» hori badakigu zein den:

26. Erantzun posible horietariko bat da, dudarik gabe, Altubek 1933an aipatzen duen hau: «Un buen patriota vasco (...) decía en una perorata lo que transcribo a continuación: “emoidazube neuri azkatasuna, euzkerearen azterrenik bape eztaukadala be, ta urte gitxi-barru euzkerea biurtuko dautzuben sendo-sendo, zindo-zindo, indartsu, bixirik. ¿Bakixube zer biar dodan mirari ori egiteko? Iztegi bat (*diccionario* bat) eta euskal-izti bat (*gramática* bat)”. Erro sakonak ditu ikusmolde horrek: ikus, adibidez, Sabino Aranak 1901ean Hendaian irakurritako hitzaldian egileak puntu-hutsunez emandako pasartea (Zalbide etab., 2003: XVI-XIX). Bistan da, nolana ere, Sabino bera izan zela, egun hartan bertan gainera, bide hori ezinezkoa izanik alternatiba egingarria planteatu beharra aldarrikatu zuena. Knipf-Komlósi, Elisabeth, 2011: «Wandel im Wortschatz der Minderheitensprache. Am Beispiel des Deutschen in Ungarn». *Zeitschrift für Dialektologie und Linguistik – Beihefte (ZDL-B)* Band 145. Budapest.

27. Adiera ezaguna du *fulcrum*, *fulcro* horrek: *gatzelaniaz sostén, puntal, punto de apoyo de la palanca*. Euskaraz *euskarria*.

28. Ahuldutako hizkuntzen maizeneko gizarte-egoera hobetzeko beharrian nagusiez mintzo da *commonly* horren bidez. Garbi dio, horrekin batera, *fulcrum* hori beste zerbait izan litekeela «for particular languages vis-à-vis particular functions that are being targeted in particular cases» (Fishman, 2001: 467).

«The intergenerational and demographically concentrated home-family-neighbourhood-community: the basis of mother-tongue transmission» (Fishman, 2001, 467. or.). Hots: etxean eta familian, auzoan eta kalean, giza arteko jardunean eta herri-bizitza zabalean nagusi izan behar du euskarak, zaharren eta gazteen artean nagusi, eguneroko mintzajardunari dagozkionetan. Gurea bezain ahul dauden hiztun-elkarteen kasuan jardun-esparru multzo hori segurtatzea da gainerako saioen euskarri nagusia.

Gatozen etxeko aditura: euskara indarberritu eta «bere onera» ekarri ahal izateko zer behar da batez ere? Bere aurreko edota bere garaiko hainbat herritarren iritzi-azalpenak landuz, sakonduz eta garatuz²⁹ erantzun hau emanik dio galdera horri Seber Altubek, duela laurogeita hamar urte inguru: «Para la restauración de un idioma, es necesario que una población compacta y bastante numerosa lo use íntegramente como habla propia e íntima suya. La propagación del lenguaje hablado se opera principalmente por expansión natural mediante el contagio oral (hoy es necesario además que vaya apoyada por medios artificiales o docentes), lo cual requiere indispensablemente la existencia, repetimos, de focos o centros de irradiación de cierto volumen y formación compacta (..) en los que viva el idioma a expandir su vida plena, lozana y arraigada» (Altube, 1936, 73. or.). (Letrakera etzana gurea. Bere ikusmoldearen sintesi-saiorako ikus Zalbide, 2016). Lehendik esana zuen Altubek, goiko pasarte horren atariko, beste hau: «la práctica familiar es (...) el medio eficaz o decisivo para el aprendizaje perfecto de un idioma, aprendizaje que se complementa y se consolida con el uso diario en las calles, plazas y demás lugares de reunión entre gentes de pueblo que hablan el mismo idioma» (Altube, 1933, 305. or.).

Bistan da aski elkarren eskutik ibiliak ditugula Altube eta Fishman, puntu honetan³⁰. Alde kronologiko argi batekin, halere: J. A. Fishman-ek baino ia 60 urte lehenago azaldu zuen bere ikuspegia S. Altubek (eta are hogeitaka urte lehenago S. Aranak). Egunen batean aurrez aurre heldu beharko zaio gerra aurreko hizkuntza-soziologiaren gai horri³¹, euskalgintzaren argi-ilunak nazioarteko perspektiban egoki kokatu eta zuzen baloratu ahal izateko.

- 2) Hiztun-elkarte batean hiztun batzuek baizik jarraitzen ez badute beren hizkuntza belaez belaez transmititzen, nondik komeni da hiztun-elkarte hori berregiten hastea?

29. Tartean, errazegi ahazten bada ere, Sabino Aranaren 1901ean Hedaian egindako hitzaldi sendoa eta haren ildotiko zenbait esaldi. Ikus Zalbide 2015.

30. Puntu honetan bakarrik ez. Beste gai bat da hori, dena den, eta oraingoz bere horretan utziko dugu.

31. Bada horretaz kontuan hartzeko saiurik: ikus bereziki Jose Manuel Odriozolaren 1992ko Gerraurreko gizarte-hizkuntzalaritza.

- 3) Eguneroko jardun arruntean beren «betiko mintzoa» alde batera utzi eta erdal hizkuntza nagusira mintzaldatu diren hiztun-talde gero eta ugariagoetatik (eta talde horiek bizi diren ingurumenetatik) ekin behar zaio bereziki indarberritze-saioari, ala eguneroko jardun arruntean euskaraz diharduen (gero eta urriagoko) hiztun-multzo trinkoenetatik? Bistan da «leku guztietatik ekitea» dela irtenbide hoberena, ahal izanez gero, kasuan kasuko indartze-bidea aplikatuz han-hemen. Inork ez du, dakigularik, orotariko bide gihartsu hori gaitzetsi eta gaitzesten. Lehentasunak lehentasun dira ordea edozein giza-jardunetan, banaka zein taldean: «Quien mucho abarca poco aprieta» urrezko arau da edonon. Hots, bide bat hartu behar izaten da maiz, guztia egin ezin delako sarri. Guzti-guztia egin ezin denean «guztia ona da» esatea itsu bezain antzu da. Hori horrela dela jakinik, non dago euskalgintzaren lehentasun-oinarria? Ahuldutako hizkuntzaren alde egin nahirik «gauza guztiak» egin ezin direnean, zer da hobe?

Hona Joshua A. Fishman-ek zer dioen³²:

An early **start before inter-generational mother-tongue transmission has ceased** to occur is worth more than tons of sage advice. **It is better and easier to foster informal life when it still exists. It is the hardest thing to create afterwards.** It is very hard to create, to program that which is essentially not programmed or programmable. At best, you can program situations that might facilitate it (Fishman, 2007 [1996]).

(Beltxezko letrakera etzana gurea).

Labur bilduz: indarberritze-saioen beste hainbat eginbehar ukatu edo gutxietsi gabe, bizirik dagoenari bizirik eustea da, Fishman-en esanean, eginkizunik artezena. «It is better and easier».

Zer dio honetaz Altubek? Hona bere azalpena:

Será necesario que cuidemos, con preocupación **primordial, la conservación** (..) **del** fuego sagrado del **euskera en las poblaciones** de alguna importancia **en que** aún **permanece vivo**, pues constituyen los últimos reductos de defensa, las últimas bases para una posible expansión futura (Altube, 1936, 73. or.).

(Beltxezko letrakera etzana gurea).

32. Ez da hori aldi bakarra, Fishman-ek gai honi aurrez aurre heldu izan diona. Bere laburrean aski argia da ordea, eta oraingoz honetara mugatuko gara.

Alde eta ñabardura asko antzeman litezke bien artean, jakina³³. Aldeak alde eta ñabardurak ñabardura, funtsezko ikuspegi-ardatza oso antzekoa dute ordea biek: eguneroko jardun arruntean euskaraz diharduen hiztun-multzo trinkotik (nahiago bada: trinkoenetatik) abiatzea komeni da. Arnasmuneak ditugu askogatik, egungo egunean, Fishman-en «intergenerational and demographically concentrated home-family-neighbourhood-community» jardungune-esparrua sendoen eta bizien duten ingurumen geoterritorialak. Arnasmuneetan bakarrik daukagu egungo egunean, erabat edo nagusiki, Altuberen «población compacta (...) (que) lo use íntegramente como habla propia e íntima suya». Euskara indarberritzeko saioetan lehenetsun argikoak dira hortaz, Fishman-en eta Altuberen esanean, arnasmuneak.

Bibliografia

- Altube, Seber (1933). La vida del euskera: divulgación de los principios de la lingüística general aplicables a su defensa. *Euskera*, 1933 IV, 299–397.
- Altube, Seber (1936): Más sobre la vida del euskera / Barriro euskeraren bizitzari buruz. *Euskera*, 1936 I–IV, 1–217.
- Eguren, Juan María (1867). *Método práctico para enseñar el castellano en las escuelas vascongadas*. Imprenta de El Semanario Católico Vasco-Navarro.
- Eguren, Juan María (1868). *Diccionario manual o vocabulario vasco-castellano para el uso de los vascongados que quieran aprender el castellano*. Imprenta de El Semanario Católico Vasco-Navarro.
- Fishman, Joshua A. (1991) *Reversing Language Shift: Theoretical and empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Multilingual Matters.
- Fishman, Joshua A. (1996) [gure iturria 2007]. Maintaining Languages: What Works and What Doesn't. In Gina Cantoni (argtz.), *Stabilizing Indigenous Languages. A Center for Excellence in Education Monograph* (165–177. or.). Northern Arizona University.
- Fishman, Joshua A. (2001). From theory to practice (and viceversa): review, reconsideration and reiteration. In J.A. Fishman (argtz.), *Can threatened languages be saved?* (451–483. or.).

33. Altuberen «poblaciones de alguna importancia» hori ez genuke besterik gabe gutxietsi behar. Neurritz kanpora atera ere ez: egoerak okerrera egin da nabarmen 1933–36tik, eguneroko mintzajardun arruntaren esparruan, eta arnasmuneetan ez dugu halako mugarik ezarri. Ezarriko bagenu, Azpeiti hutsarekin geratzeko arriskua genuke. Nork esan du, gainera, herri-herrixka txikiagoetako euskal mintzajardun bizijatorra Azpeitiko kalekoa baino hutsalagoa, intentsitate-balioz apalagoa, denik? Demolinguistika beti da garrantzitsu: Azpeiti moduko dozena t'erdi arnasmune bagenitu egungo egunean, mila bider osasuntsuago legoke gaur euskara. Ez ditugu, ordea: ez dozena t'erdi, ez hamar eta ez bost. Demolinguistika oso aintzakotzat harturik ere, alferrik da negar-zotinkako bide itsuetan barrera abiatzea.

- Fishman, Joshua A., Robert L. Cooper, Roxana Ma et al. (1968). *Bilingualism in the Barrio (The measurement and description of language dominance in Bilinguals)*. Indiana University Publications [1971ko argitaraldia].
- Gal, Susan (1979). *Language shift: Social determinants of linguistic change in bilingual Austria*. Academic Press.
- Iurrebaso, Iñaki (2023). *Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolingüistikazko tresna metodologikoak garatzen. Euskal Herrirako aplikazio praktikoa*.
- Knipf-Komlósi, Elisabeth (2011). Wandel im Wortschatz der Minderheitensprache. Am Beispiel des Deutschen in Ungarn. *Zeitschrift für Dialektologie und Linguistik. Beihefte (ZDL-B)* Band 145.
- Mitman, Gregg (2007). *Breathing Space: How Allergies Shape Our Lives and Landscapes*. Yale University Press.
- Obermüller, Eva (2017). Warum Sprachen verschwinden. *science.ORF.at* (2017ko martxoaren 14an argitara emana).
- Odriozola, Jose Manuel (1992). *Gerraurreko gizarte-hizkuntzalaritza*. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Prochazka, K., eta Vogl, G. (2017). Quantifying the driving factors for language shift in a bilingual region. *PNAS*, 114(17). DOI: 10.1073/pnas.1617252114
- Riehl, Claudia Maria (2006). Sprachwechselprozesse in deutschen Sprachinseln Mittel- und Osteuropas. Varietätenkontakt und Varietätenwandel am Beispiel Transkarpatiens. In Nina Berendt eta Elisabeth Knipf-Komlósi (argtz.), *Sprachinselwelten. Entwicklung und Beschreibung der deutschen Sprachinseln am Anfang des 21. Jahrhunderts = The world of language islands. VarioLingua. Nonstandard – Standard – Substandard* (Vol. 27) (189–204. or.). Peter Lang.
- Weinreich, Uriel (1953). *Languages in Contact. Findings and Problems*. Mouton Publishers
- Zalbide, Mikel (2001). Fishman-en HINBE edo RLS. Hizkuntza-plangintzaren graduondoko ikastaroa.
- Zalbide, Mikel (2002). Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio? In *Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak*. EHIK [Erabili.eus-en argitaraturik dago txosten hau, bertako iritzi-muinetik atalean].
- Zalbide, Mikel (2016). Mintzajardunaren egoera eta azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronka. *BAT aldizkaria*, 100, 11-190.

3. Komunitate bernakularrak babestea hizkuntza gutxituen biziberritzean: gizarte-analisi dinamiko bat

Conchúr Ó Giollagáin (University of the Highlands and Islands)

Laburpena: Artikulu honek hizkuntza-taldeen bizindar etnolinguistikoari (BE) buruzko ikuspegi bat proposatzen du, H1-hiztunen komunitateentzat, H2-sareentzat eta H2-ikasleentzat elkarren onurak sortzea helburu duena, hizkuntza-taldeen iraupenerako elkar indartzeko ziklo baten bidez. BEaren kontzeptualizazio berri honek errealitatean oinarritutako esparru integral batean du oinarria —Language Dynamics in Society (LanDS: Ó Giollagáin *et al.*, 2025) deritzoguna—, hizkuntzak gizarteetan nola bizi diren ulertzeko, edo iraunkortasun etnolinguistikoa eta mundu-mailako hizkuntza-aniztasuna mehatxatzen dituen krisi soziolinguistikoa deskribatzeko.

Azken hamarkadetan hizkuntzen sustapenerako ikuspegi akademiko eta ofizialak oztopo izan dira gutxiengo-hizkuntzen komunitate bernakularren babeserako. Egungo hizkuntza-politikaren eta plangintzaren zati handi batek, besteak beste, ez du kontuan hartzen —edo ukatzen du— gutxiengo-komunitate bernakularren gainbehera sozial orokortua. Haien gainbeherari erantzunez, artikulu honek honako hauek proposatzen ditu: a) gutxiengo-hizkuntzen egoera soziala interpretatzeko esparru teoriko berri bat, eta b) gutxiengo-hizkuntzen sustapenerako ikuspegi estrategikoa, komunitate bernakularren babes nahikoa bermatuz; hau da, gizarte-ikuspegitik esanguratsua den hizkuntza-biziberritzea garatzea.

BEaren kontzeptualizazio berri honek gutxiengo-hizkuntzen iraupena aztertzen du elkarreraginezko dinamika sozialaren ikuspegitik. Ikuspegi honetatik, BEak funtsezko lau garapen-fase ditu bere baitan: 1) lehen mailako sozializazioa; 2) bigarren mailako sozializazioa; 3) indartze zibikoa; eta 4) etnizazio koherentea, hau da, identitate kolektiboaren pertzepzioetan koherentzia eragiten duten prozesu soziopolitikoak. Fase horietan zehar —banaka zein kolektiboki— aurrera egitea funtsezkoa da hizkuntza-komunitate baten gizarte-iraunkortasuna garatzeko eta sendotzeko. Hortaz, hizkuntza-politika arrakastatsua hizkuntza-talde baten

gaitasun kultural, politiko eta instituzionalaren mende dago, estrategiak gizarte-aldaketaren presioekin, elkarreragin-prozesuekin eta hizkuntza-talde baten BEaren oinarri diren dinamika sozialekin lerrokatzeko.

Gako-hitzak: bizindar etnolinguistikoa, hizkuntza-babesa, LanDS esparrua, hizkuntza-sozializazioa, hizkuntza-indarberritzea, etnizazio koherentea, hizkuntza-biziberritzea, gutxiengo-hizkuntzen soziolinguistika bernakularra.

Sarrera

Arnasguneen inguruko hausnarketak gutxiengo bernakularren gizarte-inguruabarretara birbideratu du arreta, eta hori aurrerapauso garrantzitsua izan da. Bizindar etnolinguistikoaren (BE) gizarte-dimentsioen garrantzia azpimarratzea behar-beharrezko lehen urratsa da gutxiengo hizkuntza-politika eta -plangintzan (GutxHPP) gutxiengo bernakularren kezken lehenespena berrezartzeko. Horrek bizindar etnolinguistikoaren inguruko ikusmolde berezi bat eskatzen du, onura partekatuak ekarriko dizkiena H1-hiztunen komunitateei, H2-sareei eta H2-ikasleei talde linguistikoaren iraunkortasunerako ziklo iraunkor eta elkarrekiko indargarri batean. Ikuspegi soziologiko eta politiko batetik, hizkuntza gutxituen kezka etnolinguistikoekiko ikusmolde holistiko horretan aski sustraituta ez dauden aspirazio zibiko eta komunitarioak ezin dira sinesgarritzat jo GutxHPP gizartekoi gisa. Hortaz, hizkuntza gutxituen sustapen sinesgarria bermatzeko, GutxH edo hizkuntza gutxituen jatorrizko hiztunen komunitate bernakularren habitat soziala babestetik hasi behar da. Hizkuntza gutxituen eguneroko praktikaren testuinguru sozial-geografikoak eta haien kultura sozialak indartuz soilik eboluziona dezakete hizkuntza gutxituen sustapenak eta komunitate bernakularren babesak GutxHPP dinamiko eta «soziofuntzional» gisa (cf. Fishman, 2001, 673. or.).

BEaren inguruko gure ikusmoldea Language Dynamics in Society (LanDS) edo Hizkuntzaren Dinamika Gizartean (HizDG)¹ izeneko proiektuan oinarritzen da (Ó Giollagáin *et al.*, 2025). Horren bidez, HPP-agenda berrezartzen ahalegindu nahi dugu, eta arreta gizarte-dinamika konplexu batzuetan jartzen, zeinek eragin positiboa izan baitezakete hizkuntza-komunitateetan (eta iraunkortasun etnolinguistikoa bermatu) edota eragin kaltegarria (eta

1. Artikulu honen atal garrantzitsuenak jatorrizko «LanDS» artikuluan oinarritzen dira (Ó Giollagáin *et al.*, 2025: <https://sciendo.com/article/10.2478/tajes-2025-0002>). LanDS proiektuaren ikertaldean daude Conchúr Ó Giollagáin, Daniel Bourgeois, Brian Ó Curnáin, Iain Caimbeul eta Gordon Cameron. Gure jatorrizko artikulua BE markoen erreseina bibliografiko bat jasotzen du.

hauskortasun etnolinguistikoa eragin). Hauxe argudiatzen dugu: «BEa bermatzeko, ezinbestekoa da hizkuntza-talde batek bere gizarte-egonkortasunarentzat eta jarraitutasunarentzat erabakigarriak diren prozesu belaunaldiarteko, komunal/sozial, instituzional eta zibiko funtsezkoak babesteko eta biziberritzeko antolamendu-gaitasun kolektiboa izatea» (Ó Giollagáin et al., 2025, 26. or.).

HizDG markoa Joshua Fishman hizkuntza-politika eta -plangintza modernoaren sortzaile entzutetsuaren Reversing Language Shift (1991) edo Hizkuntzaren Indarberritzearen paradigmaren ondorengo gisa aurkezten dugu. Honetan datza HizDG markoaren garrantzia: Fishmanek BEa sustatzeko 1960ko hamarkadatik 2000ko hamarkadara bitartean egindako ekarpen baliotsuetan oinarritzen dela.

HizDG proiektuak, batetik, BEaren birkontzeptualizazio esanguratsu bat proposatzen du, eta, bestetik, osagai analitiko bat eskaintzen du ikuspegi berri hau lantzeko, zeinak H1-hiztunen dentsitate altuko komunitate bernakularrak iraunarazteak dituen erronketara birbideratzen baitu arreta. Birbideratze bernakular honen jatorria *Comprehensive Linguistic Study of the Use of Irish in the Gaeltacht* (Ó Giollagáin et al., 2007) lanean aurkitzen da (2015ean eguneratu zen: Ó Giollagáin & Charlton, 2015). Lan horretako metodologia egokitu egin zen ondoren Eskoziako *Gaelic Crisis in the Vernacular Community* inkestarako (Ó Giollagáin et al., 2020). Irlanderarekin eta Eskoziako gaelikoarekin erabilitako metodologia soziolinguistikoa (Ó Giollagáin et al., 2007, 2015, 2020) galesaren testuinguru bernakularrera egokitu zen ondoren, eta, horren ondorio gisa, BRO² kolaborazio soziolinguistikoa (2023-2027) ezarri zen galesaren eremu bernakularren inguruko inkesta egiteko. Gerora, irlanderaren eta Eskoziako gaelikoaren munduak eta galesarenak GutxHen kezka bernakularrak eztabaidatzeko izandako elkarriketa interkulturaleri esker, ikuspegi soziolinguistiko multikultural bat sortu zen Euskal Herrian Arnasguneen proiektua ezartzeko (2025).

GutxHPPa lantzeko ikusmolde holistikoak

GutxHPParen alorrean osotasuna eta osagarritasuna proposatzea, HizDG proiektuko ikusmolde holistikoan adierazi zen bezala, antidoto bat da gaur egungo HPP batzuetan (adibidez, Irlanderarentzako 20 Urteko Estrategian; Acht na Gaeltachta 2012 delakoan; 2025eko Eskoziako Hizkuntzen Aktan; Eskualdeetako

2. Cf. BRO: A Comprehensive Sociolinguistic Survey of Contemporary Welsh-speaking Communities | University of Wales eta https://www.gov.wales/sites/default/files/publications/2024-08/Prosiect%20BRO%20Compendium%20of%20Language%20Statistics%20based%20on%20Census%202021%20data_0.pdf (2025-09-29an kontsultatua).

eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren ebaluazio-irizpideen ezarpenean) gutxiengo linguistikoaren zaurgarritasunaz jarduteko nabari diren errezeloen aurrean. BE holistikoa garatzeko, gainera, beharrezkoa da alde batera uztea orain arte nagusi izan diren eta analitikoki antzuak diren zenbait diskurtso postestrukturalista, ez dutenak arreta nahikorik jartzen gutxiengo bernakularren kezketan. Hona hemen batzuk:

- Gutxiengoaren identitate-erronkak aniztasun, hibridotasun eta aldakortasun postmodernoa (adb. Blommaert, 2010).
- Hizkuntza gutxituetako *speakerhood* delakoaren osaera, tartean *new-speakerism* delakoa (adb. Smith-Christmas *et al.*, 2018).
- *Translanguaging* delakoa (adb. García & Wei, 2014).
- Paisaia linguistikoak (adb. Gorter, 2006).
- GutxHPParen kudeaketa sektoriala (adb. Williams, 2023; Spolsky, 2009)³.
- Mundu akademikoan GutxHen filologian jartzen den gehiegizko arreta, arrisku-egoeran dauden gutxiengo askoren erroka soziologiko, antropologiko, politiko eta soziolinguistikoak aztertzeke ikerketa-erakundeek garatu beharko luketen ikusmolde sistematiko baten kaltetan⁴.

Diskurtso horiek GutxHPP sinboliko gisa kategoriza litezke, eta ez GutxHPP gizartekoi gisa, zeina garrantzitsuagoa eta beharrezkoagoa baita. Izan ere, hizkuntza gutxituen kulturen gizarte-ezabapena saihesteko prospektibak, orain, gutxiengo horien ahalmenean dautza, beren habitataren babes soziala eta holistikoki diseinaturiko BE-estrategiak lortzera bideratutako GutxHPP gizartekoiak diseinatzeko eta ezartzeko dituzten baliabideetan eta gaitasun kolektiboan. Definizioz, GutxHPP sinbolikoak ondorio sinboliko edo instituzionalak ekoitz ditzake soilik, hau da, sustatze-ahaleginen emaitza ez-gizartekoiak. HPP gizartekoiak gizarte-zientzia errealean jartzen duen azpimarra, beraz, nahiko argi bereiz daiteke askotan GutxHPP sinbolikoa eta hura zilegitzen duten diskurtso akademikoak irudikatzen dituzten sentimendu indibidualista handinahi askotatik.

3. GutxHPPetan (testuinguru mendebaldarretan) ikusmolde sektorialista lehenesteak (hezkuntzako, hedabideetako, arteko eta administrazio publikoko sektoreetan) estatu-klase bitartekari bati egin dio mesede, eta dispensa formalak eman dizkio hizkuntza-sustapen postestrukturalistari, ez datozenak bat hizkuntza-talde baten bizindar etnolinguistikoarentzat oinarritzkoak diren gizarte-aldaketak, prozesu interaktiboak eta dinamika sozialek eragiten dituzten presioekin.

4. Ó Giollaigáin-ek (in press) sindrome hau eztabaidatzen du irlanderazko lan akademikoekin eta mundu akademikoarekin lotuta.

Beharrezkoa izan dakiguke aztertzea, halaber, ea Europako Gutunaren xedapenak ezartzeko alor akademikoan eta politikoan jarri den azpimarrak ez ote duen arreta desbideratu HPParen gizarte-ikuspegi zabalago batetik, eta ez ote duen alde batera utzi, besteak beste, GutxHen familia- eta gizarte-transferentzia, edota GutxHek hainbat gizarte-eremu eta -funtzioetan izan dezaketen nagusitasun-maila. Azken urteotan, gero eta gehiagotan ikusten dugu hizkuntzak positiboki ebaluatzen direla Europako Gutunak bizitasun sozial gutxi edo batere ez duten GutxHentzat ezarritako irizpideen arabera⁵. GutxHen bizindarra Europako Gutunak ezarritako alor sektorialen arabera ebaluatzeko modu burokratiko horrek, azkenerako, ahuldu egingo du Europako Gutunaren sinesgarritasun soziolinguistikoa. Zaila denez eguneroko bizimodu errealean Eskoziako gaeliko-hiztunek aurrera eramane beharreko borrorak argi adieraztea Europako Kontseiluak Eskoziako gaelikoaren inguruan egindako azken ebaluazioan, prozesua nahasgarria gertatzen da, ematen baitu zuhaitzek ez dutela basoa ikusten uzten. Ikuspuntu horretatik, badirudi Europako Gutuneko prozesuek zerbitzu-akordio bat monitorizatzen dutela, eta ez dituztela hainbeste ebaluatzen etnolinguistikoki desberdinak diren taldeen bizindarra sostengatzeko hil ala bizikoak diren kontuak. GutxHen gizarte-ikuspegitik begiratuta, hemengo analisi honek defendatzen du HPPen xedapen sektorialista ezarriek komunitate bernakular zaugarrien premiei erantzuteko modu desgizartetu bat eragin dutela, politika-gaiak ez direlako ongi egokitzen gutxiengoaren dinamika sozialen egungo errealitatearen funtsezko alderdietara.

Fishmanek (2001, 673. or.) ohartarazi zuen moduan:

Azalpen-saiakera teorikoki tolesgabeen [...] arazoa da ez dituztela gizarte-prozesuak xeheki deskribatzen edo ez daudela haiekin erlazionatuta, ez talde barruko elkarrekintzei dagokienez, ez talde arteko elkarrekintzei dagokienez, hau da, funtsean ez dira soziologikoak (eta, ondorioz, ez soziolinguistikokoak), eta ez daude erlazionatuta azterketa edo aplikazio zorrotzetan oinarritutako ezein ikerketarekin.

Horrek honako galdera hau eginarazten digu: zergatik ez duten Europako gutxiengo linguistikoen erronka bernakularrek merezi duten arreta jaso azken hamarkadetan. Irlandako eta Eskoziako gaelikoaren egoera aztertuz, ikusi dugu nola Gaeltacht eta Gàidhealtachd eremuetako (Irlandako gaelikoa eta Eskoziako gaelikoa hitz egiten diren eremuak, hurrenez hurren) hizkuntza-

5. Ikusi Europako Kontseiluak (2024) Europako Gutuneko adierazleetan oinarrituz Eskoziako gaelikoaren inguruan egindako azken ebaluazioa: Erresuma Batua positiboki ebaluatu zuen, nahiz eta gaelikoz mintzatzen diren komunitate bernakularren gainbehera sozialaren gizarte-froga argiak dauden (Ó Giollagáin *et al.*, 2020), cf. <https://rm.coe.int/united-kingdomecrml6-en/1680b1a73f>

pobretzearekin eta gaelikoz mintzatzen diren komunitate bernakularren gizarte-gainbeherarekin lotutako kontu erabakigarriak besterik gabe alde batera utziak edo ia guztiz saihestuak izan diren mundu akademikoan eta politikagintzan (cf. Ó Giollagáin & Ó Curnáin, 2024, Ó Giollagáin in press, 2025, eta Ó Giollagáin in press). Alabaina, ikuspegi soziolinguistiko zabalago batetik, merezi du honako galdera hau ere egitea: ea azkenaldiko diskurtso soziolinguistiko batzuek ez ote duten lagundu kezka bernakularrei lehentasuna kentzen hizkuntza gutxituen sustapenean. Bereziki HPPak 1990eko hamarkadaren bukaeran eta 2000ko hamarkadaren hasieran izandako biraketa identitarioaz geroztik (adibidez Heller, 1999, 2011), HPParen alorreko diskurtso batzuek GutxH-kulturen esperientzia indibidualizatuan jarri dute arreta, GutxH-kolektiboak sostengatzeak dituen dimentsio soziopolitiko eta gizarte-dimentsio zabalagoen kaltetan.

Lehenago argudiatu dugunez, gaur egun gutxiengo hizkuntza-politika eta -plangintzaren alorrean (GutxHPP) egiten diren ahalegin gehienak hizkuntza-komunitatea babesteaz aski arduratzen ez diren hizkuntza-sustapen gisa deskriba litezke (cf. Ó Giollagáin et al., 2025; Ó Curnáin & Ó Giollagáin, 2024, eta Ó Giollagáin & Caimbeul, 2021). Egoera honetara iritsi izanak, non hizkuntza-sustapena babes bernakularrik gabe egiten baita, adierazten du egungo HPPa era nabarmen eta kaltegarrian urrundu dela bere hasierako definiziotik, zeina Fishmanek garatu baitzuen batez ere (1964, 1989, 1991, 2001), azpimarra hizkuntza baten gizarte-dimentsioan jarritz.

Aldaketa hau nola gertatu zen aztertzeak lagundu liezaieke ikusmolde desbideratu horiei HPPa bide gizartekoi eta postneoliberal batera itzularazten. Norabide-aldaketa horren arrazoien artean egon litezke, besteak beste, azkenaldian ugaritu eta modan jarri diren hainbat diskurtso identitario (cf. Grin, 2018), zeinak GutxHen sustapen ofizialki onartuetan nagusitzen joan den joera sektorialistarekin batera zabaldu baitira. GutxHen politika identitarioek eta joera sektorialista zedarrituek elkarrekin sortu zuten efektuak GutxHPParen ikusmolde jakin bat zabaldu zuen, zeinak, paradoxikoki, *laissez faire* erako jarrera neoliberal bat bultzatu baitzuen, guztiz kaltegarria jada gainbehera demolinguistikoan zeuden gutxiengo bernakularrentzat.

Fishmanek (1989, 1991) GutxHPParen inguruan zuen ikusmolde soziopolitikoa, zeina Hizkuntzaren Mantentzea (hizkuntza mantentzeko estrategia soziofuntzionalekin belaunaldien arteko transmisioa bermatzea) eta Hizkuntzaren Biziberritzea (hizkuntza indarberritzeko neurriak ezartzea) uztartzen dituen estrategia gisa deskribatzen baita, itzalpean geratu zen GutxHen kondizioaren deskribapen eta diagnostiko analitikoki ahulagoen ondorioz. Diagnostiko

analitikoki ahulagoek nabarmen baztertu zituzten HPPa bideratzeko proposamen emankorrakoak. Fishmanek honako puntu hauen garrantzia azpimarratu zuen:

- GutxHen transmisioa eta belaunaldien arteko jarraitutasuna.
- Plangintza soziala eta talde arteko eta talde barruko garapen politikoak.
- Gutxiengo bernakularrarentzako garapen komunitario eta sozioekonomikoaren inguruan ardazturiko hizkuntza-politika erregionalak.

Eta, aldi berean, honako puntu hauek indartzea proposatu zuen:

- Arreta paraleloa H2ren jabekuntzan eta sareetan.
- Berrikuntza kultural eta teknologikoak GutxHentzat.
- Jabekuntza-plangintzak hezkuntzan eta hizkuntza gutxituetan egiten den irakaskuntzan.
- Gutxiengoentzako politika instituzional eta sinbolikoak hizkuntza maiortarioa nagusi den gobernu-sistema zabalagoan.

Diskurtso- eta politika-mailan Fishmanen ikusmolde gizartekoitik egon den desbideratzearen ondorioz, GutxHen sustapenaren bertsio murriztu batek mugatu izan du hizkuntza-plangintza. Anbizio soziopolitiko zabal baten gisa abiarazi zena politika sozial estuago eta ahulago batera murriztu zen GutxHen testuinguru askotan. HPParen bertsio murriztu hori nahikoa izan zen GutxHen jarduera zibikoa eta arau-betetze burokratikoa eragiteko, baina desegokia gertatu zen GutxHen aldeko politikak BEa sostengatzera bideratuko zituen indar esanguratsu gisa. Labur esanda, kontzeptu fishmandarrak alde batera uztearen ondorioz, hizkuntza-sustapen sinboliko bihurtu zen hizkuntza-plangintza. GutxHPP sinbolikoa, ekimen sektorial zibikoetara mugatua, burokratikoki komenigarria gertatu zen GutxHen botere-klaseentzat, eta, aldi berean, baita politikoki eroso ere. Gizarte-eta politika-alorreko anbizio falta hori zela eta, GutxHen sustapenak ez zuen gehiengoengan aurkakotasun handirik eragin GutxHen horniketa sektorialari eskainitako arreta eta gastuaren inguruan⁶. GutxHPP sinbolikoa, bere izaera ez-gatazkatsuegatik, segurua zen gehiengoentzat eta, aldi berean, gizarte-pisu gutxikoa gutxiengoentzat.

GutxHPParen ikusmolde murriztu eta ez hain anbizioitsu horrek helburu hauetara mugatu du pixkanaka arreta:

6. Esaterako, *20-Year Strategy for the Irish Language* estrategiarekin lotutako kostuek ez zuten gehiengoarengan erreakzio negatiborik sortu Irlandan, nahiz eta ez dirudien estrategia horretan gastatutakoak inolako errentagarritasunik ekarri zionik gizarteari.

- Estatusaren eta corpusaren plangintza egitea, hau da, baliabideen plangintza, eta ez komunitatean zentratutako HPPa.
- GutxHen sustapen-organoen profil sinbolikoa areagotzea.
- Hezkuntzaren, hedabideen, arteen, akademiaren eta berrikuntza teknologikoaren alorretan GutxHen aldeko ekimenak sektorialki zabaltzea eta finantzatzea.
- GutxHen biziberritzeari dagokionez H2-kezkak lehenesten dituen ikuspegi bat bultzatzea, eta, ondorioz, maila berean jartzea hizkuntza gutxituak H2 moduan sustatzeko ahaleginak eta gutxiengoen biziberritzea, eta H2ren berpizkundea lehenestea GutxHen diskurtso nagusi moduan.

H2-ikuspegiaren nagusitasunak ondorio hauek ekarri ditu:

- Ez da arreta estrategiko nahikorik jartzen GutxH-hiztunen dentsitate sozial handiko eremuetan transmisioa mantentzeko dauden zailtasunetan.
- Hizkuntza-politika ez da aski malgua eraldaketa sozioekonomiko, gizarte-mailako eta teknologikoetara egokitzeko, eta GutxHen alorreko diskurtsibismoak guztiz baztertu du GutxHen (post-)modernitateko hauskortasunean zentratzen den ikuspegi soziologikoa, askoz beharrezkoagoa.
- GutxHen arazo sozial korapilatsuei erantzun neoliberal eta *laissez faire* estilokoa ematen zaie.

Arretagune nagusia H2n jartzen duten ikuspegi neoliberalek gobernatutako testuinguruetan, GutxHPP faltsuak sortu dira. Izaera faltsu hori argi islatzen da esfera politiko, akademiko eta ofizialek H1 bernakularren gainbeheraren aurrean agertzen duten nahasmenduan, H2 nagusi den hizkuntza-politika nola egiten den ikusita⁷. Gizarte-erronkak saihestuz, agenda diskurtsibista baten mendeko bihurtzen da H2-GutxH-politika, eta tropo erlijiosoen multzo baten itxura hartzen du, non, biziberritze-anbizioak asetzeko, erakundeek gidatutako ekimen kultural, sinboliko eta pedagogikoetara jotzea gomendatzen baita. Era berean, gutxiengoa sostengatzen duen merkatu sozioekonomikoa txikitzen doanez komunitate bernakularra demolinguistikoki ahuldu ahala, GutxHen aldeko aktibismoa aparatatu zibiko ofizialaren gero eta mendekoago bihurtzen da GutxHen sustapenerako (cf. Cameron, 2012). Estatuak finantzaturiko aktibismo mota hau erraz bihurtu daiteke sistemari atxikitako aktibismo mota bat, zeinaren bidez erakundeek inspiratutako diskurtso gutxi batzuk modu seguruagoan eta polemika

7. Ikusi nolako eztabaida sortu zen Ó Giollagáin *et al.* 2020 argitalpenaren ondoren: Nance 2021, eta McLeod *et al.* 2022. Erantzunentzat, ikusi: Ó Giollagáin *et al.* 2022a,b; Ó Curnáin & Ó Giollagáin 2021.

gutxiagorekin zabaldu baitaitezke gizartean gutxiengo linguistiko bideragarri bat sostengatzeko kezka errealak baino. Sistemari atxikitako aktibismo horren ondorio bat mundu akademikoan nabari daiteke, ikusita nola hautematen duten GutxHen inguruko ikertzaileek gaur egungo GutxHen gizarte-errealitatea. Unibertsitate-mailan GutxHak ikertzeko erabili ohi den ikusmolde filologiko eta estetikoak, bereziki gizarte-erronketatik bereizita praktikatzen eta garatzen denean, garrantzi intelektual mugatuko bilaketa akademizistatzat jotzen da maiz, gutxiengo-egoeran dirauen zibilizazioaren eguneroko borroka soziopolitikoak bizi dituztenekiko enpatia gutxi erakusten duen ikerketatzat.

Ikuspegi fishmandar batetik, H2-kezketan jarritako gehiegizko arretak H1 mantentzeko baldintza estrategikoekiko axolagabetasuna areagotzen lagundu zuen. Hutsune estrategiko horrek komunitate bernakularretako egoera gero eta okerragoaren inguruko hausnarketa soziologiko eta politiko ahulentzako baldintzak sortu zituen, eta, azkenerako, premiazko gizarte-erronken inguruko GutxHPP ahulak ugaritzea ekarri zuen. Arreta guztia H2-kezketan jartzeko joera eroso horrez eta gehiengoak GutxHarekiko dituen eskakizun sinbolikoez gain, badira H1-komunitateetako gizarte-ezgonkortasunarekiko nahasmendua eragin duten beste faktore batzuk. Nagusia hauxe litzateke: aktibistak eta akademikoak, estatuko funtzionarioekin ideologikoki bat eginda, isilbidezko akordio batera iritsiak direla, eta, hala, GutxHekiko engaiamendu instituzional eta sinbolikoa gehiengoaren kultura nagusiaren barruan hedatzera bideratzen dituztela beren ahalegin guztiak. Nahiz eta ikusmolde horrek oso modu erosoan areagotu zuen GutxHen babeserako erakundeek gehiengoaren aparatu zibiko zabalagoaren barruan zuten onargarritasuna, H1en desagerpenaren inguruko balizko lotsa baztertzeko edo estaltzeko ere balio izan zuen, GutxHPpek kontrakoa baieztatu arren. Ikuspegi honetatik, GutxHPP gehienek, oharkabean bada ere, H1en gainbehera bernakularra eragiten ari diren baldintza sozial eta politikoak erreproduzitzen laguntzen dute, HPpek GutxHen egoera larria eta ezgonkortasuna leuntzeko ezarritako xedeen kontra.

Askotan, GutxHen botere-klasea ingurune sozial berezi batean bizi da, non ez baitio aurre egin behar H1en gainbehera gertatzen ari den testuinguru bernakularrean bizitzearen eguneroko esperientziari (cf. Ó Giollagáin & Ó Curnáin, 2024; Ó Giollagáin in press, 2025; eta Ó Giollagáin in press). Naturalki, beraz, joera gutxiago du instituzionalki bideratutako gutxiengoen politiken estutasun kontzeptuala salatzeke. Gainbeheran den gutxiengo bernakular baten soziopolitika gordina ez esperimentatzean, GutxHen gizarte-errealitateari iskin egitea, GutxHen sustapen zibikoarekiko mendekotasunaren bidez, bat dator GutxHei esleitutako horniketa instituzionalaren mugen barruan diharduen GutxH-

realpolitikarekin, baina ez gehiengoaren hegemonia soziopolitikoari enbarazu egiteko moduan. Labur esanda, gutxiengo bernakularren ikuspuntutik, GutxHen politika instituzionalen muga zibikoak ezin dira politika sozialekin parekatu. Horrek laguntzen du azaltzen zergatik senti dezakeen gutxiengoak galduta dabilen lidergo politiko instituzional batek gidatzen duela, zeinak gutxiengoaren kulturari esker existitzen den kultura-aniztasunarekiko gehiengoaren atxikimendu sinbolikoari egiten baitio nagusiki mesede.

HizDG marko kontzeptual gisa

Hizkuntzaren Dinamika Gizartean edo HizDG markoak (Ó Giollagáin *et al.*, 2025, LanDS) iradokitzen du elkarrekin erlazionatuta dauden eta elkar indartzen duten gizarte-prozesuen arabera funtzionatzen duen hizkuntza-dinamika batek baldintzatzen duela bizindar etnolinguistikoa (BE). HizDG ikusmoldeak, BEa azaltzeko, gutxiengo baten jarraitutasun, ezegonkortasun edo ahultze kolektiboa eragiten duten gizarte-elkarrekintza polifazetikoetan oinarritzen den teoria bat aurkeztzen du. Gaur egungo testuinguruan, non edonon ikusten baita GutxH bernakularren desagertzea (Crystal, 2000; Harrison, 2007; Bradley & Bradley, 2019), aldaketa etnolinguistikoa eragin dezaketen dinamika sozialak ulertzea baldintza analitiko ezinbestekoa da ibilbide demolinguistiko ezegonkortzaileak geldiarazi edo alderantzizatzeko ekimen kolektibo, instituzional edo estatalak deskribatzeko, azaltzeko eta ezartzeko. HizDG analisi diziplinartekoak gutxiengo baten barruko edo gutxiengoaren eta gehiengoaren arteko dinamika komunal/sozialetan jartzen du azpimarra. Dinamika horiek baldintzatzen dituzte jokaera etnolinguistiko indibidual eta komunalak eta psikologia soziala.

Aniztasun kultural eta linguistikoaren galera globalak erantzun holistiko bat eskatzen du, krisi ekologikoari eman zaion erantzun globalaren antzekoa. HizDG aurkezteko berriki argitaratu dugun artikuluan, errealitatean oinarritutako marko orohartzaile bat aurkeztzen dugu hizkuntzak gizarteetan nola bizi diren ulertzeko edo, modu teknikoago batean esanda, iraunkortasun etnolinguistikoa eta munduko hizkuntza-aniztasuna mehatxatzen duen krisi soziolinguistikoa deskribatzeko.

Ingurumen-zientzietan, habitataren babesa funtsezko kontzeptua da hondamen ekologikoaren mehatxuari aurre egiteko. Hizkuntza-kulturetan antzeko ikusmoldea behar da hizkuntza-aniztasunaren hondamenaren aurka borrokatzeko. Hizkuntza-komunitate batek bere burua birsortzeko duen gaitasuna galtzea, izan ere, habitata galtzearen baliokide soziolinguistikoa da. Mundu-mailan, kultura gutxituen desagertze-arriskua inflexio-puntu batera iritsia da. Hizkuntza handiak hedatzen ari dira, iraultza teknologikoaren indar erabatekoa atzean dutela, eta

hizkuntza txiki asko, berriz, hondoratzen ari dira; eboluzioaren teoriaren arabera, esan liteke «handienen biziraupena»-ren garai soziolinguistikoa bizitzen ari garela. Egungo inguruabarretan, habitat linguistikoen galeraren erritmoa handiagoa da biodibertsitatearen suntsipenarena baino. HizDG markoak metodologia bat proposatzen du dinamika horiek gizarte modernoetan aztertzeko.

Greenpeace oso ezaguna da munduan, baina gutxik izango dute, adibidez, Foundation for Endangered Languages edo desagertze-arriskuan dauden hizkuntzen aldeko fundazioaren aditza. Krisi ekologiko globalaren inguruko kontzientzia publikoa nabarmen handiagoa da arrisku soziolinguistikoari buruzko ezagutza baino. Bistan denez, hizkuntza-aniztasuna gehiengoarentzat garrantzirik gabekoa bada funtsean, hiztunen habitatak galtzea ere, gehiengoarentzat, garrantzirik gabeko kontua izango da. Ondorioz, jendeak ez du ulertzen zer egin behar den hizkuntza-aniztasuna babesteko. Aldi berean, kultura maioritario horietako jende askok lasai asko gozatzen du hizkuntza gutxituen estetikaren eta kulturaren zenbait alderdiz, kultura gutxituek beren habitat tradizioaletan irauteko dituzten oztopoez axolatu gabe. Ugariak dira osasun publikoari, ekologiari eta ekonomiari dagozkien kontuetan gomendioak ematen dituzten organismo nazional eta internazionalak. Ez dago horien antzeko agentzia izen handikorik, ordea, hizkuntza-aniztasun globalaren arriskuei aurre egiteko. Oraingoz, ez dago plan estrategiko edo agenda sofistikatu edo aipagarririk mundu osoan zabaldua dagoen hizkuntzen desagertze-arriskuari buru egiteko.

Aniztasun ekologikoari buruzko eztabaida publiko asko arrazoibide serioetan oinarritu ohi dira; hizkuntza-aniztasuna, aldiz, maila naif edo ez-zorrotz batean eztabaidatzen da askotan. Ondorioz, hizkuntza gutxituen inguruko eztabaida eta sustapen-ahaleginei koherentzia eta funts intelektuala falta zaizkie maiz, eta horrek murriztu egiten du hain beharrezkoa den errealismoa.

Talde linguistiko bat mantentzea, funtsean, taldea errealitate sozial bizi gisa iraunaraztea da. Birsorkuntza biosoziala bermatzen duen dinamika axiomatiko hau funtsezkoa da gure marko holistiko berri honetan iraunkortasun etnolinguistikoa ulertzeko eta sostengatzeko. Gure markoak belaunaldien arteko ziklo gisa ulertzen du hizkuntzaren transmisioa, eta feedback-bukle batean kokatutako lau koadrantetan aurkezten ditu hizkuntza-dinamika hauek. Belaunaldi arteko zikloak norbanakoek eta adin-taldeek bizitzan zehar duten bilakaera irudikatzen du. Jendeak, heldu ahala, gaitasun linguistikoak garatzen ditu lau koadrante nagusi hauetan zehar: 1) haurren lehen urteak (guk Hizkuntzaren Transmisioa eta Jabekuntza izendatzen ditugunak), non, esaterako, lehen arretako profesionalek taldearen hizkuntza erabiltzen baitute haurrekin; 2) haurtzaroaren bigarren

zattia (Sozializazioa eta Jabekuntza Sendotua), non, esaterako, haur zaharragoak beren hizkuntzan sozializatzen baitira elkarrekin; 3) helduaroa (Hedatze Zibikoa), non, esaterako, helduek lankidetzan jarduten baitute beren hizkuntzan, beren komunitatean aukera sozial eta ekonomikoak eratzeko; eta 4) gizarte zabalagoa (Etnizizazio Koherentea, Politika Zibikoa barne), non, esaterako, taldeko kideak taldearekin identifikatzen baitira eta politikoki parte hartzen baitute beren taldearen bideragarritasuna politikoki sostengatzeko. Norbanakoek eta adin-taldeek koadranteetan zehar aurrera egin ahala, heldu egiten dira, eta hurrengo belaunaldiarentzako oinarri izango den gizarte bat eratzen dute; ondorioz, hurrengo belaunaldia 1. koadrantean sartzen da, eta, horrela, zikloa garatzen joaten da eta iraunkortasunerako testuinguruak erreproduzitzen ditu.

Elkarrekin erlazionatutako lau etapa interdependente hauek elkar sendotzen dute ziklo iraunkor batean. Haurrak hizkuntza-kultura bat(zu)ez jabetzen dira (1. koadrantea), eta beste batzuekin praktikatzan dituzte heldu ahala (2. koadrantea). Hitzunek beste batzuekin praktikatzan dute kultura, eta elkarrekin sortzen dituzte, nola intimoak hala zibikoak, zeinek haien hizkuntza-kultura(k) sendotu baititzaizkete (3. koadrantea). Norbanakoek beren talde(ar)ekin eta elkarrekin dituzten elkarrekintza horiek haien politika eta identitate kolektiboaren oinarria eratzen dute (4. koadrantea). Ondorioz, 1. koadrantetik 4.era inoko bilakaera psikologiko eta garapenezkoak norbanako gazteen, familien, komunitateen eta gizartearen esperientziak barne hartzen ditu, baita hezkuntzarekin eta bizitza zibiko, sozioekonomiko eta politikoarekin duten elkarrekin ere. Horrek osatzen du HizDG marko holistikoaren oinarritzako muina.

Badira talde linguistikoaren bizitzaren alderdi guztietan eragiten duten lau Printzipio Orokor, eragin saihetsezina dutenak azaldu berri ditugun koadranteetan. Hauek dira lau Printzipioak: 1) Norabidea (hots, norbanakoen eta taldeen bilakaera multidimentsionala belaunaldien barruan eta belaunaldiz belaunaldi); 2) Prozesua (norbanakoen heldu-prozesuaren eta taldearen iraunkortasunaren arteko dinamika); 3) Parte-hartzea (nola parte hartzen duen jendeak bizitza soziolinguistikoaren alderdi guztiz sozialetan); eta azkenik 4) Lehia (norbanakoek eta talde linguistikoek hizkuntz(ar)ekin eta kultur(ar)ekin erlazionatzeko eta beren baliabide pertsonal eta kolektiboak testuinguru horiei aplikatzeko duten ahalmenaren izaera lehiakorra. Lau Printzipio hauek elkarrekin lotutako lau errealitate psikosozial, demografiko eta soziolinguistiko funtsezko irudikatzen dituzte. Denboran zeharreko prozesu biosozialak barne hartzen dituzte, edo, beste hitz batzuetan esanda, dinamika kultural, sozial, ekonomiko eta politiko kooperatibo eta lehiakorretan parte hartzen duten norbanakoen eta taldeen progresio kronologikoa.

Politikoki, 4. printzipioak garrantzi berezia du talde linguistikoek nonahi bizi duten arrisku-egoeraren testuinguruan. Norbanakoen eta hizkuntza-entitate politikoen arteko eta horien barruko lehiakortasun orohartzailea bereziki nabarmentzen dugu gure markoan. 4. printzipioak kontuan hartzen ditu dinamika lehiakor globalizatuak, tartean gutxiengoentzako aukera kultural eta ekonomikoen kostuak, eta azpimarra berezia jartzen du mundu zabaleko bizindar etnolinguistikoaren oraingo eta geroko iraunkortasunaren arrisku-mailan. Aldaketaren botereak eta inoiz ez bezalako abiadurak areagotu egin ditzakete hizkuntza nagusien abantaila lehiakorrak.

Behean, xeheago azaltzen dugu nola eragiten duten lau Printzipio Orokorrek Garapen Koadranteetan. HizDG proiektua diagnostiko-marko holistiko bat da, osotasunaren, konplexutasunaren eta osagarritasunaren kontzeptuetan oinarritzen baita. (Gutxiengoan dagoen) talde kolektiboaren kontzeptu garrantzitsua azpimarratzen du, bai eta norbanakoak talde horretan duen posizioa ere. Postestrukturalistak, talde linguistikoaren inguruan duten ikuspegi individualizatuaren eraginez, urrundu egin dira zoritxarrez funtsezko kontzeptu honetatik. Labur esanda, (gutxiengoan dagoen) taldea ez bada gaur sostengatzen, argi dago bihar ez dela egongo (gutxiengo hizkuntzaren) hiztunen multzo esanguratsurik.

Egungo ikusmoldeek 3. koadrantea (Hedatze Zibikoa) nabarmendu ohi dute besteen gainetik, eta, bereziki, hizkuntza gutxitu baten erabilera sinbolikoa edo haren sustapen zibikoa. Horrek eragotzi egiten du HizDG markoaren ikusmolde holistikoa aplikatzea. Era berean, hizkuntza gutxituen egungo sustapenak bazter uzten du maiz errealitate demolinguistikoaren eremu osoan zentratzeko premia, eta ez ditu kontuan hartzen HizDG markoko lau printzipioak: Norabidea, Prozesua, Parte-hartzea eta Lehia. Adibidez, gaur egun garrantzi handiegia eman ohi zaio hizkuntza gutxituak eguneroko errealitatetik isolatuta irakasteari, eta horrek komunitate-transmisioaren garrantzia alde batera uztea ekar dezake.

Egungo ikusmolde gehienek dituzten mugen aurkako erremedio gisa, gure HizDG markoak *statu quotik* irteten eta desberdintasun linguistikoaren sinbolismo xalotik harago joaten lagunduko die talde linguistikoek. HizDG ikusmoldeak errealitatean oinarritutako marko holistiko bat proposatzen du hizkuntza-sustapenerako eta hizkuntza-aniztasunaren babeserako.

Gutxiengoen dinamika sozialetako Garapen Koadranteetako Printzipio Orokorrak: Norabidea; Prozesua; Parte-hartzea eta Lehia

Lau Printzipio Orokorrak (PO) hauek (Norabidea, Prozesua, Parte-hartzea eta Lehia) berebiziko garrantzia dute lau Garapen Koadranteetan (GK). Idealki, lau GKEk mugimendu progresibo bat eragiten dute etapa batetik hurrengora, eta GK bakoitzaren barruko dinamika, aldi berean, lau PO hauek baldintzatzen dute. BE iraunkorrerako, Hizkuntzaren Babes eta Sustapenerako (HIBASU) eta HPPrako hain funtsezkoa den osotasunaren kontzeptu orohartzaileak (Ó Curnáin & Ó Giollagáin, 2024, 412. or.) elkarreragin osagarri eta dinamiko batean sartzen ditu PO eta GK hauek guztiak. Lau POek etengabeko eragina dute HizDG markoko BE-dinamika egituratu eta elkarri lotuetan. GK hauek norbanakoentzako etapa sekuentzial gisa ikus daitezke, bai eta talde etnolinguistikoarentzako ekintza-, partaidetza- eta garapen-esfera gisa ere.

Norabidea

1. irudiak⁸ gutxiengoen dinamika sozialetako norabidearen kontzeptua erakusten du. Norabide hori bi ardatzen gainean mugitzen da. Ardatz bertikalak, lehenik, belaunaldien arteko GutxHaren transferentzia soziala adierazten du, eta horren barruan hizkuntzarekin lotutako kapital sozial eta kulturalaren transmisioa (Bourdieu, 2017, 183-184. or.). 1. irudiko Y ardatzeko funtsezko osagaia, beraz, gaitasun linguistikoen eta hizkuntzarekin lotutako kulturaren transferentzia da, aurreko belaunaldi(eta)tik belaunaldi berrira egiten dena. 1. irudiak hori irudikatzen du: ibilbide bertikal bat, GutxHaren lehen transferentziazatik abiatuz 1. eta 2. GK sozialen etapetatik igarotzen dena, eta 3. eta 4. GK instituzional/formalei ere badagokien transferentzia sozializaturaino iristen dena; izan ere, transferentzia sozializatua belaunaldien arteko transmisioaren lehen transferentziaren jarraipen bat da ardatz bertikalean. Garai kritikoko jabekuntza elebiduna etxetik edo lehen sozializaziotik kanpo gerta daiteke, adibidez GutxHko haur-eskoletan, non hizkuntza nagusiko haurrak GutxHaz jabetu baitaitezke.

8. HizDG markoaren autoreek beren esker ona adierazten diote Nóirín Ní Ghiollagáini HizDG markoaren inguruko diagrama kontzeptualak (1-4 irudiak) prestatzeko egindako diseinu-lanagatik.

1. irudiak belaunaldien arteko dinamika sozial iraunkorren lau Garapen Koadranteak irudikatzen ditu:


1. Garapen Koadrantea – Hizkuntzaren Transmisioa eta Jabekuntza

2. Garapen Koadrantea – Sozializazioa eta Hizkuntzaren Jabekuntza Sendotua

3. Garapen Koadrantea – Lanketa Zibiko, Sozioekonomiko eta Instituzionala

4. Garapen Koadrantea – Etnizizazio Koherentea.

1. irudiko dinamika zirkularreko norabide-geziek BE iraunkorrak lau GKetan zehar egiten duen ibilbidea irudikatzen dute. Dinamikaren norabidea ardatz horizontalean mugitzen ere ikus daiteke, hots, hizkuntza eta kultura gutxituaren praktika belaunaldi bateko edo belaunaldi arteko hainbat agertoki sozial eta geografikotan. Horren barruan legoke komunitateetan, eskoletan, erakunde zibikoetan eta sustapen-sektoreetan egiten den GutxHaren praktika. Hori irudikatzen du 1. irudiko ibilbide horizontalak: 1. eta 2. GKetan egiten den hizkuntzaren Praktika Sozialetik, 3. eta 4. GKetako prozesu instituzional/formalei dagokien Praktika Zibiko eta Sozioekonomikoraino. Ibilbide horrek norabide bakarrean jarduten du, mikro-testuinguru batetik makro-testuinguru batera; izan ere, Praktika Zibiko eta Sozioekonomikora eta identitatearen eraketa positibora iristeko, testuinguru sozial bernakularreko Praktika Sozial informalagotik igaro beharra dago. HizDG markoan irudikatutako GKen etapa gero eta zabalagoek praktika-komunitateen sareen hedatzea irudikatzen dute, mikro-mailatik gizartean hedakorrak diren makro-testuinguruetarainoko progresio dinamikoa barne hartuz.



Prozesua

Prozesuaren kontzeptua etapa sozial edo garapen-etapetan progresiboki mugitzeko dinamika sozialari dagokio. Mugimendu hori etapen barrukoa, etapetan zeharrekoa edo etapa batetik besterakoa izan daiteke. Gizarte-dinamikaren inguruan ardaztutako marko honetan, lau GKetara barrena egiten den progresioak gizarte-iraunkortasun optimoa lortzeko garabideekiko atxikimendu optimoa adierazten du. Norabidearen eta Prozesuaren Printzipioek dimentsio historiko bat dute, belaunaldien arteko kultura- eta hizkuntza-transferentzia ziklikoaren faktore garrantzitsuak direla eta, hau da, hiztun-talde batek denboran zehar metatzen duen ondare kulturala dela eta. Esandakoak esanda, prest gaude orain lau GKez hitz egiteko.

1. koadrantea: Transmisioa. Hizkuntza eta kultura gutxituaren garai kritikoko jabekuntzari dagokio. Jabekuntza hori familiako transmisioaren bidez egiten da, edota lehen arretako testuinguru batean, non lehen sozializazioaren hasierako prozesuak gertatzen baitira eta gaitasun soziokultural gorpuztuak garatzen hasten baitira (Clark, 2009; Montrul, 2008; Péterváry *et al.*, 2014; Benmanoun *et al.*, 2013).

2. koadrantea: Sozializazioa. Hizkuntza eta kultura gutxitua gazteen edo adiskide taldeen artean praktikatuz lortzen den heltze eta sendotze soziala, 1. GKko lehen transmisioari jarraitzen diona (cf. Hasan, 1988). Sendotze sozial hau gertatzeko, testuinguru komunal jakin batzuk behar dira, non gutxiengoak baduen gaitasuna alde aurretik lehen sozializazioa bizi izan duten gazteen dentsitate sozial nahikoa eratzeko. Prozesu honen bidez sozializatzen dira gazteak beren gutxiengoko adiskideekin etxeko/familiako testuingurutik harago. Ikuspuntu honetatik, gutxiengoetako bigarren sozializazio gisa deskriba liteke 2. GKa.

3. koadrantea: Hedatze Zibiko eta Sozioekonomikoa. Hedatze hau eskoletan, organizazio kolektiboetan, erakunde zibikoetan eta bestelako elkarte edo foro publikoetan egiten den GutxHaren praktikaren sendotze zibikotik egiten da. Esfera profesionala eta mugikortasun sozioekonomikoa biltzen dira 3. GKan. Bikotekidea hautatzen da eta familia eratzen da 3. GKan. Prozesu hauek, horrela, alde aurretik testuinguru sozial edo komunal intimo, informal eta ez-programatuetan (Calvet, 2006) bizi izandakoa formalki edo instituzionalki sendotzeko balio dute, eta helduen eta taldeen garapen-etapa aurreratuak ahalbidetzen dituzte (cf. Bernstein, 1971 (kode landuei dagokienez); Hulstijn, 2017 (hizkuntza-kognizio altuagoari dagokienez)).

3. eta 4. GKetako hizkuntza-politika formal eta informalak erabakigarriak izan daitezke GutxHPPen eraginkortasun/onargarritasun estrategikoan. GutxHen inguruko iritzien eraketa-prozesuak ongi sustraituta daude 4. GKko diskurtso publikoen doxan, eta diskurtso horiek zerikusi gutxi dute 3. GKko gizarte-zantzu frogatuen epistemean. Ondorioz, GutxHen inguruko iritzien eraketa-prozesuek etnizizazio koherentea / identitatearen eraketa sendoa (4. GKa) lortzeko aukeren aurka egingo dute ezinbestean, eta, beraz, kalte egingo diote BEa sustatzeko arrazoi kolektiboekiko atxikimendu esanguratsu eta komunitate-mailakoari (zeina 3. eta 4. GKetatik sortzen baita).

4. koadrantea: Etnizizazio Koherentea. Koadrante honetan, gutxiengo bateko kide desberdinek identitate iraunkorra, eraketa ideologikoa eta sendotze sozialerako praktikak elikatze eta haiei atxikitze behar duten gizarte-testuinguru zabalagoa sortzen da. Hizkuntza nagusiaren Etnizizazioarekiko lehia-testuinguruan, GutxH-belaunaldi bakoitzak hizkuntza barruko eta etnia

arteko diskurtso eta parte-hartzeen bidez negoziatzen eta formulatzen du bere identitatea. Negoziazio jarraitu horien xedea hauxe da: kontsentsu iraunkor bat lortzea hizkuntza nagusiaren etnizazio asimilatzailearen eta HIBASUa sostengatuz eta (ber)indartuz lortuko den GutxHaren Hedatze Zibikoaren artean. Badira prozesu indibidual eta kolektibo batzuk zeinetan alderdi etnolinguistikoak taldearen identitate kolektiboaren osagai nabarmen eta ezaguterraz gisa sendotuta edo formalizatuta dauden, eta GK honek prozesu horien alderdi batzuk biltzen ditu bere baitan, besteak beste identitatea nola hautematen den indibidualki eta nola esleitzen eta ezartzen den kolektiboki. Gutxiengo baten identitate-zentzuaren koherentzia kolektiboa demostratzeko, kontuan hartu behar da nolako desira eta gaitasuna duen gutxiengoak identitatea esleitzeko prozesuak praxiarekin bateratzeko, tartean daudelarik gutxiengoak kultura-talde lehiakideen aurrean duen gizarte-posizioa babesteko edo hobetzeko egiten dituen ahalegin praktikoak.

Hizkuntza-politikaren sorketa eta lanketa 4. GKari dagokio. Kasu batzuetan, trebetasun politikoaren faltak edo 3. GKko ekimen zibikoen administrazio edo inplementazio formalaren gizarte-eraginkortasun ahulak eragin kaltegarria izan dezake GutxHarentzako dinamika positibo gisa funtzionatzen duten 3. eta 4. GKetan. 3. eta 4. GKek berebiziko garrantzia dute GutxHa gizartean egonkortzeko; izan ere, GK hauek eskaintzen dute gutxiengo linguistiko kohesibo batek behar duen testuinguru kolektibo kritikoa bere egoera sostengatzeko eginmolde berritzaileak diseinatzeko eta inplementatzeko (cf. Fishman, 2001). Ó Curnáin & Ó Giollagáin (2024, 403. or.) lanean «anglobalizazioa» eta Munduko Hizkuntza Sistemak aztertzean argudiatu bezala, hizkuntza demografikoki handiak eta are mega-hizkuntzak (esaterako frantsesa, hindia, bengalera, ingelesak ez diren hizkuntza europarrak eta abar) agentibitate indibidual eta kolektiboko elkarreragin dinamiko honetan nahasita daude, hizkuntza-kultura gutxitu eta gutxitzaile gisa, bere alderdi negatiboetan eskubide soziolinguistiko globalen tragedia gisa deskriba litekeen egoeran⁹.

Parte-hartzea praxi moduan

Dinamiketan parte-hartzearen kontzeptua, funtsean, GKetan zehar garatzen den gutxiengoari dagozkion jardura sozial, sozioekonomiko, politiko eta kultural askotarikoetan diharduten jokalaria, parte-hartzaile, talde edo praktika-komunitate

9. BEaren inguruko markoek prozesu eleaniztun historikoak ere hartu behar dituzte aintzat: «Gainera, Afrikako hirien hazkundea landa-eremuetatik migrazioaren ondorio denez hein handi batean, argi dago hirietako eleaniztasuna behar bezala ulertzeko ezinbestekoa izango dela jendeak landa-eremuetatik hirietara aldatzean edo hirien eta landa-eremuen artean joan-etorrian ibiltzean berekin ekartzen dituen eleaniztasun motak hobeto ulertzea» (Di Carlo & Good, 2020, xxiii-iv).

ugariei dagokie. Jarduera horien artean dago gutxiengo linguistikoaren baldintza komunalak betetzera bideratutako sektore instituzionaletan (esaterako kirol-klubetan eta eskoletan) duten parte-hartzea.

Gutxiengoaren dinamika sozialen gizarte-dimentsioak biltzen dituzten jokalaria sozialen artean, honako hauek daude:

- Hizkuntza gutxitua lehen hizkuntza gisa darabilten hiztunak, parte-hartzaileak lehen Hizkuntza Kulturaren murgilarazten dituztenak.
- Hizkuntza gutxitua bigarren hizkuntza gisa darabilten hiztunak, parte-hartzaileak lehen Hizkuntza Kulturarekin erlasionatutako Kultura Tangentzial Gutxituan (ikusi beherago) murgilarazten dituztenak.
- Hizkuntza gutxitua bigarren hizkuntza gisa darabilten edo ikasten ari diren hiztunak, tartean Neokultura Gutxituaren (ikusi beherago) aldekoak edo parte-hartzaileak.
- Gutxiengoarentzako horniduren alde dauden gehiengo linguistikoko kideak.
- Gutxiengoarentzako horniduren kontra dauden gehiengo linguistikoko kideak.
- Lehen Hizkuntza Kulturako lider komunitarioak, eta batez ere GutxHaren geografia sozialean bizi direnak.
- GutxHaren sustapen zibikoan edo HPP-erakundeetan diharduten lider sektorialak.
- Lehen Hizkuntza Kulturarentzako eta GutxHko sektore zibikoentzako hornidura zibikoan positiboki nahiz negatiboki eragiten duten lider politiko, burokratiko eta instituzionalak.

Gure markoaren ondorioa da parte-hartzaile guztiek lau prozesuetako bakoitzak irauten duen bitartean egiten dituzten ekintza (eta ekintza-ez) indibidual eta kolektiboek HPP-emaitzak taxutzen dituztela eta hizkuntza gutxituaren BEan eragiten dutela.

Parte-hartzaileen arteko lehia

Laugarren Printzipio Orokorra, Parte-hartzaileen baitako eta arteko Lehiari buruzkoa, botere arauemaile eta politikoaren, geodemografiaren eta baliabide sozioekonomiko, zibiko eta kulturalen aurrean parte-hartzaile guztien artean sortzen den lehia-dinamika erabakigarriari dagokio. BEaren alorreko lehia-

dinamikaren funtsezko alderdi bat dimentsio konparatiboa da: hizkuntza nagusiko aurrerapenak gutxiengo linguistikoarenak baino askoz handiagoak izan daitezke, eta horrek pentsaraz dezake GutxHak ez duela behar besteko garapenik izan eta aukera murriztuak dituela. Lehia honek eragina du gizarte-indar positibo edo negatiboetan: sustapen-dinamika bat sor dezake, edo aitzitik dinamika kaltegarri bat, GutxHaren osotasun soziala eta tokiko gailentasuna eta BEa mantentzeko. BEaren HizDG teoriak begien bistako ondorioak izango ditu HPPan eta HIBASUan: GK erabakigarrietan egiten diren esku-hartzeak desberdinak izango dira aldagai esanguratsuek GK jakinetan eta HizDG dinamika orokorrean dituzten efektu neurgarrien arabera.


HizDG eredu ziklikoa mikro-mailatik makro-mailara doazen lau GK oinarritzoren hurrenkeran oinarritzen da, bere baitan bilduz norbanakoa edo adin-taldea heltzen eta sozialki garatzen doazen heinean haiengan gertatzen den garapen biologiko eta kronologikoa eta gizarte-sareen eta sare zibikoen izaera hedatzailea (ikusi beherago Prozesuari buruzko eztabaida). Fishmanen GIDS diagnostiko-eskemako mailak erraz egokitu daitezke gure HizDG ziklora: GIDSeKo 4-1 mailak gure 3. eta 4. GKei dagozkie, eta GIDSeKo 5. eta 6. mailak, berriz, 1. eta 2. GKetako BE-jarduerari. GIDSeKo 7. eta 8. mailetako alderdiak (EGIDSeKo 7-10 maileri dagozkienak) 3. eta 4. GKetan gertatzen dira, non 1. eta 2. GKetako gizarte-alderdiak islatzen baitira. Beste sistema konplexu batzuk bezala, gure GKak ere zati txikiagotan banatu daitezke desberdintze kategoriko xeheagoak zehazteko.

Hizkuntza gutxituen bizindar etnolinguistikoak

Garapen Koadranteetan zehar egiten duen bilakaeraren dinamika soziala

2. irudiak GutxHen BEak GK batetik bestera egiten duen bilakaera zirkularra irudikatzen du. Txikitzen doan emariak gutxiengo etnolinguistiko mehatxatua adierazten du: emariaren txikitzeak dinamika sozialean nabaritzen den gainbehera demolinguistikoa adierazten du, gutxiengo batek hizkuntza-aldaketaren mehatxua bizi duenean bezala. GutxHaren emariaren txikitze konparatiboak komunitatearen desadostasunak ere irudikatzen ditu, eta haren eragozpenak bere talde-bizindarrari belaunaldiz belaunaldi eusteko eta bere estatus demolinguistikoa mantentzeko. GutxHa lehen hizkuntza gisa (H1) darabilen komunitate bernakularrak lehiakide d(it)uen talde etnolinguistiko indartsuago(ar) en presio asimilatzaileak pairatu dituen ez edo pairatzen ari denez, txikitzen doan emariak GutxHaren transmisioaren jarraitutasunik eza deskribatzen du: nola GutxHan mintzatzeko gaitasuna eta kapital soziala dituen belaunaldi bat

ez den gauza hizkuntza hori hurrengo belaunaldiari transmititzeko, zeina talde etnolinguistiko lehiakidearen hizkuntzan haziko baita. 1. irudia aztertzean azaldu bezala, GutxHaren EBA lau PO nagusien arabera da: norbanakoek, adin-taldeek eta gizataldeek lau GKetan zehar egiten duten bilakaerari dagozkion Norabidearen, Prozesuaren, Parte-hartzearen eta Lehiaren arabera. BEaren Norabidearen printzipioak belaunaldi arteko ziklo bat adierazten du, zeina uraren zikloarekin alderatu baitaiteke, non euria erreka bihurtzen den, erreka ibai, ibaia lurrin eta lurrina berriro euri.




2. irudia. Lau Garapen Koadranteak hizkuntza gutxituak gainbeheran doazen dinamika sozialetan.

Gutxiengoaren hedadura demografiko absolutua txikitzen ari bada, eta hizkuntza gutxituaren hiztunen dentsitate sozial geografikoak galera esanguratsuak jasaten ari badira, argi dago gero eta norbanako gutxiago arituko direla lau GKetan parte hartzen. Transferentzia sozializatuaren onurak eta

sendotze zibiko eta adiskideen artekoa jasotzen dituzten parte-hartzaileen kopuruaren beherakadak gero eta aukera gutxiago uzten ditu etapa batetik hurrengorako bilakaera kolektibo eta sozioekonomikoa arrakastatsua izan dadin, eta behar adinako kopuruetan eta talde-dentsitateetan gerta dadin prozesu hauek gutxiengoko gazteriaren talde barruko eta talde arteko harremanen ezaugarri nabarmenenetakoak bihurtzeko. 2. irudiak, beraz, hizkuntza nagusi bateranzko aldaketa egiteko gizarte-presioa jasaten duen eta gehiengoaren funtzio normatiboekiko asimilazioaren aurka borrokatzen den gutxiengo linguistiko baten dinamika soziala deskribatzen du.

Dinamika sozialak: hizkuntza maioritarioaren hiztunak gutxiengoaren testuinguruan


3. irudiak HizDG egituraren deskribapenean sakontzen du, eta hizkuntza maioritarioko parte-hartzaileek hizkuntza gutxituaren dinamika sozialean duten eragina irudikatzen du. Irudiak gris ilunago batez margoturiko emari gorakor bat ere erakusten du, norabidea irudikatzen duten gezi eta guzti: adierazten du hizkuntza maioritarioaren hiztunak dinamika positibo baten arabera mugitzen direla GKetan hizkuntza eta kultura maioritarioaren testuinguruan. Emari nagusi horren dimentsio gero eta handiagoak adierazten du hizkuntza maioritarioaren hiztunak gero eta gehiago direla GKetan zehar aurrera egin ahala, eta, ondorioz, fenomeno horren efektu (gutxiengoaren ikuspuntutik) kaltegarri edo ordezkapenezkoa ere erakusten du, gutxiengoaren geografia sozialean eta testuinguru zibiko eta instituzionalean hizkuntza maioritaria (nagusiki) erabiltzearen ondorioz sortua. Kanpoko zirkuluak, kultura maioritarioaren emariarenak, hizkuntza gutxituaren emaria inguratzen du, adierazteko hizkuntza-aldaketa pairatzen ari diren kultura minorizatuak kultura maioritarioak ezarritako muga barruan funtzionatu behar dutela, gehiengo kulturalaren botere-egiturekiko, menderatze zibikoarekiko eta eragin normatibizatzailearekiko menderakuntza-harreman batean.



Dinamika sozialak: Kultura Tangentzialeko eta Neokultu- rako Parte-hartzaileak gutxiengoaren testuinguruan

4. irudian, bi zerrenda erdizirkular gehitu zaizkio GutxHaren dinamika sozialari: batek GutxHaren gizarteko Kultura Tangentziala irudikatzen du, eta besteak gutxiengoaren Neokultura. Ertz puntudun batez apainduriko zerrenda erdizirkularrak, kultura gutxituen kanpoaldean dagoenak, GutxHaren dinamika sozialeko Kultura Tangentziala adierazten du. Zirkulu erdi tangentzial horrek GutxHaren H1-hiztunak ez diren baina GutxHa hitz egiten duten hiztun batzuek dinamika sozial minoritarioan betetzen duten rola irudikatzen du. Kultura Tangentzialeko parte-hartzaileak izateak esan nahi du hiztun horrek GutxHa eskuratu duela GutxHaren H1-komunitatearen geografia sozialean murgilduz eta hizkuntza gutxituko adiskide taldeen sozializazioaren alderdi komunal batzuetan parte hartuz. Parte-hartzaile Tangentzialak (PT) H1-komunitatearekiko harreman

tangentzial batean daudela esaten da, H1-hizkuntza eta -kultura bertatik bertara bizi izan dituztelako beren ingurune sozialean, GutxHaren ezagutza eskolaren bidez eskuratutako gaitasun batzuetara mugatu gabe. Ez dutenez GutxHaren lehen sozializazioa bizi izan (1. GKan), eta bigarren sozializazioaren Prozesuaren esperientzia partziala baino ez dutenez (2. GKan), 2. eta 3. GKen elkargunera iristean sartzen dira gutxiengoaren dinamika sozialean. PTek, beraz, bigarren sozializazioaren zati batean parte hartu dute, eta badute aski gaitasun linguistiko GutxHaren Sendotze Zibikoaz baliatzeko eta harentzat baliagarri izateko; horregatik dago zirkuluerdi tangentziala 3. eta 4. GKetan, eta horregatik datxekio kultura gutxituaren emariari. PT baten adibidea litzateke hizkuntza maioritario lehiakideko H1-hiztun bat, aukera izan duena dentsitate altuko H1-gutxiengoaren hartu-eman sozialetan aktiboki parte hartzeko eta elkarrekintza sozialei esker GutxHko hainbat gaitasun eskuratzeko. PTak eta hizkuntza gutxitua H2 moduan ikasten ari diren hiztunak ez dira berdinak; izan ere, H2-hiztunek eskola bidezko input pedagogikoen beharra izaten dute normalean.



Dinamika sozialak: Neokulturako Parte-hartzaileak gutxiengoaren testuinguruan

4. irudian ere, beste zirkuluerdi bat gehitu zaio dinamika sozialari: kultura maioritarioari datzekion eta marra etenez apaindutako zirkuluerdiak GutxHaren Neokulturari dagozkion Parte-hartzaileak irudikatzen ditu. Zirkuluerdi horrek, beraz, H2k gutxiengoaren gizarte-egoeran duen dimentsioa irudikatzen du, eta H2-ikasleen eta hiztunen elkarrekintzek gutxiengoaren dinamikan dituzten ondorioak. Neokulturako Parte-hartzaileek (NeoP) badituzte beren berezitasunak bai H1-hiztunekin eta bai Kultura Tangentzialeko Parte-hartzaileekin alderatuta, ez baitute bizi izan H1-hiztunek esperimentatzen duten 1. GKko lehen sozializazioa, ez 2. GKko bigarren sozializazioa, ezta PTen gizarte-esperientzia partziala ere (GutxHa adiskide talde baten barruan praktikatzeari esker lortua). Oro har, NeoPek hizkuntza gutxituko identitate bat bereganatzen edo aldarrikatzen dute, GutxHko eskolatzeko jartzen diren bitarteko curricular eta pedagogikoez baliatu direlako, bai hizkuntza maioritarioaren eskola-sisteman GutxHko klaseak hartuz, bai GutxHko murgiltze-programetan matrikulatuz. NeoPek dinamikan eragin onuragarria dutela esaten da haien kezkak bat datozenean H1-gutxiengoaren eta PTen kezekin. Hori gertatzen da askotan NeoPen interesak zabalagoak direnean; alegia, ez direnean mugatzen hizkuntza gutxitua eskolako ikasgai soil gisa ikastera.

Gutxiengoaren dinamika sozial eta kulturalako parte-hartzaileak gehiengoaren testuinguru sozial eta kulturean (ber)asimilatzea

BEaren inguruko HizDG markoak kultura maioritorioranzko bultzada asimilatzailea ere aztertzen eta deskribatzen du, GutxHko parte-hartzaile ugariekin lotuta. Presio asimilatzaile askotariko hauek HizDGri buruzko jatorrizko artikuluko 7. irudiaren azalpenean eztabaidatu ziren (cf. Ó Giollagáin *et al.*, 2025, 49-51. or.), non azaltzen baitzen nolako indar asimilatzailea sufritzen duten Gutxiengoak, Kultura Tangentzialak eta Neokulturak Kultura Maioritarioarekin eta haren dinamika sozialekin bat egin dezaten. Jatorrizko HizDG artikuluko 7. irudiak, funtsean, gizarte maioritarioek gutxiengoetako hiztunak asimilatzeke edonon egiten duten presioa adierazten du. Fenomeno hau bereziki nabarmena da hizkuntza-aldaketaren dinamika sozial kaltegarria pairatzen ari diren gutxiengo linguistiko mehatxatuen kasuan.

Presio asimilatzaile hauen arrazoiaren artean daude hiztun maioritarioek hiztun minoritarioen dinamika positiboetan eragiten duten haustura, eta hiztun

minoritarioek GKetan zehar egiten duten mugimendu progresiboan hiztun maioritarioek eragiten duten etena. Adibidez, hizkuntza maioritarioaren hiztun elebazarrek hiztun minoritarioen eskolatzean parte hartzen badute, ondorioa honako hau izango da ia beti: hizkuntza maioritaria izango da lehen hezkuntzako ikasleen *lingua franca*, eta horrek eragotzi egingo du hiztun minoritario gazteen bilakabide etenik gabea 2. GKko adiskide taldeen arteko sendotze sozialeko prozesuetan barna. Hiztun minoritario gazteen kasuan, haien hizkuntza etxeko erabilerara mugatuko da, eta funtzio sozial zabalagoak murriztuta edukiko ditu. GutxHaren funtzio soziala familia-unitate gero eta isolatuagoetara eta testuinguru formaletara murrizten joatea oso prozesu ohikoa da hizkuntza-aldaketa gertatzen den testuinguruetan. Halere, hizkuntza-aldaketa azken fasean baldin badago, parte-hartzaileen dinamika sozialak desberdintzea alferrikakoa da; izan ere, kultura maioritario menderatzailearen baitarako asimilazioa bihurtzen da gizarte-aukera bideragarri bakarra.

Eztabaida

Markoak eta ereduak beren ekarpen heuristikoaren arabera neurtzen dira: irudikatu nahi dituzten egoera eta aldagai esanguratsu gehienak (edo guztiak) biltzen al dituzte? Kasu horretan, hemen eztabaidatutako dinamika sozialaren teoriak deskribatzen, azaltzen eta auresaten al ditu gutxiengo baten BEaren etorkizuneko aukerak sustatzeko gizarte-fenomenoak? Hala bada, beharbada helburu praktiko (normatibo) bat ere eskain dezakete talde etnolinguistiko baten gizarte-iraunkortasuna areagotzeko politika eta programa eraginkorrak iradokiz. Gure ekarpena akademikoa da: espero dugu gure HizDG markoak lagunduko duela aurreko beste marko batzuk hobetzen, bereziki hauek: Fishman, 1991, 2001; Landry *et al.*, 2022; Bourhis & Landry, 2008; eta Lewis & Simons, 2016. Gure markoa BEari buruzko bibliografiaren inguruan (eta beste marko batzuen inguruan) egiten dugun kritikan oinarritzen da, bai eta landa-laneko esperientzian eta GutxHen testuinguruetan egindako GutxHPPen analisisian ere (cf. Ó Giollagáin *et al.*, 2007a,b; Ó Giollagáin & Charlton, 2015; Ó Giollagáin *et al.*, 2020; Bourgeois, 2024a, 2024b). HizDG teoria estrukturalak ekarritako hobekuntza hauxe da: norbanakoak funtsezko garapen-etapa (GK) batzuetan barrena egiten duen bilakabidea azaltzen duela eta aldi berean paraleloki gertatzen diren garapen-prozesu sozial indartzaileak ere adierazten dituela (ikusi 1. irudia), eta horrek soziolinguistikoki esanguratsuak diren Printzipio Orokor (PO) batzuk agerrarazten ditu, besteak beste hizkuntza gutxituaren eta hizkuntza maioritarioaren hiztun eta taldeen artean egiten den baliabide-banaketa konparatiboa. HizDG markoa, beraz, norbanakoak gizartean duen interakzioan eta gizarteak norbanakoarengan duen eraginean zentratzen da.

Gure HizDG markoa frogetan oinarritua eta unibertsalizatzailea da (testuinguru moderno eta modernizatzaileentzat), eta metodo egituratu baliagarri bat eskaintzen du BEa hobetzeko politikak eraikitze eta gutxiengoaren egoerak gaur egun pairatzen dituzten eraginak ebaluatze. Implizituki, marko honek iradokitzen du GutxHPP eraginkor batek 1-4 GKen eta lau POen integrazio holistiko gisa funtzionatuko duela, norbanakoak eta talde etnolinguistikoak aintzat hartuko dituen osotasun bat helburutzat hartuz, eta 1. eta 2. GKen sortze-garrantzia azpimarratuz. 3. eta 4. GKak 1. eta 2. GKetako sozializazio-prozesu formatiboen gainean eraikitzen dira. Hori dela eta, 3. eta 4. GKak lehenestea, 1. eta 2. GKen kaltetan, ez da oso bide eraginkorra ahalik eta gizarte-eremutik onuragarrienak ekoizteko edo HPPetatik eremutik ahalik eta errentagarrienak lortzeko (cf. Grin, 2003, 2024).

BEa aztertzearen dinamika sozial berri honen beharra arrazoi honengatik sortu zen: gero eta agerikoagoa zelako «errealitate-arrakala» bat zegoela GutxHak sustatzeko xede formalen eta hiztun-komunitate errealean egiten ziren GutxHPP aniztasunaren eragin faltaren artean (cf. Ó Giollagáin *et al.*, 2020, 2007a, 2007b; Ó Giollagáin & Caimbeul, 2021; Lenoach *et al.*, 2012; Ó Giollagáin & Ó Curnáin, 2016; Brookes & Roberts, 2013; Ó Riagáin, 2008; Iurrebaso, 2023¹⁰; Bourgeois, 2024b). Era berean, xede hauekin proposatzen dugu BEari buruzko marko berri hau: a) hiztun minoritarioen errealitatearen diagnostiko sozialki doituagoak bultzatzea; eta b) testuinguru analitiko bat eskaintzea GutxHPPak birformulatzeko, gai izan daitezkeen GutxHek gaur egungo gizartean bizi duten arrisku-egoeraren ondoriozko arazoei aurre egiteko (cf. Bradley & Bradley, 2019, 1-5. or.). Hizkuntza-sustapen indibidualizatua (edo sarri atomizatua) egitea, GutxH-komunitatearen babesaren kostura, arriskutsua izan daiteke, alde batera utz dezakeelako gutxiengo linguistikoak entitate etnolinguistiko galkorrak direlako errealitate agerikoa. Baldin eta talde etnolinguistiko batek ez badauka edo ez badu sortzen aski trebetasun sozial (pertsona arteko), gizarteko, kultural, instituzional eta politiko, ezta horiekin lotuta dauden eta jokabide indibidual eta kolektiboak egituratzen eta orientatzen dituzten aski gaitasun kolektibo ere belaunaldiz belaunaldi gizarte-dentsitate gutxieneko batean irauteko eta indarberritzeko (cf. Ó Curnáin & Ó Giollagáin, 2024; Bastardas-Boada, 2013, 161. or.), ezinbestean murriztuko dira gutxiengo linguistikoek beren burua talde etnolinguistiko desberdin gisa iraunarazteko dituzten aukerak.

10. Ikusi, halaber, Hizkuntza Berdintasunerako Europako Sareak nola babestu zuen Euskalgintzaren Kontseiluak euskal hiztunen komunitatea «larrialdi linguistikoan» zegoela adieraziz egindako ebazpena: <https://elen.ngo/2024/11/12/elen-backs-kontseilua-resolution-that-basque-is-in-a-linguistic-emergency/>

Hizkuntzak sozialki galkorrak direnez, funtsezkoa da ulertzea zein dinamika sozialen bidez defendatzen edo mantentzen duten hiztunek BEa iraunkortasun kolektiborako garrantzitsuenak diren gizarte-esferetan. Norbanakoak hizkuntza gutxituko aukerez edo praktika sinbolikoez balia daitezen erakundeetako diru publikoa eta giza baliabideak xahutzea zentzuzkoa izan dadin estrategikoki eta finantzarioki, ezinbestekoa da aldi berean garatzea gutxiengo bernakular bat sufritzen ari den beherakada demolinguistikoa leuntzeko xedez antolaturiko politika- eta sostengu-marko bat. GutxHen gizarte-erronka hau ofizialki onartzea lehen urrats garrantzitsua litzateke GutxH-hiztunek beren komunitatearen desagertzearen inguruan dituzten kezka kolektiboak baretzeko (cf. Ó Giollagáin *et al.*, 2020, 5. kapitulua).

Orain arte garatu diren BE markoak mugatuak direla iruditzen zaigu, ez dietelako behar adinako garrantzia ematen honako alderdi hauei: a) GutxHen praktikak gobernatzen eta sostengatzen dituzten gizarte-prozesu ugarietan (1. GKko lehen sozializazioan, 2. GKko bigarren sozializazioan, 3. GKko indartze zibikoan eta 4. GKko gutxiengo kulturalarekiko atxikimendu eta afiliazio psikosozialen prozesuetan) garatzen diren elkarreraginezko eta etapa arteko dinamika sozialak; b) prozesu horietako parte-hartze emankorraren etapa arteko interdependentzia GutxHaren dinamika sozial orokorrean GK batetik bestera modu positiboan aurrera egiteko; eta c) konplexutasun orokorren analisi zientifiko holistikoak. Beharrezkoa da dinamika sozial hauek barne hartuko dituen eta bilakabide dinamikoa erraztuko duen eredu berri bat. Hizkuntza gutxituen planifikazio-zikloa (Gazzola *et al.*, 2024: 4-5 lanean eztabaidatzen dena), esaterako, gure eredu sistemikoko 3. GKko prozesu eta ekimenen barruan sartuko litzateke nagusiki. Hala ere, 4. GKko kezkei erantzuteko sortutako ereduetatik eratorritako hizkuntza-politika ez guztiz egokiek, askotan, axolagabekeria edo alferkeria eragin dezakete 3. GKko kezkei erantzuteko egindako eta hasieran positibotzat jotako GutxHPP-gomendioetan. 4. GKranzko bilakabidea eragozten duten 3. GKko oztopo horien ondorioz, 4. GKko hizkuntza-politiketako dinamika sozial kronikoek baliogabetu egin ditzakete 3. GKko asmo zibikoak eta ahalegin instituzionalak, bereziki gutxiengo linguistikoaren gizarte-hondoratzea agerikoa denean. (Ikusi Fishman (1991, 143. or.) HPParen «irlandizazio»-arazoaz: gure terminologia erabiliz, esan liteke 3. GKa lehenesteak, diskurtso post estrukturalisten eraginez, konpromiso instituzional sinbolikoa eskaintzen diela gutxiengo linguistikoei, baina ez diola behar besteko indarrez aurre egiten haien asimilazio (post) modernoari, hots, hizkuntza nagusiaren gizarte-normatibitateak gutxiengo horiek bereganatzeko duen joerari, zeina gure 1-4. GKetan deskribatzen baita). Labur esanda: 3. GKko kezka zibikoak 1-4. GKen osotasunaren kostura lehenestea ez da eraginkorra GutxHPP gisa.

HizDG markoak erreflexibitate (post)modernoko prozesuak deskribatzen ditu; izan ere, kontuan hartzen ditu GutxHen egungo kondizioak, zeinek ezegonkortasuna bultzatzen baitute eta aldi berean gutxiengo eta gehiengo linguistikoen hiztun eta taldeen arteko elkarreragin soziokultural, ekonomiko, politiko, demolinguistiko eta identitarioei erantzuteko tresna analitikoak eta esku-hartze praktikoak determinatzen baitituzte. Aitortu beharra dago, halere, GutxHPP formala eginezina edo gauzaezina dela talde etnolinguistiko gehienentzat, HizDG osasuntsuagoa duen «GehiHPP nagusi bakar baten mende daudelako» (Ó Curnáin & Ó Giollagáin, 2024, 405. or.). Arazo modernoak konpontzeko, tresna modernoak erabili behar dira. 1. iruditik 4.erako bilakabidea modernitateko konplexifikazio soziolinguistikoko prozesuen isla da, non bereziki 3. eta 4. GKen intentsitatea handitzen baita eta, ondorioz, baita haien gizarte-garrantzia ere. Marko orokorrak, bestalde, tresna analitiko bat ere eskaintzen du arazo hauen inguruko eztabaida eta ikusmolde akademiko, politiko eta zibikoak argitzeko, bereziki GutxHen ezegonkortasunari buruzkoak.

HPPek estrategikoki aztertu eta aintzat hartu beharko lukete gizarteko dinamika minoritarioen hedadura guztia, arreta guztia 3. GKan jartzeko joera pragmatikoaz harago. HPP postestrukturalista, ordea, uzkur agertu izan da halako eginbideen aurrean. Errezelo horiek azaltzen dute zergatik hautematen duten H1-gutxiengo linguistikoek halako alferkeria eta autoritate falta GutxHaren sustapen formalean. HPP postestrukturalista hori are arazotsuagoa gertatzen da testuinguru neoliberaletan (cf. Ó Giollagáin *et al.*, 2020; Ó Giollagáin & Ó Curnáin, 2024; MacLean, 2022; eta Ó Giollagáin & Caimbeul, 2021, 190-191. or. GutxHen «klase erreferenteen» inguruan). HPP Sinbolikoa ez da epe luzera onuragarria gertatzen talde etnolinguistiko mehatxatuentzat, ez baitu behar besteko arreta jartzen gutxiengoen gizarte-iraunkortasunerako estrategikoak diren lau baldintza nagusietan:

- Desabantailan dagoen gutxiengo linguistikoaren gizarte-baldintzak betetzeko beharrezkoa(k) d(ir)en egitura soziopolitiko kolektiboa(k).
- Gutxiengoko kideen artean agentibitate sozial indibidual eta kolektiboa hedatzeko antolaketa-mekanismoak.
- GutxH-hiztunen gaitasun sozioekonomikoa sostengatzeko ekimen koope-ratiboak diseinatzeko eta ezartzeko gaitasun eta baliabide estrategikoak.
- Talde-lidergo zuhur bat gai izango dena gutxiengoko kideen artean leialtasuna sustatzeko GutxH-kolektibo etnolinguistikoa iraunarazteko.

Gehiengo linguistikoek beren abantailarako naturalizatzen eta optimizatzen dituztenez gaitasun politiko, sozioekonomiko eta gizarteko hauek HizDG optimoetan, lau baldintza horiek betetzeko indar edo gaitasun ahula duten gutxiengo linguistikoak ez dira bizirik irtengo (post)modernitateko eraldaketetatik.

Ondorioa

HizDG markoak ikusmolde sozial dinamiko analitiko bat proposatzen du BEa bermatzen duten GKak aztertzeke. Gure markoak gutxiengo linguistiko baten bideragarritasuna edo zaurgarritasuna determinatzen duten funtsezko prozesu sozial eta formal osagarrien multzo gisa irudikatzen du talde linguistiko baten iraunkortasuna: dinamika sozial/formal positiboek mesede egiten diote taldearen bideragarritasunari, eta prozesu dinamiko negatibo edo murriztaileek, berriz, gutxiengo linguistikoaren gizarte-gainbehera eta desagertzea eragiten dituzte. BEa, HizDG markoaren arabera, gutxiengo linguistiko batek lehen eta bigarren sozializazio-prozesu sozial funtsezkoak (gutxiengoaren hizkuntza eta kapital kulturalaren transferentzia sozializatua bermatzen dutenak) sortzeko eta bultzatzeko duen gaitasunaren gizarte-ezaugarri emergente bat da. HizDG markoaren araberrako BEak GutxHen eta haien kulturen Sendotze Zibikoa ere aztertzen du, bai eta identitate kolektibo koherente baten parte izatearen sentsazio esanguratsua sortzen duten afiliazio-prozesuak ere. BEa, beraz, talde batek bere gizarte-jarraitutasunaren oinarri diren eta elkarri lotuta dauden prozesu sozial, instituzional, zibiko eta afiliatibo funtsezkoak sortzeko eta sostengatzeko duen antolaketa-erraztasunaren gizarte-emaizta gisa gauzatzen da. Norbanakoarengana bideratutako eta sektore jakinei lotutako esku-hartzeek ez dute lortuko GutxH baten BEa bermatzea, eta gauza bera gertatuko da iraunkortasuna mantentzera bideratutako xede holistiko, komunal eta epe luzekoak (hainbat belaunalditakoak) ezartzen ez dituzten beste HPP batzuekin.

Gure HizDG BE markoak iradokitzen du gaur egungo HPPEk GutxHak babesteko hartzen dituzten neurrien alderdi asko sakonki berrikusi behar direla GutxHIBASUa¹¹ GutxHen gizarte-iraunkortasun egingarri baten hasierako diseinu honetan azaldutako garapen-dinamika sozial eta formaletara egokitzeke.

HizDG markoa aplikatzeak esan nahi du:

- a) Egungo GutxHPPetako arretagune-mailak aztertzea HizDG markoari begira.
- b) GKetako dinamika sozialetara eta BE-emaizta optimoagoetara hobeto egokitzen diren GutxHPPak diseinatzea.

11. Gutxiengo Hizkuntzen Babes eta Sustapena.

- c) Ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboak egitea galdeketa demolinguistiko eta soziolinguistiko bidez, aztertzeko zenbaterainokoa den HizDG markoko lau GKetako dinamika sozialekiko eta haien BE-emaitzekiko gaur egungo benetako konpromisoa (eta ez soilik edo nagusiki sinbolikoa)
- d) BEaren inguruko ikerketetan oinarritzen diren eta dagoeneko martxan dauden GutxHPPak doitzea eta egokitzea.

Zalantzarik gabe, orain arte egindako ikerketek (adibidez Ó Giollagáin *et al.*, 2020; cf. Mac Giolla Chríost, 2022) erakutsia dute jada beharrezkoa dela GutxHPPek arreta handiagoa eta esanguratsuagoa jartzea ideologikoki koherenteak diren irtenbide holistiko eta mailakatueta. HizDG markoak gizartean oinarritutako alternatiba emankor bat eskaintzen du HPP sinbolikoaren geldotasun soziopolitikoari aurre egiteko. GutxHetako adin-talde eta norbanakoen lehen eta bigarren sozializazioa GutxHen sustapen eta babes formalera integratzeko egiten diren ahaleginek berebiziko garrantzia dute gutxiengo linguistikoaren gizarte-etorkizunarentzako berme sinesgarriak izateko. HPP sinbolikoak ez dienez modu egokian aurre egiten gutxiengoaren iraunkortasun etnolinguistikoak pairatzen dituen gizarte-mehatxuei, argi dago GutxH-hiztunek eta haien komunitateek eredu emankorrago bat behar dutela erronkei aurre egiteko eta gizarte pluralen barruan beren iraunkortasuna bermatzeko modu egingarriak diseinatzeko.

Erreferentziak

- Bastardas-Boada, A. (2013). General Linguistics and Communication Sciences: Socio-complexity as an Integrative Perspective. In À. Massip-Bonet & A. Bastardas-Boada (argtz.), *Complexity Perspectives on Language, Communication and Society* (151-173. or.). Springer.
- Benmamoun, E., Montrul, S., & Polinsky, M. (2013). Heritage Languages and their Speakers: Opportunities and challenges for linguistics. *Theoretical Linguistics*, 39(3-4), 129-181.
- Bernstein, B. (1971). *Class, Codes and Control: Theoretical studies towards a sociology of language*. Routledge and Kegan Paul.
- Blommaert, J. (2010). *The Sociolinguistics of Globalization*. Cambridge University Press.
- Bourdieu, P. (2017 [1977]). *Outline of a Theory of Practice*. Cambridge University Press.
- Bourgeois, D. (2024a). *Bilan de la Pleine Gestion Scolaire en Acadie de l'Île-du-Prince-Édouard*. Institut Canadien de Recherche sur les Minorités Linguistiques.

- Bourgeois, D. (2024b). *Priorisation et Autonomisation en Éducation*. Mémoire présenté au Comité de la Chambre des Communes sur les langues officielles. Institut Beaubassin.
- Bourhis, R.Y., & Landry, R. (2008). Group Vitality, Cultural Autonomy and the Wellness of Language Minorities. In R.Y. Bourhis (argtz.), *The Vitality of the English-speaking Communities of Quebec: From community decline to revival* (185-12. or.). CEETUM, Université de Montréal.
- Bradley, D., & Bradley, M. (2019). *Language Endangerment*. Cambridge University Press.
- Brooks, S., & Roberts, R.G. (argtz.) (2013). *Pa Beth Yr Aethoch Allan i'w Achub? Gwasg Carreg Gwalch*.
- Calvet, L.-J. (2006). *Towards an Ecology of World Languages*. Polity.
- Camshron, G. (2021). Resisting Dismissal in the Gàidhealtachd. *Scottish Affairs*, 30(2), 240-250.
- Clark, E. (2009). *First Language Acquisition*. Cambridge University Press.
- Council of Europe (Comex-UK) (2024). Sixth periodical report presented to the Secretary General of the Council of Europe in accordance with Article 15 of the Charter on European Regional and Minority Languages (2024-06-19an onartua). https://rm.coe.int/ukpr6-en/1680ac30bb_eta <https://rm.coe.int/united-kingdomecml6-en/1680b1a73f> (2025-10-07an kontsultatua).
- Crystal, D. (2000). *Language Death*. Cambridge University Press.
- Di Carlo, P., & Good, J. (2020). *African Multilingualisms: Rural Linguistic and Cultural Diversity*. Lexington Books.
- Fishman, J.A. (1964). Language maintenance and language shift as a field of inquiry: A definition of the field and suggestions for its further development. *Linguistics* 1964, 2(9), 32-70. DOI 10.1515/ling.1964.2.9.32
- Fishman, J.A. (1989). *Language and Ethnicity in Minority Sociolinguistic Perspective*. Multilingual Matters.
- Fishman, J.A. (1991). *Reversing Language Shift*. Multilingual Matters.
- Fishman, J.A. (2001). Reversing language shift. In R. Mesthrie (argtz.), *Concise Encyclopedia of Sociolinguistics* (673-679. or.). Pergamon.
- García, O., & Wei. L. (2014). *Translanguaging: Language, Bilingualism and Education*. Palgrave.
- Gazzola, M., Grin, F., Cardinal, L., & Heugh, K. (2024). Language policy and planning: From theory to practice. In M. Gazzola et al. (argtz.), *The Routledge Handbook of Language Policy and Planning* (1-31. or.). Routledge.
- Gorter, D. (argtz.) (2006). *Linguistic landscape: A new approach to multilingualism*. Multilingual Matters.

- Government of Ireland (2010). *The 20-Year Strategy for the Irish Language*. <https://www.gov.ie/en/department-of-rural-and-community-development-and-the-gaeltacht/policy-information/20-year-strategy-for-the-irish-language/> (2025-10-07an kontsultatua).
- Government of Ireland (2012). *Gaeltacht Act 2012*. <https://www.gov.ie/en/publication/cc6a9-gaeltacht-act-2012/> (2025-10-07an kontsultatua).
- Government of Scotland (2025). *The Scottish Languages Act 2025*. <https://www.legislation.gov.uk/asp/2025/10> (2025-10-07an kontsultatua).
- Grin, F. (2003). Economics and language planning. *Current Issues in Language Planning*, 4(1), 1-66.
- Grin, F. (2018). On some fashionable terms in multilingualism research: critical assessment and implications for language policy. In P. Kraus eta F. Grin (argtz.), *The Politics of Multilingualism: Europeanisation, globalisation and linguistic governance* (247-274. or.). John Benjamins.
- Grin, F. (2024). Language policy design and programme theory. In M. Gazzola, et al. (argtz.), *The Routledge Handbook of Language Policy and Planning* (229-243. or.). Routledge.
- Harrison, K.D. (2007). *When Languages Die: The Extinction of the World's Languages and the Erosion of Human Knowledge*. Oxford University Press.
- Heller, M. (1999). *Linguistic minorities and modernity: A sociolinguistic ethnography*. Longman.
- Heller, M. (2011). *Language in late capitalism: Pride and profit*. Routledge.
- Hulstijn, J.H. (2017). *Language Proficiency in Native and Non-native Speakers: Theory and research*. John Benjamins.
- Iurrebaso Biteri, I. (2023). *Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolingüistikazko tresna metodologikoak garatzen. Euskal Herrirako aplikazio praktikoa* [Doktorre-tesia]. Euskal Herriko Unibertsitatea, EHU. <https://addi.ehu.es/handle/10810/60061> (2025-10-06an kontsultatua).
- Landry, R., Allard, R., Deveau, K., & St-Onge, S. (2022). Minority language learning and use: Can self-determination counter social determinism? *Journal of Language and Social Psychology*, 41(3), 240-269.
- Lenoach, C., Ó Giollagáin, C., & Ó Curnáin, B. (argtz.) (2012). *An Chonair Chaoch: An mionteangachas sa dátheangachas* [The Blind Alley: The minority language condition in bilingualism]. Leabhar Breac.
- Lewis, M.P., & Simons, G.F. (2016). *Sustaining Language Use: Perspectives on Community-Based Language Development*. SIL International Publications.
- Mac Giolla Chríost, D. (2022). Review: Conchúr Ó Giollagáin et al., *The Gaelic Crisis in the Vernacular Community. A Comprehensive Sociolinguistic Survey of Scottish Gaelic*. *Journal of Celtic Linguistics*, 23, 205-212.

- MacLean, M. (2022). Policy Failure in the Gaelic Heartland: One Size Does Not Fit All. Address to Soillse conference 29-31/8/2022, Rooting Minority Language Policy in the Speaker Community, Stornoway. <http://www.soillse.ac.uk/en/conference-statement/>
- McLeod, W., Dunbar, R., Macleod, M., O'Rourke, B., Dunmore, S., & Armstrong, T. (2022). Against exclusionary Gaelic language policy: a response to Ó Giollagáin and Caimbeul. *Scottish Affairs*, 31(1), 84-103.
- Montrul, S. (2008). *Incomplete Acquisition in Bilingualism: Re-examining the age factor*. John Benjamins.
- Nance, C. (2021). Review of Ó Giollagáin et al. 2020. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 43(7), 694-697.
- Oakes, L. (2024). The historical development of language policy and planning. In M. Gazzola, et al. (argtz.), *The Routledge Handbook of Language Policy and Planning* (35-48. or.). Routledge.
- Ó Curnáin, B., & Ó Giollagáin, C. (2021). Reply to Claire Nance's review. The Gaelic Crisis in the Vernacular Community: A comprehensive sociolinguistic survey of Scottish Gaelic by Conchúr Ó Giollagáin et al. Aberdeen University Press, 2020. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*. <https://doi.org/10.1080/01434632.2021.1927513> (2025-10-06an kontsultatua).
- Ó Curnáin, B., & Ó Giollagáin, C. (2024). Minority language protection and promotion. In M. Gazzola et al. (argtz.), *The Routledge Handbook of Language Policy and Planning* (396-415. or.). Routledge.
- Ó Giollagáin, C. (in press). Heroic Evasions: Irish-Language Studies in the 21st Century. *New Hibernia Review*.
- Ó Giollagáin, C. (2025). L'ensorrament social del món gaèlic: Una lliçó per a les minories lingüístiques. *Revista de Catalunya*, 331, 91-101.
- Ó Giollagáin, C., Mac Donnacha, S., Ní Chualáin, F., Ní Sheaghdha, A., & O'Brien, M. (2007a). *Comprehensive Linguistic Study of the Use of Irish in the Gaeltacht: Principal findings and recommendations*. The Stationery Office.
- Ó Giollagáin, C., Mac Donnacha, S., Ní Chualáin, F., Ní Sheaghdha, A., & O'Brien, M. (2007b). *Staidéar Cuimsitheach Teangeolaíoch ar Úsáid na Gaeilge sa Ghaeltacht: Tuarascáil chríochnaitheach* [Comprehensive Linguistic Study of the Use of Irish in the Gaeltacht: Final report]. The Stationery Office.
- Ó Giollagáin, C., & Charlton, M. (2015). *Nuashonrú ar an Staidéar Cuimsitheach Teangeolaíoch ar Úsáid na Gaeilge sa Ghaeltacht* [Update of the comprehensive linguistic study of the use of Irish in the Gaeltacht: 2006-2011]. Údaras na Gaeltacha, na Forbacha, Co.
- Ó Giollagáin, C., & Ó Curnáin, B., 2016. *Beartas Úr na nGael: Dálaí na Gaeilge san Iar-Nua-Aoiseachas* [A New Deal for Irish: The Condition of Irish in Postmodernity]. Leabhar Breac, Indreabhán, Co.

- Ó Giollagáin, C., Camshron, G., Moireach, P., Ó Curnáin, B., Caimbeul, I., MacDonald, B., & Péterváry, T. (2020). *The Gaelic Crisis in the Vernacular Community: A comprehensive sociolinguistic survey of Scottish Gaelic*. Aberdeen University Press.
- Ó Giollagáin, C., & Caimbeul, I. (2021). Moving beyond Asocial Minority-Language Policy. *Scottish Affairs*, 30(2), 178-211.
- Ó Giollagáin, C., Caimbeul, I., Ó Curnáin, B., Camshron, G., & Moireach, P. (2022a). Including the threatened first-language vernacular community in Gaelic promotion and protection: A rebuttal to McLeod *et al.* *Scottish Affairs*, 31(1), 122-132.
- Ó Giollagáin, C., Caimbeul, I., Ó Curnáin, B., Camshron, G., & Moireach, P. (2022b). Reality of the Gaelic crisis needs addressed: A response to McLeod and others, from Conchúr Ó Giollagáin, Iain Caimbeul, Brian Ó Curnáin, Gòrdan Camshron, Pàdruig Moireach. *West Highland Free Press*, 2022ko urtarrilak 20.
- Ó Giollagáin, C., & Ó Curnáin, B. (2024). A Tolerable Decline for le Chic Gaelique. *The Village*, June/July 2024, 83, 56-58. <https://villagemagazine.ie/a-tolerable-decline-forle-chic-gaelique/> (2025-10-06an kontsultatua).
- Ó Giollagáin, C., Bourgeois, D., Ó Curnáin, B., Caimbeul, I., & Cameron, G. (2025). Language Dynamics in Society (LandS): The LandS Analytical Framework for Majority and Minority-Language Ethnolinguistic Vitality. *Treatises and Documents, Journal of Ethnic Studies*, 94(1) (2025eko ekaina), 25-75. DOI: <https://doi.org/10.2478/tdjes-2025-0002>
- Ó Riagáin, P. (1997). *Language Policy and Social Reproduction: Ireland 1893-1993*. Clarendon Press.
- Ó Riagáin, P. (2008). Irish-language policy 1922-2007: Balancing Maintenance and Revival. In C. Nic Pháidín & S. Ó Cearnaigh (argtz.), *A New View of the Irish Language* (55-65. or.). Cois Life.
- Péterváry, T., Ó Curnáin, B., Ó Giollagáin, C., & Sheahan, J. (2014). *Iniúchadh ar an gCumas Dátheangach: An sealbhú teanga i measc ghlúin óg na Gaeltachta. Analysis of Bilingual Competence: Language acquisition among young people in the Gaeltacht*. An Chomhairle um Oideachas Gaeltachta agus Gaelscolaíochta.
- Smith-Christmas, C., Ó Murchadha, N., Hornsby, M., & Moriarty, M. (argtz.) (2018). *New Speakers of Minority Languages: Linguistic Ideologies and Practices*. Palgrave.
- Spolsky, B. (2009). *Language management*. Cambridge University Press.
- Williams, C. (2023). *Language Policy and the New Speaker Challenge: Hiding in plain sight*. Cambridge University Press.

4. Frantsesa Kanadan: hiztun-dentsitatea eta hizkuntzaren erabilera, transmisioa eta ezagutza

Étienne Lemyre (Statistique Canada¹)

Laburpena: Frantsesa hizkuntza ofiziala da Kanadan ingelesarekin batera. Alabaina, ama-hizkuntza frantsesa duten herritarrek (bakarrik nahiz beste hizkuntza batekin) estatu osoko populazioaren gutxiengo bat osatzen dute (% 20,9) probintzia eta lurralde guztietan, Quebecen izan ezik (% 77,8). Maila lokalean, ama-hizkuntza frantsesa duten quebecar gehienak frantsesa nagusi den auzoetan bizi dira, non frantsesdunek² populazioaren erdia baino gehiago osatzen duten (% 93,4); estatuko gainerako eremuetan, berriz, frantsesdunak populazioaren laurden bat dira soilik (% 25,4). Frantsesdunen proportzioa handiagoa den auzoetan, probabilitate handiagoa dago frantsesdunek frantsesa erabil dezaten etxeko hizkuntza nagusi moduan, probabilitate txikiagoa heldu frantsesdunek bikote linguistikoki mistoak osa ditzaten, eta gurasoek kopuru handiagotan transmititzen diete frantsesa hurrei bai familia elebakarretan, bai hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten dituzten familietan. Ama-hizkuntza frantsesa ez duten pertsonen artean, frantsesdun-proportzio handiko auzoetan bizi direnek aukera gehiago dituzte etxeko hizkuntza nagusitzat frantsesa hartzeko edo frantsesa bigarren hizkuntza moduan ikasteko. Horrelako loturak Quebecen eta Quebecetik kanpo ikusi badira ere, frantsesak Quebecen duen gehiengo-estatusa eta Kanadako beste tokietan duen gutxiengo-estatusa argi islatzen dira emaitzetan, auzo-mailan frantses hiztunen tokiko kontzentrazioa edozein delarik ere.

Gako-hitzak: frantsesa, Kanada, Quebec, hiztun-dentsitatea, ama-hizkuntza, etxeko hizkuntza, hizkuntza-transmisioa, hizkuntza-ezagutza.

1. Testu honetan plazaratzen diren iritziak autorearenak dira, eta ez datoz nahitaez bat Statistique Canada erakundearenekin

2. Itzulpenean, laburtasunaren eta erosotasunaren mesedetan, «frantsesdun» terminoa erabili da ama-hizkuntza frantsesa duten eta oraindik erabiltzen duten hiztunak izendatzeko, alegia, ingelesezko «people whose mother tongue is French», «French-mother-tongue people» eta «native French speakers» itzultzeko [itzultzailearen oharra].

Sarrera

Kanadan ehunka hizkuntza hitz egiten dira, tartean hirurogeita hamar baino gehiago jatorriz herrialde horretakoak. Hala ere, frantsesa eta ingelesa dira Kanadan gehien ezagutzen eta erabiltzen diren hizkuntzak, eta bi hizkuntzek dute estatus ofiziala maila federalean 1969az geroztik. Kanadako bi hizkuntza ofizialak herrialde osoko komunitateetan hitz egiten diren arren, frantses-hiztunak Quebecoko probintzian baino ez dira gehiengo; gainerako probintzia eta lurraldeetan, frantsesa gutxiengo-egoeran dago, baita Kanada osoari dagokionez ere.

Quebecetik kanpoko Kanadan, hainbat ikerketak erakutsi dute badagoela erlazio bat frantses-hiztunek maila lokalean duten proportzio erlatiboaren eta hizkuntzaren erabileraren artean (Marmen, 2005; Castonguay, 2005; Corbeil *et al.*, 2007), baina, erlazio horrek Quebecen berdin funtzionatzen ote duen ikusteko, ikerketa gehiago behar da. Pisu demografikoa maila lokalean berdina izanik, antzekoak al dira frantsesaren erabileraren, transmisioaren eta ezagutzaren adierazle demolinguistikoak?

Kapitulu honek Kanadako erroldako zenbait hizkuntza-kontzeptu aztertzen ditu laburki, eta aurkezten du nolako garapena izan duten 1991tik 2021era ama-hizkuntza frantsesa duten edo frantsesez badakiten quebecarren eta beste kanadar batzuen kopuruak eta proportzioak. Ondoren, honako alor hauetako adierazleak erakusten ditu: ama-hizkuntza frantsesa dutenen kontzentrazioa maila lokalean; frantsesa etxeko hizkuntza gisa mantentzeko edo hartzeko joera; bikote linguistikoki mistoen intzidentzia; guraso eta haurren arteko frantsesaren transmisioa eta frantsesaren ezagutza bigarren hizkuntza moduan. Ondorioetan, Quebecen eta Quebecetik kanpoko lurralde kanadarraren arteko antzekotasunak eta desberdintasunak eztabaidatzen dira.

Kanadako erroldako hizkuntza-kontzeptuak

Herriarren Errolda bost urtetik behin egiten da Kanadan, etxe bakoitzera galdetegi bat bidalita. Munduko errolden artean, hizkuntzei buruzko galdera gehien dutenen artean dago Kanadakoa (Christopher, 2010). Horri esker, posible da hainbat eta hainbat kontzeptu denbora-tarte luze batean aztertzea.

*Ama-hizkuntzat*zat jotzen da etxean haurtzaroan ikasitako lehen hizkuntza, baldin eta errolda egiten den unean oraindik ulertzen bada. Pertsona batek ez badu jada ulertzen umetan ikasitako lehen hizkuntza, ikasitako bigarren hizkuntza

adierazi behar du³. Ama-hizkuntza gisa bi hizkuntza markatu behar dira baldin eta hiztunak hizkuntza horiek aldi berean ikasi bazituen etxean eskolan hasi aurretik.

Erroldan, kanadarrek beren *etxeko hizkuntza* zein den ere adierazi behar dute. Etxean egunerokoan hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen dituztenek, gainera, gehien hitz egiten dutena zein den adierazi behar dute. Informazio horri esker, ondorioztatzen da zein den kanadarren etxeko hizkuntza nagusia (etxean gehien hitz egiten den hizkuntza) eta zein diren etxeko bigarren hizkuntzak (egunerokoan baina ez nagusiki hitz egiten direnak). Etxean bi hizkuntza hitz egiten direla adierazi behar da baldin eta biak maiztasun berarekin hitz egiten badira.

Erroldak *hizkuntzen ezagutzari* buruzko informazioa ere biltzen du. Hiztun batek hizkuntza baten ezagutza duela adierazi behar du baldin eta gai bada hizkuntza horretan luzera jakin bateko elkarrizketa bat izateko hainbat gairen inguruan.

Goian deskribatutako kontzeptuez gain, beste informazio hau ere biltzen du Kanadako erroldak: lehen eta bigarren hezkuntza hizkuntza ofizial minoritarioan (ingelesez Quebecen, frantsesez Quebecetik kanpoko Kanadan) eta hizkuntzen erabilera lanean⁴.

Frantsesa Kanadan: azkenaldiko joerak

Frantsesez dakiten kanadarren kopuruak hazten jarraitzen du errolda batetik bestera; 1991n 8,5 milioi izatetik 10,7 milioi izatera igaro ziren 2021ean (Statistics Canada, 2023a). Hala ere, frantsesez ez zekiten herritarren kopuruak bizkorrago egin zuenez gora, Kanadako frantses-hiztunen proportzio erlatiboak jaitsiera txiki bat izan zuen: 1991n % 31,5 eta 2021ean % 29,1.

Quebecen, herritar gehienak gai ziren frantsesez elkarrizketa bat izateko 2021ean (% 93,7); proportzioa ozta-ozta aldatu zen 1991ko datuekin alderatuta (% 93,6). Soilik frantsesez⁵, eta ez ingelesez, dakiten quebecarren proportzioa jaisten ari da (1991n % 58,1 ziren eta 2021ean % 47,3), eta frantsesa eta ingelesa,

3. Kanadarrek erroldan ama-hizkuntzatzat markatzen duten hizkuntza errolda betetzeko unean oraindik ulertu behar dutenez, erroldatik kanpo gera daiteke hiztun batek haurtzaroan ikasitako baina ondoren «ahaztutako» lehen hizkuntza. Fenomeno hau nahiko arraroa da, eta haurtzaroan ikasitako lehen hizkuntza oso gutxitan erabiltzen dutenen artean gertatzen da. Maizago gertatzen da gutxiengo frantsesdunetan eta bigarren belaunaldiko immigranteen artean (ikus Lepage, 2011).

4. Lanean erabiltzen diren hizkuntzen inguruko informazioa biltzeko, errolda-galdetegi xehe bat bidaltzen da etxean % 25etara.

5. Gai izan litezke elkarrizketa bat izateko frantsesa edo ingelesa ez den beste hizkuntza batean ere.

biak hitz egiteko gai direnen proportzioa, berriz, gorantz doa (1991n % 35,4 eta 2021ean % 46,4). Horren arrazoia, hein handi batean, zera da, ama-hizkuntza frantsesa duten hiztunek ingelesa ikasten dutela (Lemyre, 2023). Quebecetik kanpo, 2021ean, kanadarren % 88,0 gai ziren ingelesez elkarriketa bat izateko, baina ez frantsesez hitz egiteko. Aitzitik, % 9,9k zekizkiten bi hizkuntzak, frantsesa eta ingelesa, 1991n baino pixka bat gutxiagok (% 10,6). Quebecetik kanpo, oso kanadar gutxi ziren soilik frantsesez zekitenak eta ingelesez hitz egiteko gai ez zirenak (1991n % 0,7 eta 2021ean % 0,4).

Ama-hizkuntza frantsesa zuten kanadarren kopuruak⁶ ere gora egin zuen: 6,6 milioi ziren 1991n eta 7,7 milioi 2021ean (Statistics Canada, 2023b). Baina proportzio erlatiboa, ordea, modu nabarmenagoan jaitsi zen: 1991n % 24,5 ziren eta 2021ean % 20,9. Ama-hizkuntza frantsesa zutenen proportzio erlatiboak antzera egin zuen behera Quebecen (1991n % 82,5 eta 2021ean % 77,8) eta Quebecetik kanpoko Kanadan (1991n % 5,0 eta 2021ean % 3,9). Hainbat faktore hartu behar dira kontuan beherakada horiek azaltzeko, besteak beste ama-hizkuntza frantsesa dutenen zahartzea nabarmenagoa dela populazio orokorrarekin alderatuta, nazioarteko migrazioan frantsesdunak gutxiago izan direla historikoki, eta Quebecetik kanpo gurasoek ez dietela haurrei frantsesa osoki transmititu (Houle & Corbeil, 2017).

Ama-hizkuntza frantsesa dutenen banaketa maila lokalean

Ama-hizkuntza frantsesa dutenen banaketa ez da uniformea ez Quebecen, ez Quebecetik kanpoko Kanadan. Bai Quebeceko, bai Quebecetik kanpoko Kanadak, frantses-hiztunen kontzentrazio txikiagoko edo handiagoko eskualdeak⁷ dituzte.

Quebeceko eskualde askotan, frantsesduna da populazioaren % 90 gutxienez. Proportzio hori apalxeagoa da Montreal inguruko eremuetan (Montreal da Quebeceko hiririk handiena), mugatik gertuko eskualdeetan⁸ eta Quebec iparraldean. Esaterako, Montrealgo Uhartean, zeinak metropoli-barrutiaren gune nagusia barne hartzen duen, herritarren erdiak baino gutxiago dira frantsesdunak (% 49,3), nahiz eta desberdintasun nabarmenak dauden auzotik auzora⁹.

6. Kopuru horren barruan daude ama-hizkuntza bakartzat frantsesa dutenak eta frantsesaz gain beste ama-hizkuntza bat ere badutenak. Ama-hizkuntza bat baino gehiago dituztenei buruz Kanadako erroldan jasotzen den informazioa eta haren interpretazioa eskuratzeko, ikus Lepage, 2020.


7. Errolda-banaketak dira; alegia, elkarren ondoan dauden udalerrien multzoak, jurisdikzio batzuetan «county» deritzen antzekoak.

8. Adibidez, Pontiac udalerrian (% 41,1), Ontariorekiko mugaren ondoan.

9. Ama-hizkuntza frantsesa zutenen proportzioa, Montrealgo Uhartean, % 6,2 eta % 95,9 artekoa zen 100 biztanletik gorako auzoetan.

1. mapa

Frantsesa ama-hiltuntza dutenen proportzio erlatiboa, Kanadako eskualdeak, 2021




Quebecetik kanpo, ama-hiltuntza frantsesa dutenak populazioaren % 10 baino gutxiago dira. Hori gertatzen da Kanadako hiri handienetan, esaterako Toronton, Vancouverren eta Calgaryn. Kanadako hiriburua, Ottawa, desberdina da zentzu horretan, biztanleen % 15,7k baitute frantsesa ama-hiltuntza¹⁰. Frantsesdunen proportzio handiagoa duten beste eskualde batzuen artean daude, adibidez, Greater Sudbury hiria Ontario iparraldean (% 26,0) eta Penintsula Akadiarra New Brunswick probintzian (% 84,5)¹¹.

Ama-hiltuntza frantsesa dutenen banaketak eskualde-mailan erakusten dituen desberdintasunak auzo¹²-mailan ere islatzen dira. Quebecen, ama-hiltuntza frantsesa duten % 93,4 auzo frantsesdunetan bizi dira, hau da, frantsesdunek populazioaren erdia baino gehiago osatzen duten auzoetan. 5etik 3 inguru, gainera, frantsesdunak % 90etik gora diren auzoetan bizi dira. Quebecar frantsesdunen % 0,1 baino gutxiago bizi dira frantsesdunek tokiko populazioaren % 10 baino gutxiago osatzen duten auzoetan.

garaian egin zena, gales-hiztunen ehuneko handiena duten lau konderrietako biztanleria landunaren % 12 eta % 14 artean etxetik 2 km baino gutxiagora egiten zuten lan. Etxetik 2 km eta 60 km artean lan egiten zutenen ehunekoa % 35 zen Ceredigionen, % 42 Gwynedden, % 46 Ynys Môn eta % 47 Sir Gaerfyrddinen (Carmarthenshire). Nagusiki etxetik lan egiten zutenei dagokienez —eta kontuan hartuta datuak aldatu ahal izan direla COVID murrizketak kendu ondoren—, ehunekoak % 23 ingurukoak ziren Ynys Môn, Gwynedden eta Sir Gaerfyrddinen, eta % 32koak Ceredigionen.

Lanera, ikastera eta beste zerbitzu batzuk jasotzera edo aisia-jarduerak egitera joateko bidaiek ere islatzen dituzte dentsitate altuko, ertaineko eta baxuko eremuen arteko continuum eta kodependentzia. Adibide bat ospitale orokor bat litzateke, gales-hiztunen ehunekoa inguruko eremuetan baino baxuagoa duen auzo batean kokatua. Osasun-zerbitzuak eskaintzen dituen zentro gisa, eskualde eta biztanleria zabal bat artatzen du, non dentsitate altuko, ertaineko eta baxuko auzoak dauden. Eskualde zabal horretan bizi den biztanleriarentzako lantoki bat ere bada. Galesez mintzatzen diren langileetako batzuk dentsitate altuko auzoetan biziko dira. Beste langile batzuk, haiek ere gales-hiztunak, dentsitate ertaineko edo baxuko eremuetan biziko dira. Ospitalea haien guztien lantoki komuna da, non pazienteak eta haien familiak galesez ere artatzen dituzten. Ospitalerik ez balego, ez legoke lantokirik dentsitate altuko auzoetan bizi diren hiztunentzat edo dentsitate ertaineko edo baxuko eremuetan bizi direnentzat. Horrek eremu desberdinen arteko continuum geolinguistikoaren kodependentzia eta garrantzia irudikatzen ditu.

2. mapa. Dentsitate linguistiko altuko (% 40) eta ertaineko (% 20) eremuak, Lower Layer Super Output Areas (LSOA) unitateen arabera, 2021eko errolda.



GAKOA: Kolore ilunez ageri diren eremuak gales-hiztunak % 40 edo gehiago diren auzoak irudikatzen dituzte. Gris argiagoz ageri direnek, berriz, gales-hiztunak % 20 eta % 40 artean diren auzoak adierazten dituzte.

Marra zuzen bertikal eta horizontalek Galeseko biztanleriaren banaketa bertikal eta horizontal mediana adierazten dute; biztanleriaren % 50 marra bakoitzaren alde banatan bizi da.

Dentsitate linguistiko altuko eremuak herrialdeko eremu gutxien populatuetan kokatuta daude.

Iturria: Prosiect BRO, 2021eko Erresuma Batuko erroldako LSOA datuetan oinarrituta.

Continuuma eta «dentsitate ertaineko eremuak»

Azpiarratu behar da Batzordearen lehen txostenean ez zela gomendiorik egin «dentsitate ertaineko» izendapen ofizialik emateko. Hala ere, Batzordeak % 25eko atalase bat proposatu zuen dentsitate ertaineko eremuak deskribapen-eta analisi-xedeetarako adierazteko. Prosiect BROren analisi gehiago egin ondoren, Batzordearen eztabaidak % 20ko portzentajea dentsitate ertaineko eremuak analisi gehiagorako identifikatzeko neurri koherenteena dela jotzera egin du. 2. mapan ikus daitekeenez, % 20ko mugan tarte argia dago hiztunen ehunekoa batezbesteko nazionalaren gainetik duten agintaritza lokalen eta hiztunen ehunekoa horren azpitik dutenen artean. Dentsitate ertainaren maila % 20an kokatzeak aukera ematen du «dentsitate ertaineko» auzo gehiago kontuan hartzeko eta aztertzeko, bereziki hiztunen ehunekoa batezbesteko nazionalaren azpitik duten agintaritza lokalen barruan. Testuinguru horietan, adibidez, biztanleen % 24 galesez hitz egiteko gai diren auzoak beren agintaritza lokalaren batezbestekoa baino ia 12 ehuneko-puntu gorago egon litezke. Galesez hitz egiteko gaitasuna 10etik 2 pertsonak duten auzoetan eguneroko esperientzietan galesak duen presentzia, 10etik 1 pertsonak baino ez duten auzoekin alderatuta, esanguratsua izan daiteke eta gehiago aztertu beharko litzateke.

Galesez Mintzatzen diren Komunitateen Batzordea, bere bigarren fasean, galesak dentsitate ertain eta baxuko eremuetan komunitate-hizkuntza gisa duen erabilera aztertzen ari da. Txostena 2026an argitaratuko da. Testuinguru honetan, «dentsitate ertaineko» eremuak (% 20tik gora baina % 40tik behera) hiru kategoriatan analiza daitezke: (a) azken bost hamarkadetan hizkuntzaren gainbehera bizi izan duten landa- edo erdi landa-eremuak, merkatu-hiriak barne; (b) denbora-tarte berean hizkuntzaren gainbehera bizi izan duten eremu postindustrialak; (c) 1960ko hamarkadatik aurrera hiztun-kopuruan eta -ehunekoan nolabaiteko hazkundera izan duten hiri-eremuak. Azken kategoria horretan sartzen dira Caerdydd (Cardiff) eta Rhondda Cynon Taf hegoaldean, eta Sir y Fflint (Flintshire) iparraldean. Ikerketa gehiago egiten ari dira eremu horietako galesaren profila sakonago ulertzeko. Hasierako behaketek erakusten dute hainbat arrazoi daudela eremu horiek beren agintaritza lokaleko batezbestekoa baino gorago egoteko: besteak beste, 1960ko hamarkadatik aurrera Galeseko beste leku batzuetatik iritsitako gales-hiztunen migrazioaren ondorioak, hazkunde ekonomikoko eskualdeetako enplegu-aukerei eta sektore jakin batzuetan galesezko gaitasunen eskari handiagoari lotuta; galesezko hezkuntzaren bidezko hizkuntza-jabekuntza indartua; gales-hiztunen migrazio-belaunaldi berriak; eta bigarren eta hirugarren belaunaldiak, egonkortasun edo hazkunde

ekonomikoa duten eremu horietan bizitzen jarraitzen dutenak. Garrantzitsua da auzo horien gaur egungo eta etorkizuneko rolak kontuan hartzea hizkuntza-continuumaren eta kodependentziaren kontzeptuak gehiago aztertzen diren heinean.

Ondorioak

Galesaren testuinguruan, oraindik asko dago lortzeko maila nazionalean politika publikoei dagokienez, eta bereziki hezkuntzaren alorrean. XXI. mendearen bigarren laurdenean sartzen ari garen honetan, galesezko hezkuntza jasotzea oso zaila da oraindik Galeseko leku askotan: galesez ikasi nahi duten ikasleek denbora luzez bidaiatu behar dute, eta horrek konpromiso handia eskatzen die familiei ere. Gaur egun, Galeseko hiriburuan, guraso taldeak eta ekintzaileen mugimenduak borrokan ari dira beren auzoan galesez irakasten duen bigarren hezkuntzako ikastetxe bat izan dezaten. Gales Hizkuntzari eta Hezkuntzari buruzko Act 2025 Legea egoera hori zuzentzeko asmoz onartu zen, baina herritarren borroka oinarritzko tresna da oraindik Galesen hizkuntza biziberritzeko. Galesa hizkuntza nazionala den heinean, alegia Galeseko leku guztietako hizkuntza, agerikoa da gehiago egin behar dela hezkuntzaren alorrean, adibidez, ikuspegi hau eguneroko errealitate bihurtu dadin.

Galesaren testuinguruan, galesa Galeseko guztiena dela dioen diskurtsoa, bakoitza non bizi den alde batera utzita, funtsezkoa da dentsitate altuko eremuetarako politikak egitearen beharra ulertzeko. Galeseko gobernuak, Galesez Mintzatzen diren Komunitateen Batzordearen lehen txostenari emandako erantzunean (Welsh Government, 2025), Galeseko leku guztietan galesa indartzeko konpromisoa berretsi zuen. Lehen txostenaren gomendio nagusia —dentsitate linguistikoko altuko eremuak izendatzea— onartu egin zuen Galeseko gobernuak, Galeseko leku guztietan galesa indartzeko marko narratiboaren barruan. Xede horretarako, Galesez Mintzatzen diren Komunitateen Batzordeak 2026an argitaratuko du dentsitate ertain eta baxuko eremuei buruzko txostena. Galeseko gobernuak dentsitate altuko eremuetarako politikak egiteko printzipioa onartzeko duen konpromisoa argia da:

Galeseko gobernuak, beraz, onartzen du «dentsitate linguistikoko altuko» eremuak izendatzea [2. gomendia] garrantzitsua dela galesez mintzatzen diren komunitateak hizkuntza-galera handiagoetatik babesteko.

2026ko maiatzeko hauteskundeak direla eta, Galeseko hurrengo gobernuaren ardura izango da gomendioak ezarriko dituen ala ez, eta noiz ezarriko dituen, erabakitzea.

Hala ere, galesak komunitate-hizkuntza gisa dituen dentsitate altuko, ertaineko eta baxuko eremuen arteko continuumaren eta kodependentziaren kontzeptuek testuinguru honetako politika publikoen garapena eta inplementazioa gidatu beharko dituzte.

Erreferentziak

- Belmar, G., & Glass, M. (2019). Virtual communities as breathing spaces for minority languages: Re-framing minority language use in social media. *Adeptus*, 2019(4). <https://doi.org/10.11649/a.1968>
- Brooks, S. (2021). *Second homes: Developing new policies in Wales*. Welsh Government. <https://webarchive.nationalarchives.gov.uk/ukgwa/20210404111451/https://gov.wales/second-homes-developing-new-policies>
- Departament de Política Lingüística, & Institut d'Estadística de Catalunya (2025). *Enquesta d'usos lingüístics de la població 2023*. Generalitat de Catalunya. https://llengua.gencat.cat/web/.content/temes/dades_estudis/base-de-dades/documents/dades-eulp2023.pdf
- Dorransoro, M. (2025). *From «breathing spaces» to arnascuneak: The development of the concept in the Basque context* (I. bertsioa, aurreargitalpena). https://doi.org/10.31235/osf.io/akr4q_v1
- Fishman, J.A. (1991). *Reversing language shift: Theoretical and empirical foundations of assistance to threatened languages*. Multilingual Matters.
- Isasi Balanzategi, X., & Alvarez Enparantza, J. L. (1994). *Soziolinguistika matematikoa*. Udako Euskal Unibertsitatea. <https://www.ueu.eus/argitaletxea/liburuak/soziolinguistika-matematikoa>
- Lloyd Williams, S., ap Gruffydd, G. S., & Gruffydd Jones, E.H. (2024). The development of Welsh language education since devolution. *Welsh Journal of Education*, 26(2), 72–90. <https://doi.org/10.16922/wje.26.2.6eng>
- Llywodraeth Cymru. (2017, uztailaren 25). *Adroddiad technegol: Amcanestyniad a thaflwybr nifer y siaradwyr Cymraeg tair oed a throsodd, 2011–2050*. <https://www.llyw.cymru/sites/default/files/publications/2018-12/amcangyfrifon-siaradwyr-cymraeg-2011-i-2050-adroddiad-technegol.pdf>
- Nelde, P., Strubell, M., & Williams, G. (1996). *Euromosaic: The production and reproduction of the minority language groups in the European Union*. European Commission.
- Soziolinguistika Klusterra. (2019). Arnascuneak. Etorkizuneko erronkak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 110(1). <https://bat.soziolinguistika.eus/produktua/110-2019-1-arnascuneak-etorkizuneko-erronkak/>
- Thomas, N. (2010). *Bydoedd*. Tal-y-bont. Y Lolfa.

- Vila i Moreno, F.X., Massaguer Comes, M., & Flors-Mas, A. (2023). *Les dinàmiques del català entre els joves: Reptes, principis i arguments per a l'acció*. Generalitat de Catalunya, Departament de Cultura, Secretaria de Política Lingüística. <https://llengua.gencat.cat/web/.content/documents/publicacions/btpl/arxiu/32-btpl-dinamiques-catala-joves.pdf>
- Welsh Government. (2017). *Cymraeg 2050: A million Welsh speakers*. <https://www.gov.wales/sites/default/files/publications/2018-12/cymraeg-2050-welsh-language-strategy.pdf>
- Welsh Government. (2022a, urriaren 11). *Welsh Language Communities Housing Plan*. <https://www.gov.wales/welsh-language-communities-housing-plan.html>
- Welsh Government. (2022b, abenduaren 6a). *Welsh language in Wales (Census 2021)*. <https://www.gov.wales/welsh-language-wales-census-2021.html>
- Welsh Government. (2025a, martxoaren 26a). *Cymraeg 2050: Welsh language strategy action plan 2025 to 2026*. <https://www.gov.wales/cymraeg-2050-welsh-language-strategy-action-plan-2025-2026>
- Welsh Government. (2025b, maiatzaren 29a). *Welsh Government response to the report of the Commission for Welsh-speaking Communities: Empowering communities, strengthening the Welsh language*. <https://www.gov.wales/sites/default/files/publications/2025-11/empowering-communities-strengthening-the-welsh-language-welsh-government-response.pdf>
- Welsh Language and Education (Wales) Act 2025, asc 2. <https://www.legislation.gov.uk/asc/2025/2/enacted>

6. Hiztun-dentsitate desberdineko lurralde- eremuen elkarreragina euskararen ahultze- eta indarberritze-prozesuetan

Asier Basurto Arruti (Soziolinguistika Klusterra)

Iñaki Iurrebaso Biteri (UEMA)

Laburpena: Artikulu honek Hego Euskal Herriko hiztunen bizileku-mugikortasunak hizkuntzen erabileran dituen ondorio soziolinguistikoak aztertzen ditu. Horretarako, ECEPOV (INE, 2021) inkestan oinarritutako adierazle berriak sortu dira, hiztunen bizilekua, jaioterria eta gurasoen jatorria zona soziolinguistiko ezberdinen arabera erabilerari buruzkoekin gurutzatuz. Emaitzek erakusten dute arnasguneetako gaztelaniaren erabileran pisu handia dutela zona erdaldunagoetatik etorritako hiztunek, eta, alderantziz, erdararen nagusitasun handiko eremuetan euskara erabiltzen dutenen artean jatorria zona euskaldunagoetan duten hiztunek pisu esanguratsua dutela. Ondorioz, hiztun-komunitateak bere burua erreproduzitzeko gaitasunak baldintza espazial eta demografikoekin lotura zuzena duela baieztatzen da, eta lurralde arteko fluxuak hizkuntza-komunitatearen dinamika orokorraren elementu garrantzitsua direla.

Gako-hitzak euskara, arnasguneak, bizileku-mugikortasuna, nagusitasun-eremuak, dentsitate soziolinguistikoa, lurralde-dinamika soziolinguistikoak.

Kokapena

Artikulu honetan, Hego Euskal Herriaren testuinguruan hiztunen bizileku-mugikortasunak hizkuntzaren ohiko erabileran duen eragina aztertu da: zona erdaldunagoetan jatorria duten arnasguneetako biztanleena, batetik; eta zona euskaldunagoetan jatorria duten eta gaur egun zona erdaldunagoetan bizi diren herritarrena, bestetik.

Herritarren eta euren gurasoen jaiotza-tokia, gaur egungo bizilekua, familian egiten duten hizkuntza-erabilera eta lagunartean egiten dutena elkarrekin gurutzatuta eta gurutzaketen emaitzak aztertuta, zona soziolinguistikoen arteko bizileku-mugikortasunaren ondorio soziolinguistikoen zenbait ebidentzia eskuratu dira.

Ariketa honek heldulekua izan nahi du errealitate eta bilakaera soziolinguistikoa azterketan lurralde-ikuspegiak eta azterketa espazialek duten potentzialitatea nabarmentzeko. Eta zona soziolinguistiko bakoitzeko dinamikek hiztun-komunitate osoaren bilakaeran duten eragina agerian jartzeko.

Marko teorikoa

Arnasguneen ezaugarri soziolinguistikoak

«Arnasgune» kontzeptua Joshua A. Fishman soziolinguistaren «physical breathing space» aipamenetik dator, Mikel Zalbide euskaltzainak euskarara ekarri eta garatu zuena.

A demographically concentrated space where Xish can be on its own turf, predominant and unharassed. Such spaces may appear abnormal or atypical vis-à-vis the outside, non-Xish surrounding reality; but vis-à-vis internal Xish reality, such spaces become potential oases of authenticity and centres of increased cultural self-regulation that seek to counteract the physical dislocation that minority life is so commonly afflicted with (Fishman, 1991, 58. or.).

Kontzeptuak hainbat interpretazio eta erabilera izan ditu nazioarteko literatura soziolinguistikoan (Dorronsoro, 2025). Jatorrizko kontzeptuaren garapenik eta erabilerarik leialena euskal soziolinguistikaren testuinguruan egin da:

(...) the original meaning of the concept ‘breathing spaces’ had a fruitful development in the Basque context, where it has been literally translated as arnasgunea, and has continued being particularly loyal to Fishman’s definition. Most if not all the literature on the arnasguneak has been written in Basque, so both the knowledge about and access to such niche literature is usually limited to Basque-speaking researchers (Dorronsoro, 2025 6. or.).

Euskal soziolinguistika akademikoan nagusi den ulerkeraren arabera (Dorronsoro, 2025), arnasguneak «eguneroko mintzajardunean euskara nagusi duten eremu geoterritorialak» dira, non euskara «etxeko nagusi» sentitzen den eta «aparteko esfortzu, ordain-sari, autozentsura edo sakrifiziorik gabe» erabiltzen den (Zalbide, 2001). Praktikan, gehienetan, udalerririk erabiltzen dira arnasguneen operatibizatze- eta neurri-unitate gisa.

Arnasguneak dira hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioa modu etengabea eta natural batean ziurtatzen den eremu bakarrak. Joshua A. Fishmanek bere RLS (Reversing Language Shift) eskalan «6. Etapa» gisa

identifikatzen du hau: «The intergenerational and demographically concentrated home-family-neighbourhood-community: the basis of mother-tongue transmission».

Mikel Zalbidek sei gako nagusi aipatzen ditu arnaguneen garrantzia azpimarratzeko (Zalbide, 2019):

1. Eguneroko euskarazko mintzamolde «normala», osasun oneko hiztun-elkarteen mintzajardun arruntaren antzekoena, arnaguneetan dago indar betean.
2. Arnaguneetan bizi den jendeak aparteko esfortzu, ordain-sari, autozentsura edo sakrifizioak gabe egiten du euskaraz, hitzez ari delarik, Inon idatzi gabeko gizarte-arauari jarraituz.
3. Euskal hiztun-elkarte beregaina bizirik dagoela erakusten dute arnaguneek, euskaraz «normal» bizitzea zer den argien azalduz.
4. Euskarazko mintzamen-maila altua eta hizkera aberatsa duten hiztunen sorgune oparoa dira; hitz-etorri oneko euskaldun trebe landuen harrobia.
5. Eguneroko mintzajardun arruntean euskara nagusi den esparru bakarra dira, herri- edo eskualde-mailan.
6. Haur, gazte eta helduen katean, belaunez belauneko transmisioa segurtaturik dago.

Bestalde, Zalbiderentzat arnaguneek elkarri lotuta dauden hiru erronka nagusi dituzte:

- Demolinguistikoa: hiztun-kopurua eta kontzentrazioa mantentzea (jaiotza-tasak, migrazioak, gazteak herrian atxikitzea...).
- Sozioekonomikoa: lanpostuak eta zerbitzuak herrian bermatzea.
- Soziokulturala: komunitate-sentimendua eta antolaketa soziala orekan uztarturik mantentzea eta euskarazko bizi-giroari eustea.

Arnaguneak Hego Euskal Herrian

Euskara minorizazio gorrian dago demolinguistikoki Euskal Herrian (Iurrebaso, 2023). Biztanleen % 83 hobeto moldatzen dira gaztelaniaz edo frantsesez euskaraz baino (2,2 milioi lagun), eta euskaraz hobeto moldatzen direnak, aldiz, % 8 dira (210.000 lagun). Kaleko euskararen erabilera % 12,6koa da, azken 24 urtetako maila berean (Altuna eta beste, 2022).

Hego Euskal Herriko arnasguneek¹ ahultze-zantzuak erakutsi dituzte azken urteetan. Datu kuantitatiboei dagokienez, 2021ean Hego Euskal Herrian, 21 udalerri baino ez ziren «arnasgune beteak» (% 80tik gorako euskararen erabilera dutenak), eta biztanleriaren % 0,3 baino ez zuten hartzen (9.424 biztanle). Horietaz gain, 75 udalerri «arnasgune erasanak» (% 60-80 arteko erabilera) ziren, biztanleriaren % 4,2 hartzen zutenak (118.093 biztanle). Horrek esan nahi du Hego Euskal Herriko biztanleriaren % 5 baino gutxiago bizi dela arnasguneetan. Aitzitik, hamar herritarretik bederatzi (% 88,5) gaztelania nagusi den udalerrietan bizi dira, batez ere euskararen erabilera % 20ra ere iristen ez den eremuetan.

**1. taula. Udalerriak eta biztanleria, nagusitasun-eremuetan.
Hego Euskal Herria, 2021 (Irizpidea: hurbileko erabileraren adierazle sintetikoa).**

Eremua	Udalerriak		Biztanleak	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Arnasgune beteak (euskaraz % 80-100)	21	4,0	9.424	0,3
Arnasgune erasanak (% 60-80)	75	14,3	118.093	4,2
Nagusitasun argirik gabeak (% 40-60)	52	9,9	196.214	7,0
Erdararen nagusitasun ez-erabatekoak (% 20-40)	61	11,7	316.829	11,3
Erdararen nagusitasun handikoak (% 0-20)	314	60,0	2.174.018	77,2
GUZTIRA	523	100,0	2.814.578	100,0

Iturria: UEMA, 2025 [jatorrizko iturriak: Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak (Eustat-Nastat) eta Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa (Soziolinguistika Klusterra)].

Arnasguneek biztanleriaren pisu demografiko mugatua dute, baina Euskal Herri osoan gertatzen den euskararen erabileraren zati handi bat haietan ekoizten da, euskal hiztunen dentsitatea, konzentrazioa eta hiztun-komunitatearen trinkotasunaren eraginez (Iurrebaso, 2023). Arnasguneetan haur gehienek euskara dute lehen hizkuntza, eta jatorrizko euskaldun gehienek euskarazko nagusitasunari eusten diote; esan daiteke, arnasguneetako baldintzek euskara erabiltzeko eta euskarazko gaitasuna handitzeko prozesuak errazten dituztela; lurraldearen gainontzeko eremuetan ez bezala.

1. Azterketa hau Hego Euskal Herrira mugatu behar izan da, Ipar Euskal Herrian ez baitago euskararen egoera maila lokalean aztertzea ahalbidetzen duen datu-ituririk.

Nagusitasun-eremuak ekosistema soziolinguistikoetako baldintzen adierazle gisa

Nagusitasun-eremuak lurraldea sailkatzeko modu bat dira, hizkuntzen erabilera-maila kontuan hartuta (ikusi 1. taulan Hego Euskal Herriko osaketa nagusitasun-eremutan). Baina erabileratik harago, praktikan *ekosistema* osoa hartzen dute kontuan. Eta euskararen diagnosia egiteko oinarritzko ardatzetako bat dira, berebiziko interesa baitu lurralde-mailan nagusitasun-eremu bakoitza azaleraz eta pisu demografikoz hazten edo txikitzen ari den ikustekak.

Euskarazko *nagusitasun-eremuak* kontzeptua lurralde-mailako kontzentrazioari eta euskara-erdaren nagusitasun soziolinguistikoari lotuta dago beraz. Nagusitasun-eremua kontzeptua, hizkuntza gutxitu baten azterketa demolinguitikoa erabil daiteke, hizkuntza-talde batek bere burua nola ekoizten eta ugaltzen duen aztertzeko. Nagusitasun-eremuak hiztunen gaitasun-zoruaren eta erabileraren aukeren egituraren adierazle dira. Ereku horiek baldintzatzen dute, norbanakoari dagokionez, erosotasun sozial eta gaitasun linguistiko pertsonal eta kolektiboaren arabera, hizkuntza bat ala bestea erabiltzeko aukera. Errazagoa den hizkuntza erabili beharrean, beste motibazio batzuek bultzatuta (atxikimendua eta transmisio-bulkada, kasu) hizkuntza gutxitua gehiago erabiltzeko ahaleginak zenbatekoa izan beharko duen ere testuinguruko baldintzen arabera da. Nagusitasun-eremuek, beraz, lurralde-testuinguruaren ezaugarriak jasotzen dituzte, eta horrek eragin zuzena du hiztunen hizkuntza-portaera indibidualean.

Izan ere, nagusitasun-eremuen barnean gertatzen diren dinamikek eragin handia dute hiztunen bilakaeran. Arnasguneetan bizi diren jatorritzko euskaldunek beste inon baino hobeto eusten diote euskarazko gaitasun erlatiboari. Orobat, ingurune horiek baldintza egokienak eskaintzen dituzte ez dakienak euskara ikasteko, gaitasun sendoa garatzeko, euskaraz hitz egiteko eta hizkuntza ondorengoei transmititzeko. Beste muturrean, erdararen nagusitasun handiko testuinguruetan zaila izango da euskaraz ez dakienarentzat euskara ikastea eta euskalduna euskaraz bizi ahal izatea: testuinguruak ez du lagunduko.

Haurtzaroaren eta nerabezaroaren garrantzia hizkuntza-sozializazioan eta hiztun-profila finkatzean

Hizkuntza-sozializazioa funtsezkoa da hizkuntza gutxituen jarraipenerako. Hizkuntza belaunaldi berriei transmititzea da hizkuntza gutxituak indarberritzeko eta iraunarazteko premia eta lehentasunezko prozesua. Haurren lehen biziurteek, haurtzaroak eta nerabezaroak, berebiziko garrantzia dute hizkuntza-sozializazioan eta hiztun-profila finkatzean (gaitasunean, erabileran eta

jarreretan). Ikuspegi horrekin, euskararen biziberritze-estrategia orokorrean zentrala izan den belaunaldi berriak euskaldun hazteko apustuak emaitza argiak izan ditu (Iurrebaso, 2023).

Testuinguru soziolinguistikoa funtsezko baldintzapena da haurrak hizkuntzaz jabetzeko eta hiztun bilakatzeko prozesuan (Kasares, 2013). Izan ere, komeni da begirada zabaltzea eta hizkuntza-sozializazioan familiaz gain eragina duten faktoreei erreparatzea: hizkuntza-transmisioan familiaz kanpoko baldintzek sendiaren barnekoek baino eragin handiagoa izaten dute maiz, gaur egun. Inguru hurbileko gizarte-sareak (lagunartea, herri-/auzo-giroa) eragile garrantzitsua dira Kasaresen arabera, horietan gertatzen baitira harreman informal gehienak. Etxetik kanpoko eremu horietan, adinkideen arteko harremanak erabakigarriak dira haurren hizkuntza-jokabideari begira. Etxeko, eskolako eta adinkideen arteko elkarrekintzak elkar elikatzen duten jarduera sozializatzaileak dira, haurtzaroko hizkuntza-sozializazio komunitarioaren prozesu zabalaren parte. Horiek horrela, hiztuna jaio eta hazi izan den testuingurua baldintzatzaile garrantzitsua izan ohi da eta aztarna utzi ohi du hiztunaren gaitasunean, erabilera-ohituretan eta hizkuntzekiko jarreretan.

Bizileku-mugikortasuna gizarte-egitura aztertzeako gako gisa

Bizileku-mugikortasuna (*Residential mobility*) kontzeptuari, honako definizioa eman zaio literatura akademikoan:

Residential mobility denotes the relatively local-scale relocation of individuals and households from one usual residence to another.

Bizileku-mugikortasunak norbanakoen eta etxekoen tokiko eskalako birkokapena adierazten du, ohiko bizileku batetik besterakoari.

(Coulter & Thomas, 2020)

Bestela esanda, *bizileku-mugikortasuna* pertsonak ohiko bizilekuz aldatzea da, neurri handi batean tokian tokiko birkokapenari erreferentzia eginez. Definizio horrek azpimarratzen du lekualdatzeak eskala lokal edo hurbilekoak izaten direla (ingurune hurbilean etxebizitza aldatuz), horrela bereiztuz *residential mobility* migrazio urrunagoetatik edo nazioarteko migrazioetatik.

Bizileku-mugikortasuna kontzeptua ulertzeko hainbat teoria eta eredu daude. Adibidez, populazio-mugikortasunaren lehen eredu klasikoek (*push-pull* migrazio-ereduak, Ravenstein-en legeak, etab.) bizileku-aldaketak bizitza-

baldintzen hobekuntzarekin edo beharrekin lotu zituzten; *Why Families Move* (Rossi, 1955) klasikotik hasita, ikuspegi honek azpimarratzen du familiek euren beharrianak aldatzean (seme-alabak, lan-aukerak, etxebizitza-baldintzak) bizilekua aldatzen dutela. Teoria horien arabera, bizileku-aldaketa pertsonen bizizikloan gertatzen diren gertaera eta trantsizioei erantzuteko mekanismo bat da (ezkontza, dibortzioa, seme-alaben jaiotza, erretiroa, etab.), eta hortaz *bizileku-mugikortasuna* bizitza-zikloaren eta bizitza-ibilbidearen ikuspegietatik ere aztertzen da (Coulter & Thomas, 2020). Azken ikerketa teorikoek, bestalde, *bizileku-mugikortasuna* erlaziozko praktika moduan birpentsatzera jo dute, denboran eta espazioan bizitzak lotzen dituzten eta, aldi berean, pertsonak egitura-baldintzetara konektatzen dituzten erlazio-praktika gisa (Coulter, Ham & Findlay, 2015). Ikuspegi horiek geografiaren eta soziologiaren arteko uztarketa dakarte, mugikortasuna pertsonen eguneroko espazioaren berrantolaketa gisa ulertuz. Era berean, *bizileku-mugikortasunari* buruzko ikerketek bizilagunen arteko harremanak, auzo- eta hiri-egituraren aldaketak eta gizarte-sareen osaera ere kontuan hartzen dituzte (Coulter & Thomas, 2020).

Bizileku-mugikortasuna funtsezko kontzeptua da hainbat arlotan. Demografiaren alorrean, biztanleriaren barruko mugimendu horiek populazioaren banaketari eta eskualdeen hazkundeari eta galerari buruzko azterlanetan sartzen dira. Geografian adituek *bizileku-mugikortasuna* aztertzen dute auzoen eraldaketa edo gentrifikazio-prozesuetan daukan rolagatik; maiz ikusten da etxebizitza-aukeraketak eta biztanleen desplazamenduen pilaketak auzo bateko egitura sozioekonomikoa eraldatzen dutela.

Laburbilduz, *bizileku-mugikortasuna* pertsonen bizileku-aldaketei buruzko kontzeptu gakoa da, diziplina anitzetan landua. Kontzeptuaren analisisian ikuspegi metodologikoak, kontzeptualak eta teorikoak kontuan hartu dira. Azken batean, *bizileku-mugikortasunak* gizartearen egitura eta lurralde-antolaketa ulertzeko funtsezko gakoa ematen baitu.

Fenomeno hori neurtzeko maiz aztertzen da zer proportziok aldatzen duten bizilekua epe jakin batean (esaterako, urtebeteko tartean bizilekua aldatu duten pertsonen ehunekoa) edo batez besteko bizileku-aldaketa kopurua biztanleko. Hego Euskal Herriko testuinguruari begiratuta, zentsuko 2024ko datuen arabera (INE, 2024), herritar gehienak (% 59,2) ez dira bizi jaio ziren udalerrian, beste batean baizik. Pentsatzekoa da bizileku-aldaketa horiek eragin soziolinguistikoa dutela jatorrizko eta helmugako udalerrietan, bizileku-aldaketa horietako askok ingurune soziolinguistikoz aldatzea baitakarte.

Ikerketa-galderak

Bizileku-mugikortasunaren fluxuek errealitate soziolinguistikoan duten eraginaren gaiari heldu nahiko genioke artikulu honetan eta honako ikerketa-galderei lehen erantzun behin-behineko bat eman. Aztertu nahi da ea nola eragiten duen lurralde-jatorri soziolinguistiko ezberdina duen hiztunen bizileku-mugikortasunak helmugako udalerrietako hizkuntza-erabileran. Eta horren erakusgarri bezala, testu honetan zehazki galdera hauei erantzun nahi zaie:

1. Arnasguneetan nagusiki gaztelania erabiltzen duten pertsonen artean zenbatek dute jatorria ingurune erdaldunagoetan?
2. Erdararen nagusitasun handiko eremuetan nagusiki euskara erabiltzen duten pertsonen artean, zenbatek dute jatorria ingurune euskaldunagoetan?

Iturriak eta metodologia

Iturriak

Galderen izaera ikusita, paradigma positibistaren barruan, informazio kuantitatiboa baliatu da erantzunak bilatzeko. Iturri nagusi gisa Espainiako Estatistika Institutuaren (INE) *Encuesta de Características Esenciales de la Población y Viviendas* (ECEPOV) erabili da. Eragiketa hori 2021. urtean egin zuen INEk urte horretako zentsua lantzeko. Zehazki, ECEPOVen mikro-datueta jo da: hizkuntzari buruzko aldagaiak landu dira batetik; eta lurraldeari buruzko informazioa (hiztunen bizilekuari, jaiolekuari eta gurasoen jaiolekuari buruzkoa) bestetik. Horretarako, INEa egindako berariazko datu-eskari baten bidez, ECEPOVeko lurralde-informazioa nagusitasun-eremuka lantzeko moduan eskuratu da.

Iturri horrek honako bi baldintzak betetzen ditu. Batetik, aztergaiei buruzko informazioa biltzen du; bai euskara-gaztelaniaren erabilerari buruzkoa eta baita hiztunen bizileku eta jaiolekuari buruzko informazio zehatza ere. Bestetik, laginek neurri egokia dute, eta horrek lanketak eskatzen duen desagregazio-mailarekin lan egitea ahalbidetu du. Ikerketa honen unibertsoa 2021. urtean, ECEPOV eragiketa egin zen garaian, euren bizilekua Hego Euskal Herrian zuten 2.799.463 hiztunek osatu dute. Eta lagina, berriz, aipatu ikerketaren mikro-datueta azaltzen diren 27.763 erregistroek.

Iturri horietan oinarrituta, hau da ikerketaren metodologia-hautua: ECEPOV ikerketan oinarrituta, aztertu nahi den gaia lantzeko adierazle esanguratsu

berriak sortzea eta horien lehen irakurketa bat egitea oinarritzko estatistika deskriptiboaren tresnak baliatuta. Jarraian aurkezten dira ECEPOVetik abiatuta sortu diren adierazle berriak.

Familiako eta lagunarteko erabilerari buruzko adierazleak

ECEPOVen hiztunek hiru eremutan egiten duten erabilerari buruzko informazioa jasotzen da: familian egiten dutena (1), lagunartekoa (2) eta lantokian edo ikastokian egiten dutena (3).

Hizkuntza bakoitza zein neurritan erabiltzen duten galdetzen zaie elkarrizketatuei (euskara, gaztelania, eta beste hizkuntzarik ezagutzen dutenei hizkuntza horri buruzko erabilera-mailari buruz ere galdetuz). ECEPOVen erabilerari buruz galdetzeko modu horrek akatsa dakar berekin. 7. taulan ikus daiteke, adibidez, hiztunen kopuru esanguratsu batek ezinezkoak diren konbinaketak erantzuten dituela. Adibidez, «beti» gaztelaniaz aritzen direla esaten duten askok aipatzen dute ondoren euskara batzuetan, maiz edo beti erabiltzen dutela. Eta berdin alderantziz.

2. taula. Hiztunen euskararen familiako erabilera, gaztelaniaren familiako erabileraren arabera. Hego Euskal Herria, 2021.

		Gaztelaniaren erabilera familian				GUZTIRA
		Inoiz ez	Batzuetan	Maiz	Beti	
Euskararen erabilera familian	Inoiz ez	39.946	48.267	54.454	1.516.881	1.659.548
		% 1,4	% 1,7	% 2,0	% 55,0	% 60,1
	Batzuetan	1.269	16.589	84.480	375.316	477.654
		% 0,0	% 0,6	% 3,1	% 13,6	% 17,3
	Maiz	483	64.812	200.296	61.236	326.827
		% 0,0	% 2,3	% 7,3	% 2,2	% 11,8
	Beti	96.707	85.341	20.116	94.211	296.375
		% 3,5	% 3,1	% 0,7	% 3,4	% 10,7
GUZTIRA		138.405	215.009	359.346	2.047.644	2.760.404
		% 5,0	% 7,8	% 13,0	% 74,2	% 100,0

Baliozkotasun-arazoak dituzte, hortaz, honako datuek. Euskal demolinguistikan hizkuntza-erabileraz galdetzeko ohituraz baliatu izan diren galderak² egokiagoak izanik, ECEPOV ez da tamalez tradizio sendoago horri lotu galderak egiteko erabilitako moduan. Eta ziur aski, hautu horrek datuen kalitatea kaltetuko zuen. Dena den, ez dira guztiz baliogabeak horrela eskuratutako datuak eta oinarri horretatik abiatuta egin da lanketa. Zehazki, taulako konbinaketa posible guztiak sailkatuta, honako hiru multzotan banatu dira hiztunak:

1. Etxean nagusiki (edo soilik) euskaraz ari direnak

- Euskaraz Batzuetan + Gaztelaniaz Inoiz ez
- Euskaraz Maiz + Gaztelaniaz Inoiz ez/Batzuetan
- Euskaraz Beti + Gaztelaniaz Inoiz ez/Batzuetan/Maiz

2. Bietara berdintsu ari direnak

- Euskaraz Inoiz ez + Gaztelaniaz Inoiz ez
- Euskaraz Batzuetan + Gaztelaniaz Batzuetan
- Euskaraz Maiz + Gaztelaniaz Maiz
- Euskaraz Beti + Gaztelaniaz Beti

3. Nagusiki (edo soilik) gaztelaniaz ari direnak

- Euskaraz Inoiz ez + Gaztelaniaz Batzuetan/Maiz/Beti
- Euskaraz Batzuetan + Gaztelaniaz Maiz/Beti
- Euskaraz Maiz + Gaztelaniaz Beti

Hiztunak hiru multzo horietan landu dira, hortaz, sortutako adierazlean. Oro har, ECEPOVen familiako erabilerari buruz horrela landutako datuak ez dira askorik urruntzen EUSTATEk etxeko erabileraz landu izan dituenetatik.

Familiako erabilera lantzeko erabilitako irizpide berberak erabili dira lagunarteko erabilerari buruzko adierazlea kalkulatzeko.

Erabilerari buruzko bi adierazle horiekin egin da lan ikerketa honetan: familiako erabilerarekin eta lagunartekoarekin.

2. Bai Inkesta Soziolinguistikoan eta bai EUSTAT eta NASTATen zentsuetan prozedura egokiagoak landu izan dira erabilerari buruzko informazioa eskuratzeko. Galdera bakarrean galdetzen zaio elkarriketatuari egiten duen euskara-erdaren erabilerari buruz.

Bizilekuari eta norbere zein gurasoen jaiolekuari lotutako adierazleak

ECEPOV-en, berez, ikergairako funtsezkoak diren honako aldagaiak buruzko informazioa biltzen da zehatz:

- Hiztunaren bizileku-udalerria.
- Hiztunaren jaiotze-tokia.
- Hiztunaren 1. gurasoaren jaiotze-tokia.
- Hiztunaren 2. gurasoaren jaiotze-tokia.

ECEPOVen lagineko hiztun bakoitza hartu, eta lau aldagai horietarako, bizileku eta jaiolekuaren ezaugarri soziolinguistikoei buruzko balioak esleitu zaizkie, eremu geografikoei buruzko balioak UEMak (2025) landutako Hego Euskal Herriko udalerrien sailkapenetik hartuta³. Horrela, honako lau aldagaiak sortu dira:

- **Bizilekuko erabilera:** Hiztunak bizi diren udalerriko euskararen erabilera-maila⁴.
- **Jaiolekuko erabilera:** Hiztuna jaio zen udalerriko euskararen erabilera maila⁵.
- **1. gurasoaren jaiolekuko erabilera:** Hiztunaren 1. gurasoa jaio zen udalerriko euskararen erabilera-maila.
- **2. gurasoaren jaiolekuko erabilera:** Hiztunaren 2. gurasoa jaio zeneko udalerriko euskararen erabilera-maila.

Lau adierazle horietako bakoitza, 8. taulako lehen zutabeaz azaltzen diren tarteetan sailkatu da eta horiek nagusitasun-eremuen sailkapenarekin (bigarren zutabea) lotu dira, taulan ikusten den korrespondentziarekin.

3. Horretarako lanketa berezia egin du INEk UEMaren eskari bati erantzunda.

4. «Erabilera hurbila» adierazle sintetikoa erabili da, udalerriko herritarrek etxean egiten duten erabileraren eta udalerriko kaleetan neurtutakoaren batezbestekoaren bidez kalkulatu; multzokatze xehea. Jatorrizko iturriak: EUSTAT, 2021 eta Soziolinguistika Klusterra, 2021

5. Berez egokiagoa litzateke hiztunak zein gurasoak jaio izandako udalerriak, egungo erabileraren arabera baino, jaio eta hazi zirenen erabilera-mailaren arabera lantzea. Oraingoan, ordea, ez dago horretarako aukerarik.

3. taula. Udalerrietako euskararen erabilaren arabera udalerrien multzokatzea: multzokatze xehea eta nagusitasun-eremuak.

Euskararen erabilera hurbila udalerrian	Nagusitasun-eremuak
Euskaraz % 90-100	ARNASGUNE BETEAK (euskararen nagusitasuna handia den udalerriak)
Euskaraz % 80-89,9	
Euskaraz % 70-79,9	ARNASGUNE ERASANAK (euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerriak)
Euskaraz % 60-69,9	
Euskaraz % 50-59,9	NAGUSITASUN ARGIRIK GABEKO UDALERRIAK
Euskaraz % 40-49,9	
Euskaraz % 30-39,9	ERDARAREN NAGUSITASUN EZ ERABATEKO UDALERRIAK
Euskaraz % 20-29,9	
Euskaraz % 10-19,9	ERDARAREN NAGUSITASUNA HANDIA DEN UDALERRIAK
Euskaraz % 10 baino gutxiago	
Hego Euskal Herriatik kanpo	Hego Euskal Herriatik kanpo

Iturria: egileek landua.

Hiztunak bizi diren eta eurak edo euren gurasoak jaio ziren tokien arteko alderaketarako adierazleak

Hiztunen egungo bizilekua batetik eta euren zein euren gurasoen jaiolekua bestetik aintzat hartuta⁶, honako hiru adierazleak sortu ditugu:

- Hiztunen bizilekuko eta jaiolekuko batez besteko euskararen erabilera-mailaren alderaketa (erabilera hurbilaren arabera).
- Hiztunen bizilekuko eta 1. gurasoaren jaiolekuko euskararen erabilera-mailaren alderaketa (erabilera hurbilaren arabera).
- Hiztunen bizilekuko eta 2. gurasoaren jaiolekuko euskararen erabilera-mailaren alderaketa (erabilera hurbilaren arabera).

Adierazle horiek honako hiru balioak har ditzakete:

- Zona erdaldunagoan jaioak.
- Toki berean edo euskararen erabilera-maila bereko tokian jaioak.
- Zona euskaldunagoan jaioak.

6. Alderaketa horiek udalerrien multzokatze xehearen arabera landu dira.

Bizileku-mugikortasuna eta euskararen erabilera Hego Euskal Herrian

Lehenago azaldu bezala, nagusitasun-eremuak ekosistema soziolinguistikoko oso bateko baldintzak sintetizatzen dituen adierazle gisa baliatu daitezke: hiztun-proportzio batzuk, hizkuntza-erabileraren praktika bat, hizkuntza bata eta bestea erabiltzearen inguruko arau-multzo bat, gaitasun kolektibo eta indibidualak, transmisio-kate bat...

Kontua da, norbanakoaren baldintzapen soziolinguistikokoak ulertzen jarrita, uneko bizilekuan dituen gain, oso interesgarria dela bere jatorriko guneetako baldintzak ere kontuan hartzea. Norbera gaur egun bizi dena ez den toki batean jaio bada eta urte batzuk eman baditu bertan, pertsona horren biografia linguistikoa eta bizipenak baldintzatuko ditu jaioleku horretako egoerak. Era berean, bakoitzari hizkuntza-gaitasunak, -ohiturak eta -ideologiak transmititu dizkieten pertsonak, norberaren gurasoak kasu, beste ingurune soziolinguistikoko bateko baldintzetatik baldin badatoz, transmisio horren baitan eragina izan dezake jatorri horrek. Gaur egun toki berean jaio eta hazi diren pertsonak nolabaiteko oinordekotza soziolinguistikoko oso desberdina jaso dezakete gurasoengandik, hizkuntzaren sozializazio-prozesua erabat baldintzatuz.

Euskararen erabilera-maila jaiolekuaren eta bizilekuaren arabera

Ikus dezagun azaltzen ari garen hau datuen bidez. Erakusgarri bezala, begiratu dezakegu nola aldatzen diren hiztunen artean lagunartean nagusiki euskaraz aritzen direnen proportzioak, haien jaiolekuaren eta bizilekuaren nagusitasun-eremua konbinatuta aztertuz. 4. eta 5. tauletan ikus daitekeen bezala, hiztunen jaiolekuak eta egungo bizilekuak, eta baita gurasoenak ere, hirurek baldintzatzen dute haien erabilera-maila. Adibidez:

- Egungo bizilekuari erreparatuz, erdararen nagusitasun handiko udalerrietan bizi diren hiztunen artean, % 2,1ek erabiltzen dute euskara nagusiki; kopuru hori % 76,1era igotzen da arnasmune beteetan. Tarteko eremuek tarteko balioak erakusten dituzte.
- Jaiolekuari erreparatuz, erdararen nagusitasun handiko udalerrietan jaiotakoen artean % 3,4k soilik dute euskara lagunarteko hizkuntza nagusi; kopuru hori % 71,9raigo igotzen da arnasmune beteetan jaiotakoen artean.
- Norberaren jaiolekuak ez ezik, gurasoenak ere zerikusi argia du hiztunen erabilera-mailan: gurasoak erdararen nagusitasun handiko eremuan jaiotakoak dituztenen artean % 4,3k egiten dute nagusiki euskaraz; gurasoak arnasmunekoak dituztenen % 60,4k.

- Norbere bizilekua eta jaiolekua, bi aldagaiak uztartuta, aldeak are esanguratsuagoak dira: erdararen nagusitasun handiko udalerrietan jaio eta bizi diren herritarren artean % 2,4k erabiltzen dute euskara nagusiki; % 65,8k arnasguneetan jaio eta bizi direnen artean⁷.
- Erabilera apalena Hego Euskal Herrikan jaioetako hiztunek erakusten dute. Dena den, aipagarria da horien artean ere bizilekuak eragin argia duela. Horrela, Hego Euskal Herrikan jaio baina arnasgunean bizi diren hiztunen artean erabilera-maila ohargarria da, horien arteko % 9,7k nagusiki euskaraz egiten dute lagunartean, Hegoaldeko hiztun guztien batez besteko maila (% 8,7) gaindituz.

Horrela, bada, bizilekuak, norbere jaiolekuak eta gurasoenak, hiru aldagaiek dute eragin handia erabileran. Eta hiru aldagaien eragina metatu egiten da: erabateko logika erakusten dute, alde horretatik, landutako datuek.

4. taula. Lagunartean nagusiki euskara erabiltzen dutenen proportzioa hiztunen jaiolekuaren eta egungo bizilekuaren arabera. Hego Euskal Herria, 2021(multzo bakoitzarekiko %ak gelaxka bakoitzean).

	BIZILEKUA				GUZTIAK
	Erdararen nagusitasun handiko udalerriak	Erdararen nagusitasun ez erabateko udalerriak	Nagusitasun argirik gabeko udalerriak	Arnasguneak (erasanak eta beteak)	
Hego EHTik kanpo	0,3	0,6	5,0	9,7	0,8
Erdararen nagusitasun handiko udalerriak	2,4	8,5	27,9	33,4	3,4
Erdararen nagusitasun ez erabateko udalerriak	6,4	22,0	30,1	33,6	20,6
Nagusitasun argirik gabeko udalerriak	11,8	24,2	46,7	44,3	39,3
Arnasguneak (erasanak eta beteak)	21,5	34,3	58,1	65,8	58,2
GUZTIAK	2,1	15,3	36,2	51,9	8,7

Iturria: ECEPOV, 2021. Egileek landua.

7. Kasu honetan azpilaginen neurriek ez dute ematen arnasguneen barruan bereizteko.

5. taula. Lagunartean nagusiki euskara erabiltzen dutenen proportzioa hiztunen egungo bizilekuaren, jaiolekuaren edo gurasoen jaiolekuaren arabera. Hego Euskal Herria, 2021 (multzo bakoitzarekiko %ak gelaxka bakoitzean).

		Erdararen nagusitasun handiko udalerriak (euskararen erabilera <% 20)	Erdararen nagusitasun ez erabateko udalerriak (euskararen erabilera % 20-40)	Nagusita- sun argirik gabeko udalerriak (euskararen erabilera % 40-60)	Arnasgune erasanak (euskararen erabilera % 60-80)	Arnasgune beteak (euskararen erabilera >% 80)	GUZTIAK
EGUNGO BIZILEKUA		2,1	15,3	36,2	48,7	76,1	8,7
JAIOLEKUA	0,8	3,4	20,6	39,3	56,1	71,9	8,7
GURASOEN JAIOLEKUA ¹	2,0	4,3	23,5	36,4	49,0	60,4	8,7

* ECEPOVen elkarriketatuen bi gurasoen jaiolekuaz galdetzen da, banaka. Guraso guztien kopuruak batu eta horien gainean kalkulatu dira lan honetako tauletan gurasoei dagozkien ehuneko orokorrak.

Iturria: ECEPOV, 2021. Egileek landua.

Beraz, datuetan ikusten da **testuinguruak hizkuntza-praktika indibidualetan eragin erabakigarria duela**. Toki berean jaiotako guztiek ez dutela joera bera, toki berean bizi direnek ere ez, eta toki guztietako gurasoak dituztenek ere ez; hori gauza jakina da. **Hala eta guztiz, joera orokor gisa, hiru adierazle hauek garrantzitsuak dira pertsonen gaur egungo hizkuntza-praktikak ulertzeko. Eta hiruren arteko harremana eta elkarrenergina aztertzeak argia ekar dezake tokian tokiko egoerak eta joerak interpretatzeko.**

Jo dezagun, beraz, ikerketa-galderei zuzenean erantzuten lagundu dezaketen datuak aztertzeraz.

Gaztelaniaren erabilera arnasguneetan

Definizioz, arnasguneetan euskara da nagusi erabileran. Argitu behar dena, berriz, honakoa da: bertan egiten den gaztelaniaren zein zati dagokie bertako jatorria duten hiztunei eta zein zati ingurune erdaldunagoetatik etorritakoei? Zehatzago galdetuta, nagusiki erdaraz aritzen diren hiztunen zein zati da ingurune erdaldunagoetatik etorria? galdera hori belaunaldi arteko ikuspegiz ere landuta.

6. taula. Nagusiki gaztelania erabiltzen duen hiztun-multzoaren osaera, hiztunen eta haien gurasoen jatorriaren arabera. Hegoaldeko arnasguneak (beteak eta erasanak; euskararen erabilera % 60tik gora dutenak), 2021.

	Pisua biztanlerian (%)	Pisua familian nagusiki gaztelania erabiltzen dutenen artean (%)	Pisua lagunartean nagusiki gaztelania erabiltzen dutenen artean (%)
Norbere jaiolekuaren arabera:			
Zona erdaldunagoan jaioak	41,8	71,8	72,8
Toki berean jaioak (edo erabilera-maila bertsua duen batean)	56,0	27,3	26,6
Zona euskaldunagoan jaioak	2,2	1,0	0,5
	100,0	100,0	100,0
Gurasoen jaiolekuaren arabera:			
Zona erdaldunagoan jaioak	54,5	83,0	81,8
Toki berean jaioak (edo erabilera-maila bertsua duen batean)	40,7	14,8	15,4
Zona euskaldunagoan jaioak	4,8	2,2	2,8
	100,0	100,0	100,0
Laburpen adierazlea:			
Norbera edo gurasoetako bat gutxienez zona erdaldunagoan jaioak	69,4	91,6	90,8
Gainerakoak	30,6	8,4	9,2
	100,0	100,0	100,0

Iturria: ECEPOV, 2021. Egileek landua.

Norberaren jaioterria kontuan hartuta, zona erdaldunago batean jaiotakoak arnasguneetan bizi direnen % 41,8 dira; baina familian edo lagunartean nagusiki gaztelaniaz dihardutenen artean proportzio hori askoz handiagoa da, % 71,8 eta % 72,8, hurrenez hurren. Aldiz, tokian bertan jaiotakoek populazioaren erdia baino zertxobait gehiago osatzen dute (% 56), baina gaztelania-hiztunetan haien pisua nabarmen jaisten da (% 27,3 familian eta % 26,6 lagunartean). Beraz, arnasguneetan gaztelania erabiltzen dutenen artean, hamarretik zazpi baino gehiago zona erdaldunago batean jaiotakoak dira.

Gurasoen jaioterriari erreparatuta, eragina are argiagoa da. Arnasguneetako biztanleen erdiek (% 54,5) gurasoak zona erdaldunagoetan jaiotakoak dituzte; baina nagusiki gaztelania erabiltzen duten hiztunen artean proportzio hori % 83,0 eta % 81,8koa da. Aldiz, gurasoak tokian bertan jaiotakoak dituztenak populazioaren % 40,7 badira ere, familian eta lagunartean nagusiki gaztelaniaz egiten dutenen artean % 14-15 dira.

Bi faktoreak (norberaren eta gurasoen jatorria) batera hartuta, ikusten da norbera edo gurasoetako bat gutxienez zona erdaldunagoan jaiotakoa izatea arnasguneetako populazioaren % 69,4aren kasuan gertatzen dela. Baina nagusiki gaztelania darabilten hiztunen artean proportzio hori % 91,6koa da familian, eta % 90,8koa lagunartean. Hau da, arnasguneetan nagusiki gaztelania erabiltzen dutenen artean hamarretik bederatzik gutxienez jatorri-lotura dute zona erdaldunago batekin.

Euskararen erabilera erdararen nagusitasun handiko eremuetan

Jarraian bizileku-mugikortasunaren eragin soziolinguistikoa kontrako norabidean aztertuko da. Gaur egun erdararen nagusitasun handiko udalerrietan (euskararen erabilera hurbila % 20aren azpitik) bizi diren hiztunen artean euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dutenen multzoaren jaiolekua eta haien gurasoena.

7. taula. Nagusiki euskara erabiltzen duen hiztun-multzoaren osaera, hiztunen eta haien gurasoen jatorriaren arabera. Hegoaldeko erdararen nagusitasun handiko udalerriak (euskararen erabilera % 20aren azpitik dutenak), 2021.

	Pisua biztanlerian (%)	Pisua familian nagusiki euskara erabiltzen dutenen artean (%)	Pisua lagunartean nagusiki euskara erabiltzen dutenen artean (%)
NORBERE JAIOLEKUAREN ARABERA:			
Zona erdaldunagoan jaioak	29,8	8,6	6,4
Toki berean jaioak (edo erabilera-maila bertsua duen batean)	65,7	69,8	73,6
Zona euskaldunagoan jaioak	4,5	21,7	20,0
	100,0	100,0	100,0
GURASOEN JAIOLEKUAREN ARABERA:			
Zona erdaldunagoan jaioak	50,4	18,6	18,7
Toki berean jaioak (edo erabilera-maila bertsua duen batean)	42,9	48,8	54,2
Zona euskaldunagoan jaioak	6,8	32,6	27,1
	100,0	100,0	100,0
LABURPEN ADIERAZLEA:			
Norbera edo gurasoetako bat gutxienez zona euskaldunagoan jaioak	11,7	44,5	37,8
Gainerakoak	88,3	55,5	62,2
	100,0	100,0	100,0

Iturria: ECEPOV, 2021. Egileek landua.

Jaiolekuaren arabeko azterketan ikus daiteke erdararen nagusitasun handiko udalerrietan bizi diren biztanleen artean, zona euskaldunagoan jaiotakoak % 4,5 direla; baina familian edo lagunartean nagusiki euskaraz dihardutenen multzoan, berriz, zona euskaldunagoan jaiotakoen proportzioa 5 aldiz handiagoa dela (% 21,7 eta % 20,0, hurrenez hurren). Hau da, nagusiki euskara erabiltzen duen biztanleriaren zatian, 5etik bat baino gehiago zona euskaldunago batean jaiotakoa da.

Gurasoen jaiolekuari erreparatzen badiogu, eragina kuantitatiboki handiagoa dela ikus daiteke. Gurasoak zona euskaldunagoetan jaiotakoak dituztenak erdararen nagusitasun handiko eremuetako populazioaren % 6,8 dira. Baina familian nagusiki euskaraz dihardutenak % 32,6 eta lagunartean nagusiki euskaraz dihardutenak % 27,1 dira; proportzio orokorra boskoiztu edo laukoiztu egiten da nagusiki euskara erabiltzen dutenen artean, beraz. Familiarekin nagusiki euskaraz mintzo direnen ia hirutik baten gurasoak zona euskaldunagoan jaiotakoak dira; eta lagunartean nagusiki euskaraz aritzen direnen lautik baten gurasoak dira zona euskaldunagoan jaiotakoak.

Bi faktoreak, norberaren jaiolekua eta gurasoena konbinatuta aztertuz gero, ikusten da norbera edo gurasoetako bat gutxienez zona euskaldunagoan jaioa dela erdararen nagusitasun handiko eremuko populazioaren % 11,7aren kasuan. Familiarekin nagusiki euskaraz aritzen diren pertsonen % 44,5aren kasuan norbere edo gurasoen jaiolekua zona euskaldunago batean dago. Eta lagunartean nagusiki euskaraz aritzen direnen artean, berriz, % 37,8 dira. Beraz, proportzioa laukoitza edo hirukoitza da. Familiarekin edo lagunartean nagusiki euskara erabiltzen dutenen artean, jatorria (norberarena edo gurasoetako batena) zona euskaldunagoan dutenak hamarretik lau inguru dira.

Ondorioak

Azterlanak agerian uzten du hiztunen jaioterria eta bizilekua biak direla hizkuntza-portaeretan eragina duten faktore garrantzitsuak. Lehenak hizkuntza-sozializazioaren baldintzak ezartzen ditu, neurri handi batean. Eta bigarrenak, berriz, hizkuntza-erabilerarako aukerak eta erosotasun-baldintzak. Gainera, ikus liteke ekosistema linguistiko batek bizileku-mugikortasunetik jasotzen dituen hiztunak bere ohiko mintzajardunaren dinamikan integratzeko gaitasun partziala duela; eta hiztunen dentsitatearen zein mugikortasun-fluxuen tamainaren arabera izango dela arrakastatsua integrazio soziolinguistiko hori.

Lehen ikerketa-galderari erantzunez, emaitzek erakusten dute arnaguneetan erdaraz nagusiki aritzen diren hiztunen gehiengo oso handiak ingurune erdaldunagoetan duela jatorria; ingurune erdaldunagoetan jaiotakoak dira hamarretik zazpi eta horietan sortutako gurasoak dituzte hamarretik zortzik. Arnaguneetako hiztunen hizkuntza-bilakaera prozesuak aztertu eta interpretatzeko garaian bizileku-mugikortasunaren fluxuak elementu zentral gisa kontuan hartu beharra agerikoa da.

Bigarren ikerkerta-galderari erantzunez, esan daiteke erdararen nagusitasun handiko eremuetan euskaraz aritzen diren hiztunen artean pisu ohargarria dutela euren jatorria ingurune euskaldunagoetan dutenek. Zona euskaldunagoetan jaiotako pertsonak edo horien seme-alabek erdararen nagusitasun handiko eremuetako euskararen erabilerari egiten dioten ekarpena biztanlerian duten pisua baino nabarmen handiagoa da. Ezin da ulertu erdararen nagusitasun handiko eremuetako euskararen ekosistema, zona euskaldunagoetatik heldutakoen eragina aintzat hartu gabe.

Eremu euskaldunagoetan dauden euskararen aldeko baldintzek hiztun osoak sortzeko eta erreproduzitzeko ahalmena ematen diote hiztun-komunitate osoari. Eta erreproduzio-ahalmen horrek ez du soilik tokian bertan eragiten; bizileku-mugikortasunaren fluxuei loturik, lurralde-eremu askoz zabalagoetan du eragina, baita euskal hiztunen komunitateak erreproduzitzeko zailtasun eta oztopo handienak dituen eremuetan ere. Arnasguneen eta zona euskaldunen ekarpena, hortaz, zona horietatik harago, euskararen eremu osoan hautematen da.

Gogoeta batzuk, aurrera begira

Ikerketa eta esku-hartzea

Azterketa honetan baliatutakoak hurbilpenak dira, zeharkako iturrietan oinarritu-takoak. Fenomeno honen gutxieneko dimentsio batzuk erakusteko balio dute. Baina, era berean, sakonago ikertzeko eta berariazko ikerketa-ibilbide bat lantzeko heldulekuak ikus daitezke bertan, ikerketen parametroak finduz eta garatuz gero.

Bizileku-mugikortasuna kontuan hartzen duen ikerketa-ildo demolinguistikoa nondik garatu badago eta merezi luke hemen egindako lehen lanketa gehiago fintzea: jaiolekuaz eta uneko bizilekuaz harago, biografia linguistikoko bizileku desberdinak kontuan har daitezke; aitona-amonen belaunaldirainoko jatorriak azter daitezke; hiztunen edo euren gurasoen jaiolekuek jaiotza-unean zituzten baldintzak kontuan har daitezke... Hipotesi orokor gisa, pentsa liteke, ikerketa honetan bizileku-mugikortasunak ingurune batzuetan eta besteetan duen eragin handia are indartsuago azalduko litzatekeela ikerketa prozedura zehatzagoekin eginez gero.

Hamarkada batzuetatik hona, herritarron bizimoduan eta bizi-ohituretan gertatu diren aldaketa garrantzitsu batzuk mugikortasunarekin lotutakoak dira; bizileku-mugikortasunaren fluxuak bezala, eguneroko mugikortasun-

ohiturak, nazioarteko hipermugikortasuna (turismoari, ikasketei edo karrera profesionalei lotutakoa, besteak beste...) eta abar. Aldaketa hauek dinamika soziolinguistikoetan zeresan handia dutela oharturik, gaiari bizileku-mugikortasuna baino askoz zabalagoa den fenomeno gisa begiratu behar zaio. Lurraldeen eta biztanlerien arteko lotura eta harremana asko aldatu da. Horrek bilakaera soziolinguistikoaren dimentsio espazialean arreta jartzea ekarri behar luke. Ohiko adierazle soziolinguistikoetatik haragoko batzuk kontuan hartzeko beharra azaleratzen du. Ikerlerro horren garapenetik mugimendu-fluxu batzuek (bizilekukoak, laboralak, aisialdikoak, komertzialak...) euskararen erabileraren erraztaile eta beste batzuek oztopatzaile gisa jokatzeko dutela identifikatzeko gaitasuna eskuratuz gero, kontuan hartu ahal izango liriateke hizkuntza gutxituaren indarberritzerako estrategietan. Hizkuntza-politikaren eremuan eta esku-hartze soziolinguistikoarenean zenbait hautu egiteko eta zenbait bide berri zabaltzeko baliagarria litzateke. Lana edo aisialdia direla-eta gertatzen den mugikortasuna eta lurralde-fluxuak, esate baterako, ugaritu eta ohikotu egin dira euskal herritarren gaur egungo bizimoduan. Horrek elkarrekintza sozialaren eta lurraldeen arteko elkarrenergin soziolinguistikoen aldetik aldaketak ekarri ditu. Horiek ezagutzeko ikerketa-ildoan ahaleginak egon diren arren (Sorolla eta beste, 2021), garatzeko eta sakontzeko potentzial handia duen bidea da, zalantzarik gabe.

Ikuspegi kualitatibotik eta etnografikotik hiztunen biografia linguistikoan ekosistema soziolinguistikoz aldatzeari lotutako bizipenak ezagutzea ere ikerlerro interesgarria eta emankorra litzateke. Nola bizi dute hiztunek euskararen nagusitasun-eremuetatik erdararen nagusitasun-eremuetara bizileku-aldaketa? Zein gako daude ulertzeko batzuen aktibazio euskaltzalea eta beste batzuen praktika hegemonikotara egokitzea? Ez da garrantziarik gabeko ikergaia. Arnasguneetan jaio eta erdararen nagusitasun handiko udalerrietan bizi diren hiztunen % 21,5ek euskara darabil nagusiki lagunartean (12. taula). Kopuru hori, kopuru handia da bizileku-testuinguru horren baitan. Datua beste aldera irakurtzea ere badago, ordea: arnasguneetan jaiotako eta ondoren erdararen nagusitasun handiko eremuetara aldatutako hiztun gehienek ez dute euskara lagunarteko hizkuntza nagusi. Aurrerapena litzateke, arnasguneetatik etorritako hiztun horien artean euskarari eusten dioten eta erdarara lerratzen diren hiztunen ibilbide, bizipen eta jarretan sakontzea.

Hizkuntza biziberritzearen aldeko esku-hartze publiko eta sozialean aipatutako ikerlerroetatik eskuratutako ezagutza baliatzeko aukerak handiak liriateke. Ikuspegi horretatik, plan handiak edo esku-hartze txiki eta tokikoak planteatu daitezke. Baina, edozein kasutan, hizkuntza-politika eraginkorragoari begira asmatzeko aukerak handitzea ekarriko luketenak. Hirigintzan,

lurralde-antolaketan, mugikortasunean, eredu ekonomikoan edo espazioaren konfigurazioan eragina duten politikek eta esku-hartzeek errealitate soziolinguistikoa eraldatzen duten kontzientziatik, hizkuntza-politika integralaren estrategia koherente baten baitan egituratzea litzateke ikuspegi eraginkorrena.

Lurralde-jatorri erdaldunagoko biztanleria arnasguneetan

Zentzu horretan, lurralde-jatorri erdaldunagoko biztanleriaren harrera funtsezko erronka da arnasguneentzat. Nazioarteko migrazio-fluxuetan eta haien ondorioetan arreta jartzen hasia da euskal soziolinguistika, euskararen aldeko gizarte-mugimendua eta hizkuntza-politika publikoetako eragileak. Baina Euskal Herri barruko bizileku-mugikortasuna ere berariaz aztertu eta harrera-estrategia integratuak garatzea beharrezkoa da. Arnasguneetan euskararen erabileraren nagusitasuna bermatzeko, politika aurreratuak eta baliabide partekatuak behar dira, eguneroko mintzajarduna euskaraz mantentzea bilatzen dutenak. Euskaraz bizi den komunitatean migrazio soziolinguistikoa eman dadin baldintza materialak ziurtatu behar dira, batetik; eta komunitate-mailan bere errealitate soziolinguistikoarekiko kontzientzia eta identifikazioa sortzeko eta erreproduzitzeko bideak, bestetik.

Lurralde-jatorri euskaldunagoko biztanleria erdararen nagusitasun handiko eremuetan

Eremu euskaldunagoetan jaiotako hiztunek erdararen nagusitasun handiko eremuetako euskararen bizitasunean duten zeresanaz kontzientzia hartzeak ekar dezake, batetik, arnasguneen eta zona euskaldunen zaintza eta hedapena euskararen indarberritzearen helburua partekatzen duen ororen helburu komun gisa ulertzeko urrats garrantzitsua. Arnasguneen auziak euskaldun ororengan eragin zuzena duela ikusita, euskaltzale ororentzat garrantzitsua behar lukeela ohartzea. Azken batean, zona euskaldunagoek elikatu dute, hein garrantzitsuan, zona erdaldunagoetako alor euskalduna. Zona euskaldunago horien ahultzeak, hortaz, Euskal Herri osoan ekarriko lituzke ahultze-ondorioak.

Eta esku-hartzeari dagokionez, ekinbide berriak planteatzeko oinarri gisa joka dezake. Esate baterako, adibide gisa, euskararen presentzia handiagoko eremuetatik heldutako hiztunei begirako esku-hartzeak planteatu daitezke, euren euskalduntasunari eusten jarraitzeko eta erabilera-ohitura erdaldunetara asimilatzeke egon daitekeen joera nagusiari aurre egiteko bitartekoak eskainiz. Norberak dituen euskararen aldeko baldintza soziolinguistikoaren kontzientzia hartzera bideratutako ekimenak; hizkuntza-gatazken aurrean jokatzeko eta estres linguistikoa modu asertiboan kudeatzeko ahalduntze-ekimenak; euskarazko hizkuntza-ohiturak dituzten herritarrak saretzea bilatzen duten ekimenak...

Erreferentziak

- Altuna, O., Iñarra, M., eta Basurto, A. (2022). *Hizkuntzen erabileraren kale neurketa. Euskal Herria, 2021. Eraitzen laburpen txostena*. Soziolinguistika Klusterra.
- Amonarriz, K. (2019). Arnasguneak: zer ziren, zer dira eta zer izango ote dira? *Bat. Soziolinguistika Aldizkaria*, (110), 81-94.
- Coulter, R., & Thomas, M. (2020). *Residential Mobility*. International Encyclopedia of Human Geography (2. ed.), 443-449. Elsevier. <https://doi.org/10.1016/B978-0-08-102295-5.10311-7>
- Coulter, R., van Ham, M., & Findlay, A. (2016). Re-thinking residential mobility: Linking lives through time and space. *Progress in Human Geography*, 40(3), 352-374. <https://doi.org/10.1177/030913251557541>
- Dorransoro, M. (2025). *From 'breathing spaces' to arnaseguneak: the development of the concept in the Basque context* (v1, preprint). https://doi.org/10.31235/osf.io/akr4q_v1
- Fishman, J.A. (1991). *Reversing language shift. Theoretical and empirical foundations of assistance to threatened languages*. Multilingual Matters.
- Instituto Nacional de Estadística (INE) (2023). *Encuesta de Características Esenciales de la Población y Viviendas, 2021*. INEbase. https://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736177092&menu=ultiDatos&idp=1254735572981
- Instituto Nacional de Estadística (INE) (2024). Censo Anual de Población 2021-2024: Cifras de población (1 de enero de 2024). INEbase. <https://www.ine.es/dynt3/inebase/es/index.htm?capsel=11100&padre=11555>
- Iurrebaso, I. (2023). *Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolinguistikazko tresna metodologikoak garatzen. Euskal Herrirako aplikazio praktikoa* [Doktorego-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. <http://hdl.handle.net/10810/60061>
- Iurrebaso, I., eta Goikoetxea, G. (2025). *Esnatu ala hil*. Elkar
- Joly, L. (2019). Arnasguneen eta RLS-en etorkizuneko erronka nagusiak. *Bat. Soziolinguistika Aldizkaria*, (110), 95-112.
- Kasares, P. (2013). *Euskaldun hazi Nafarroan: Euskararen belaunez belaunez jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan* [Doktorego-tesia, Nafarroako Unibertsitate Publikoa].
- Ó Giollaigáin, C., Bourgeois, D., Ó Curnáin, B., Caimbeul, I., eta Cameron, G. (2025). Language Dynamics in Society (LandS): The LandS Analytical Framework for Majority and Minority-Language Ethnolinguistic Vitality. *Treatises and Documents, Journal of Ethnic Studies*, 94, 25-75. <https://doi.org/10.2478/tajes-2025-0002>

- Rossi, P.H. (1955). *Why Families Move: A Study in the Social Psychology of Urban Residential Mobility*. The Free Press.
- SIADeco (2025). *Norantz doa euskara? Hego Euskal Herria 2036 proiektio demolinguitikoa*. UEMA.
- Sorolla, N., Altuna, O., eta Larrea, I. (2021). *Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak: Udalerrri mailako analisia* (44 or.). Soziolinguistika Klusterra.
- UEMA, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea (2025). *Erabilera hurbilaren kalkulua udalerrriak*. Argitaratu gabeko dokumentua.
- Zalbide, M. (2001). Fishman-en HINBE edo RLS. HIZNET graduondoko ikastaroa.
- Zalbide, M. (2019a). Arnasguneak. Etorkizuneko erronkak. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, (110), 11-78.
- Zalbide, M. (2019b). Arnasguneen hauspoa: saio-amaierako zenbait ohar. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, (110), 149-183.

7. Euskalduntzearen inpaktua, lurraldearen euskalduntasunaren arabera. Euskararen indarberritzerako lurralde-estrategia baterantz

Iñaki Iurrebaso Biteri (UEMA)

Laburpena: Ikerketari dagokionez, Inkesta Soziolinguistikoa ustiatuta, ikusiko da euskaldun berrien euskararen erabilera-maila zeharo aldatzen dela bizi diren udalerriaren arabera: zenbat eta udalerri euskaldunagoa, orduan eta handiagoa erabilera. Errealitate horretatik ondorioztatuko da eremu euskaldunagoan egindako indarberritze-ahaleginak askoz ere fruitu ugariagoak eman dituela proportzioan, zona erdaldunagoetan egindakoak baino.

Ondoren, proposatzen da lurralde-estrategia bat komeni dela indarberritze-prozesuan aurreratzeko, lurralde euskaldunagoei motor-papera, aitzindaritzapapera, aitortuz; lurralde horiek euskara irradiatuz eta zabalduz... gainerako eremuak elikatzea bilatuz. Estrategia horren barruan, funtsezkoa izango da, batetik, motor-papera beteko duten lurraldeak bereziki zaintzea; eta bestetik, irradiatze hori gerta dadin bitarteko ahalik eta egokienak lantzea.

Lan honetan aurkezten dira, lehenik, euskalduntzearen aldeko ahaleginak lurraldean izandako inpaktuari buruzko ikerketa bat. Eta, ondoren, oinarritzko proposamen bat lurraldean esku hartzeari begira.

Gako-hitzak: hiztun berriak, erabilera, inpaktua, nagusitasun-eremuak, arnasguneak, hizkuntza-politika.

Sarrera: efizientzia eta inpaktuaren bila indarberritze-ahaleginean

Edozein politika publikok, edozein esku-hartze sozialerako egitasmok, egiten diren ahaleginekin ahalik eta eraginik handiena eskuratzea bilatu ohi du. Printzipio hori, jakina, aplikagarria da hizkuntza gutxituen aldeko lanera ere.

Euskararen alde azken hamarkadetan egindako ahalegina erreferentziazkoa da hizkuntza gutxituen eremuan. 60ko hamarkadan euskararen alde sortu zen olatuak aspalditik zetorren galera-joera etetea eta itzulbiratzea ekarri zuen Hego Euskal Herrian¹. XX. mendearen amaiera arte, indarberritze-aldi argia bizi izan zuen euskarak, bultzada sozialak eta frankismo ondoko politika berriek eraginda. Azken bi hamarkadetako datuek, ordea, indarberritze-prozesua geldotze-fase batean sartu dela erakusten digute (Iurrebaso, 2024). Aurrera begira landu diren proiektioek, gainera, atzerakada-fase berri batean sar gaitezkeela erakutsi digute (Siadeco, 2025). Gauzak doazen bidetik jarraituz gero, euskararen komunitateak erreakzionatzen ez badu eta neurriko politikak bideratzen ez badira, galera-fase berri horrek honakoak ekar ditzake, besteak beste: hiztunen multzo trinkoenaren ahultzea, arnasguneen galera eta belaunaldi berrietan azken hamarkadetan lortutako aurrerapauso sendoetan atzera egiten hastea.

Testuinguru horretan, bi funtsezko ideia aipatu izan ditugu lehenago (Iurrebaso eta Goikoetxea, 2025): batetik, beharrezkoa da euskararen aldeko jende saila *esnatzea*, egoeraz jabetzea eta erreakzionatzea. Bestetik, beharrezkoa da euskara lehentasunetara ekartzea, bai maila pertsonalean, baita maila politikoan ere. Horrek eskatzen du orain baino ahalegin handiagoa egitea euskararen alde, euskararentzat baliabide gehiago bideratuz, besteak beste.

Horrekin batera, ordea, badago gure ustez funtsezkoa den hirugarren ideia bat: lortu beharko genuke euskararen aldeko esku-hartzea geroz eta efizienteagoa izatea, ditugun baliabide beti mugatuekin geroz eta aurrerabide handiagoa eskuratzen saiatuz. Eta lortu beharko genuke geroz eta inpaktu handiagoa, gure lanarekin geroz eta gehiago hurbiltzea gure helburuetara.

Berez, ez da berria gure indarberritze-prozesuan inpaktua eta efizientzia bilatzea. 1960ko olatuak, adibidez, irizpide argi bat izan du hasieratik gaur arte: lehentasuna belaunaldi berrien euskalduntzean jartzea. Esango genuke inplizituki efizientzia- eta inpaktu-irizpideak daudela oinarrian: batetik, haurrek errazago ikasiko dute hizkuntza helduek baino. Bestetik, fruitu ugariagoak emango ditu bizi-itxaropen luzea duten hiztunengan eragiteak, adin handiagoko (eta bizi-esperantza laburragoko) herritarrengan eragiteak baino. Oinarritzko irizpide hori aplikatu izan da gurean, arrakasta argiz aplikatu ere.

1. Hego Euskal Herria edo Hegoalde deitzen diogu Espainiako estatuaren menpe dagoen Euskal Herriko zatia. Lurralde hau, administratiboki Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroako Foru Komunitateak osatzen dute (Trebiñuko konderria eta Villaverde Turtziozeko udalerria, administratiboki Gaztela Leon eta Kantabriaren menpe daudenak, gure ikerketa eremutik kanpo geldituko dira).

Iruditzen zaigu, adinaren ardatz funtsezkoaz gain, geure buruari galdetu beharko geniokeela zein beste alderditan egon daitezkeen alde esanguratsuak efizientzia- eta inpaktu-irizpideak aintzat hartuta. Euskal Herriko gizartea osatzen duten zein ataletan eta zein prozesutan izan daitekeen emankorragoa eragitea, eta zeinetan eragiteak ez duen hainbesteko fruiturik ekarriko, oro har. Gure ustez, XXI. mendeko euskalgintzak asmatu beharko luke, lehenik, efizientzia- eta inpaktu-maila ezberdindu horiek atzematen. Eta bigarrenik, horren arabera esku-hartzeak fintzen.

Norabide horretan ekarpen xume bat izan nahi luke lan honek. Ikerlan honetan, esku-hartzeen efizientzia eta inpaktua aztertzerakoan funtsezko izan daitekeen ardatz bat landuko dugu: lurraldea. Eragin bera al dute lurralde batzuetan eta besteetan euskararen alde egiten diren ahaleginek? Ba al dago ebidentziarik pentsatzeko, zona euskaldunagoetan edo erdaldunagoetan, zein zonatan izan den emankorragoa euskararen aldeko lana? Ikergai orokor horretara lehen hurbilpen bat egingo dugu jarraian, gure herrian hiztun berriak sortzeko egin den ahalegin eskergaren inpaktua lurraldearen arabera aztertuz. Beste baterako utziko dugu, ordea, efizientiaren azterketa, hots, euskalduntze-ahaleginean erabilitako baliabideak eta lortutako emaitzak harremanetan jartzea.

Kokapena

Hiztun berriak Euskal Herrian: euskaldun berriak

Soziolinguistika hiztegiaren arabera, euskaldun berria da «lehen hizkuntza erdara izanik, euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten duen pertsona» (UZEI, 2010, 59. or.). Erakunde publiko zein herritarren ahaleginean oinarrituta, hezkuntzan eta helduen euskalduntzean azken hamarraldietan egin den lan eskergari esker, asko handitu da Hego Euskal Herrian, euskaldun berrien multzoa, 13. taulan ikus daitezkeen bezala. Azken datuen arabera ia 300.000 lagunek osatuko lukete ume-garaian etxean euskara jaso ez, eta gaur egun ongi edo nahiko ongi hitz egiteko gai direnen multzoa, 30 urte lehenagoko kopuruak laukoiztuz. Nabarmendu behar da, gainera, euskaldunen multzoak azken 30 urteotan izan duen hazkundera ia erabat zor zaiola hiztun berrien hazkunderari. Euskaldun berrien ugaritzearena funtsezko masa-fenomenoa da azken hamarraldietako Hego Euskal Herrian. Gaur egun euskaldun berriak, Hegoaldeko hiztun guztien % 11,7 eta euskaldunen % 37,6 osatzen dute.

1. taula. Hiztunak, euskaldunak eta euskaldun berriak. 16 urtetik gorako hiztunak, Hego Euskal Herria, 1991–2021.

	1991	1996	2001	2006	2011	2016	2021
Hiztunak	2.162.181	2.215.703	2.275.436	2.359.417	2.410.637	2.397.982	2.427.363
Euskaldunak	459.389	535.277	579.287	613.988	663.036	700.330	757.857
Euskaldun berriak	65.772	103.343	172.956	197.097	243.144	264.080	284.818
Euskaldun berriak hiztun guztiekiko (%)	3,0	4,7	7,6	8,4	10,1	11,0	11,7
Euskaldun berriak euskal-dunekiko (%)	14,3	19,3	29,9	32,1	36,7	37,7	37,6

Iturria: egileak landua [jatorrizko iturria: Inkesta Soziolinguistikoa].

Aldeko eta aurkako testuinguruak; nagusitasun-eremuak

Soziolinguistikaren oinarrizko printzipiotzat jo daiteke hiztunen portaerak sozialki baldintzatuak direla. Horren barruan, norbere harreman-sareak eta zabalago, testuinguru hurbilak (norbera bizi deneko auzo, herri edo dena delakoak) hiztunaren esperientzian, portaeran eta hautuetan eragingo du. Hiztun berrien bizipenak ikertu dituzten Ortega, Amorrortu, Goirigolzarri eta Urlak (2016), oso modu adierazgarrian, testuinguru *mesedegarri* eta *oztopotzaile* gisa izendatzen dituzte ingurune euskaldunagoak eta erdaldunagoak.

Horregatik, besteak beste, hizkuntza gutxitu batentzat funtsezkoa da hizkuntza hori nagusi izango den espazio geoterritorialak izatea, «*breathing space*» direlakoak (Fishman 1991: 58), *arnasguneak* Mikel Zalbidek Euskal Herrirako egindako egokitzapenean (2019). Zalbideren ekarpena asko laburtuta, hauxe da arnasgunea: hiztunen dentsitate handia duen eta eguneroko jardun arruntean euskara nagusi den ingurune geoterritoriala; horrekin batera, hizkuntzaren belaunez belauneko transmisio naturala bermatzen duena.

Arnasguneen gaia, berez, lurraldean hizkuntza bakoitzak duen nagusitasun-maila jaso dezakeen aldagai zabalago baten barruan ere azter daiteke. Helburu horrekin, euskarak lurralde ezberdinetan duen pisu soziala aztertu ahal izateko, «nagusitasun-eremuak» erabiltzen ditugu. Udalerrriak (eta udalerrietako biztanleria) bertako euskararen erabilera-mailaren arabera sailkatzen ditugu, 2. taulan eta 1. mapan ikus daitekeen bezala². Udalerrri multzo horiek, lehenago

2. Udalerrri bakoitzaren hurbileko erabilera bertako etxeko erabileraren (zentsuetatik) eta kalekoaren (kaleko neurketetatik) batez bestekoarekin kalkulatzen dugu, informazio-hutsuneak dauden kasuan datuak erregresio bidez kalkulatuta (UEMA, 2025).


aipatutako logikarekin jarraituta, ekosistema ezberdinak osatzen dituzte ezaugarri eta dinamika soziolinguistikoari dagokionez. Arnasgune beteak dira, euskaldun bizitzeko eta euskara garatzeko baldintza egokienak eskaintzen dituzten inguruneak: beste inon baino errazagoa da euskaraz hitz egitea, euskal gaitasun sendo bat garatzea, hizkuntza transmititzea eta norbere bizitzan euskararen aldeko hizkuntza-bilakaera bat izatea. Beste muturrean, erdararen nagusitasun handiko eremuan, zailagoa da euskara garatzea, horietan izaten diren dinamikek erdararen alde (eta euskararen kontra) askoz ere indartsuago egiten baitute. Tarteko eremuek tarteko joera erakusten dute. Bost nagusitasun-eremu horien arabera landuko ditugu ikerketa honetako datuak.

2. taula. Biztanleria, nagusitasun-eremuetan. Hego Euskal Herria, 2021 (Irizpidea: hurbileko erabileraren adierazle sintetikoa, kalekoa eta etxekoa uztartuta).

	Kopurua	%
Arnasgune beteak (euskaraz % 80-100)	9.424	0,3
Arnasgune erasanak (% 60-80)	118.093	4,2
Nagusitasun argirik gabeak (% 40-60)	196.214	7,0
Erdararen nagusitasun ez-erabatekoak (% 20-40)	316.829	11,3
Erdararen nagusitasun handikoak (% 0-20)	2.174.018	77,2
GUZTIRA	2.814.578	100,0

Iturria: UEMA, 2025 [Jatorrizko iturriak: EUSTAT eta NASTATen Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak; Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2023].

1. mapa. Nagusitasun-eremuak. Euskal Herria, 2021 (Irizpidea: hurbileko erabileraren adierazle sintetikoa, kalekoa eta etxekoa uztartuta).



Iturria: UEMA 2025. [Jatorrizko iturriak: EUSTAT eta NASTATen Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak; Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2023.]

Oharra: Ipar Euskal Herriko datuak ez dira udalerrikakoak, herrialdekakoak baizik (Inkesta Soziolinguistikoan oinarrituta).

Esku-hartze egitasmoen inpaktuaren neurketa

Hiztun berrien ugaritzeak nagusitasun-eremu ezberdinetan izandako azken emaitza baloratzeko, politika publikoen eta alor sozialeko esku-hartzeen ebaluazioari buruzko proposamenetan bereizten diren adierazle mota ugarien artean (González, 2021; Hernández et al., 2023) inpaktu-adierazleetan jarriko dugu arreta. Inpaktu-adierazleekin, egindako esku-hartzearen ondorioz gizartean epe luzera gertatu diren aldaketak neurtzen dira; azken helburura zein neurritan hurbildu garen baloratzeko erabiltzen dira. Adibidez, drogen inguruko kanpaina baten ebaluazioa egiterakoan, hainbat alderdi balora daitezke: zenbat jenderengana iritsi den kanpaina hori, zenbat gaztek hartu duten parte programatutako ekintza eta dinamiketan eta abar. Inpaktuaz ari bagara, ordea,

epe luzeko aldaketa sakonagoei erreparatu behar diegu. Adibidearekin jarraituta, drogen kontsumoan egon den balizko jaitsieraren bidez neurtu ahalko dugu kanpainaren inpaktua; edo droga-mendekotasun arazoengatik artatutako gazteen kopuruaren jaitsierekin. Laburbilduz, inpaktu-adierazleek neurtzen dute programak gizartean eta bizitza errealean sortzen duen sakoneko aldaketa iraunkorra, parte-hartzaileengan ez ezik, ingurune osoan eragina duena.

Ikerketa-galdera

Honako galderari erantzuten saiatuko gara gure ikerketan:

Euskaldun berriak bizi diren lurraldearen euskalduntasunaren arabera sailkatuta, nola aldatzen da, zein zentzutan eta zein neurritan, hiztun horiek euskalduntzeak komunitatean eragin duen inpaktua (inpaktu hori erabileraren bidez neurtuta)?

Horrela, bada, inpaktua neurtu nahi dugu, jatorriz erdaldunak ziren hiztunak euskalduntzearen epe luzeko eragina, alegia; eragin hori erabileran oinarrituta neurtuz eta tokiko testuinguru soziolinguistikokoaren arabera aztertuz.

Zergatik jo euskaldun berrien erabilerara beren euskalduntzearen inpaktua aztertzeko? Horixe izan daitekeelako, gure ustez, egindako ahaleginak komunitatean eragin duen aldaketa aztertzeko alderdi nagusia. Euskalduntze-ahaleginaren inpaktua sakon aztertzeak lanketa zabalagoa eskatuko lukeen arren, ez dugu uste oker gabiltzanik, ahalegin horrek luzera bilatzen zuena, neurri handi batean, hiztun berriak hiztun aktibo, euskara erabiliko zuten hiztun, bihurtzea zela esaten badugu. Horregatik, eta jakin arren eragin-multzo konplexuagoak ere badaudela tartean, jatorriz erdaldunak ziren hiztunak euskalduntzeak komunitatean eragindako inpaktua hiztun horiek euskara erabiltzen duten neurrian oinarritzea izan da gure hautua³.

Gure ikerketa-galderari erantzuna bilatzeko, Inkesta Soziolinguistikoko datuetara jo, eta aztertuko dugu zein toki ematen dioten beren jardunean euskarari hizkuntza hori etxetik kanpo ikasi dutenek, eta nola aldatzen den toki hori bizi diren udalerrriaren euskalduntasunaren arabera. Euskalduntasun hori, udalerriko erabileren arabera neurtuko dugu, aurrerago ikusiko dugun bezala.

3. Erabileraren inpaktuaren adierazle gisa erabiltzea eztabaidagarria izan daiteke abiapuntuan oso erdaldunak izan eta azken 40 urteotan euskararen aldeko esku-hartze publikorik bat ere ez (edo oso mugatua) izan duten Nafarroako hegoalde eta erdialdeko ingurunez aritzeko. Horietan, euskara ikaste hutsa, nahiz eta ondoren erabileran ez gauzatu, lorpen gisa har baitaiteke. Hala eta guztiz, Hegoalde mailan euskalduntzearen inpaktua lurraldean neurtzeko erabilerari erreparatzea hautu egokia dela deritzogu.

Iturriak eta metodologia

Iturriak. Iturri nagusia Inkesta Soziolinguistikoa (ISL) izan da. Inkesta hau Euskal Herri osoko 16 urtetik gorako herritarren lagin handi bati egiten zaio bost urtean behin, erakunde publikoen bultzadaz, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren gidaritzapean. Bertan soziolinguistikan oinarritzekoak diren alderdiei buruzko informazio zehatza eskuratzen da. Horrek guztiak bihurtzen du gure lanketarako iturri egokiena. Guk, zehazki, *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa*ren datu-basea (1991-2021) baliatu dugu, bertako mikro-datuak ustiatuta.

Horrez gain, UEMAren *Erabilera hurbilaren kalkulua udalerrika* erabili dugu nagusitasun-eremuak finkatzeko garaian (UEMA, 2025). Lan horrek, era berean, honako iturrietatik edan zuen: EUSTAT eta NASTATen *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* eta *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea*, 1989-2023 (HEKN). Horien artean, eta arnasguneetarako azpilagin egokiagoak ziurtatze aldera, kaleko erabileraren araberrako eremuak landu ditugu gure ustiaketa lantzeko.

Ikertutako unibertsoa; adin-, lurralde- eta denbora-mugaketa. Hegoaldean bizi diren 16 urtetik gorako euskaldun berriek osatzen dute gure ikerketa-unibertsoa:

- Ikerketaren lurralde-eremua Hegoaldera mugatu dugu, Iparraldean udalerrri-mailako informaziorik ez dugunez, landuko dugun ustiaketa-eredua ezin delako gaur-gaurkoz garatu.
- Adin-taldea 16 urtetik gorakoen multzoak osatuko du, ISLn multzo horri buruzko informazioa biltzen delako.
- Denborari dagokionez, lehen ahalegin batean saiatu gara daturik berrienak lantzen, 2021ekoak, alegia. Ikusi dugu, ordea, urte horretako nagusitasun-eremuetarako euskaldun berrien azpilaginen neurriak txikiegiak zirela egin nahi genuen ikerketa egiteko. Lagin adierazgarriagoak bilatuz, 1996-2021 datu metatuetara jo dugu⁴. Urtekako datuei begiratuta, ez dugu uste 25 urteetako datu metatuekin lan egiteak askorik distortsionatuko zituenik emaitzak; hortaz, gaur egungo joerak atzemateko baliogarritzat joko ditugu.

4. Inkesta Soziolinguistikoa 1991. urtean egin zen lehen aldiz. Urte horretako datuak, ordea, ez ditugu gure lanketan txertatu, urte horretako erabilerari buruzko datuen eta ondorengo urteei buruzkoen erabateko alderagarritasuna ezin zelako bermatu landu ditugun adierazleetan.

Horiek horrela, honela defini dezakegu ustiaketa honetan landu dugun unibertsoa: 1996-2021 tartean Hegoaldean bizi (izan) diren eta lehen hizkuntza gisa etxean euskararik jaso ez zuten hiztun euskaldunak. Bestela esanda, epealdi horretako 16 urtetik gorako euskaldun berriek osatzen dute gure ikerketa-unibertsoa.

Lagina. goiko definizioa betetzen duten 7.062 kasu aurkitu ditugu ISLren datu-basean. Berez, oinarri oso egokia da azterketa orokor bat egiteko ($\pm 1,2$ ko akats-tarte orokorra eratortzen da kopuru horretatik, % 95eko konfiantza-mailan eta $p = q = \% 50$ denerako), baina ikusiko dugun bezala, laginen neurria dezente txikitzen da nagusitasun-eremu batzuetan, arnasmune erasanean eta, batez ere, beteetan. Kasu horietan azpilaginak komeni baino txikiagoak dira; dena den, aztergai dugun joera orokorra antzemateko balekoak direla deritzogu. Edozelan ere, azpilaginen neurriak tauletan aurkeztuko ditugu.

Ustiaketan landutako aldagaiak:

Euskaldun berriak hartu, eta honako bi aldagaien arteko harremana aztertuko dugu, taula gurutzatuen eta batez bestekoen bidez:

- Mendeko aldagai gisa, hiztunen aurrez aurreko harremanetako erabilera landuko dugu. Adierazle hau inkesta soziolinguistikoan biltzen diren hainbat erabilera xehe uztartuz sortzen dugu (familia-girokoa, lagunartekoa, lankideekikoa eta abar), erabilera xehe bakoitzari egunerokoan izan dezakeen garrantziaren arabera pisua emanez. Adierazle sintetikoa da, eta hiztun bakoitzaren jardunean euskarak hartzen duen pisua adierazten du % baten bidez (adierazle horren eraikuntza zehatz ikusteko: Iurrebaso, 2024: 530).
- Aldagai aske gisa, hiztunak bizi direneko nagusitasun-eremuak landuko ditugu, hiztunak bizi direneko udalerriaren euskalduntasunaren arabera bost multzo nagusitan sailkatuz, irizpide gisa kaleko erabilera hartuta.

Inpaktuaren neurketa, hots, hiztun berriek euskararen erabilerari egiten dioten ekarpenaren kalkulua, bi modutan egingo dugu, aurrez aurreko harremanetako erabileraren adierazlea bi eratara landuz:

- Batetik, nagusiki euskaraz bizi diren hiztunen garrantziaz jakitun (Zalbide, 2016) eremu batzuetako eta besteetako euskaldun berrien artean nagusiki euskaraz bizi direnen ehunekoak kalkulatuko ditugu (euren jardunaren % 60tik gora euskaraz egiten dutenena zehazki).

- Bestetik, euskara gutxiago erabiltzen duten hiztunen ekarpenak ere aintzat hartzeko, euskaldun berri guztiek egiten duten euskararen batez besteko erabilera kalkulatuko dugu, euren erantzun aitortuetan oinarrituta, lehenik; eta erantzun aitortuetan egon ohi den alboratzea saihesteko egindako doiketa baten bidez, ondoren.

Datuen lanketa eta irakurketa

Inpaktuaren neurketa, nagusiki euskaraz bizi diren hiztunak aintzat hartuta


3. taulan eta 1. grafikoan, Hegoaldeko euskaldun berrien hizkuntzen erabileraren banaketa erakusten da, beren bizilekuaren arabera (udalerri euskaldunagoa edo erdaldunagoa, nagusitasun-eremuak aintzat hartuta). Euskaldun berri guztiei buruzko datu orokorrak hartuta, euskara etxetik kanpo ikasi duten hiztunek, nabarmen gehiago erabili izan dute 1996-2021 aldian euren egunerokoan erdara euskara baino: % 10,6k euskara erdara baino gehiago erabili izan du, eta % 71,4k erdara euskara baino gehiago (gainerako % 18,0k euskara-gaztelania bi hizkuntzak maila bertsuan erabili izan dituzte).

Kopuru horiek, ordea, eta gure ikergaiari zuzenean helduz, nabarmen aldatzen dira hiztun horiek bizi diren ingurunearen arabera. Muturretara joz, erdara oso nagusi den eremuetan euskaldun berrien % 7,1ek bakarrik erabiltzen du euskara gaztelania baino gehiago; kopuru hori, ordea, % 47,6raino igotzen da arnasgune beteetan, testuinguruan euskara oso nagusi den eremuetan. Bi mutur horien artean, hurrenkera argia erakusten dute datuek: zenbat eta testuinguru euskaldunagoa, orduan eta gehiago dira nagusiki euskaraz bizi diren euskaldun berriak. Bereziki aipagarria iruditzen zaigu honako datua: arnasgune bete zein erasanetan, euskaldun berri gehiago dira euren eguneroko hizkuntza nagusi euskara dutenak gaztelania dutenak baino.

3. taula. Hizkuntzen erabilera aurrez aurreko harremanetan, bizi diren nagusitasun-
eremuen arabera. 16 urtetik gorako hiztun euskaldun berriak, Hegoaldea, 1996-2021
(datu metatuak).

	Hiztunen bizilekua, nagusitasun-eremutan					
	Erdararen nagusitasun handiko udalerriak (euskararen erabilera <% 20)	Erdararen nagusitasun ez eraba-teko udalerriak (euskararen erabilera % 20-40)	Nagusitasun argirik gabeko udalerriak (euskararen erabilera % 40-60)	Arnasgune erasanak (euskararen erabilera % 60-80)	Arnasgune beteak (euskararen erabilera udalerrian >% 80)	
GUZTIAK						
Gaztelaniaz nagusiki (euskaraz % 40 baino gutxiago)	71,4	75,9	58,0	41,2	34,6	28,4
Bietara berdintsu (euskaraz % 40-60)	18,0	17,0	22,3	24,9	21,8	24,0
Euskaraz nagusiki (euskaraz % 60 baino gehiago)	10,6	7,1	19,8	33,9	43,6	47,6
GUZTIAK	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
n (kasu kopurua)	7.062	6.224	410	264	105	59

Iturria: egileak landua [jatorrizko iturria: ISL].



1. grafikoa. Erabilera aurrez aurreko harremanetan, bizi diren nagusitasun-eremuen arabera. 16 urtetik gorako hiztun euskaldun berriak, Hegoaldea, 1996-2021 (datu metatuak).

Iturria: egileak landua [jatorrizko iturria: ISL].

Inpaktuaren neurketa, batez besteko erabileran oinarrituta

4. taulako a zutabean, hiztun berrien batez besteko erabilera aitortua erakusten da, nagusitasun-eremuka. Emaitez aipatu berri dugun logika bera erakusten dute: erdara oso nagusi den eremuetan euskarak % 25,3ko batez besteko tokia betetzen du euskaldun berrien jardunean; kopuru hori % 55,6raino igotzen da arnasguneetan; tarteko eremuetan, tarteko balioak aurkitzen ditugu. Datuok, hortaz, aurrekoen logika bera erakusten dute argi; baina oraingoan lurraldearen eta erabilera-mailaren arteko harremanean ikusten diren aldeak «nagusiki euskaraz» aritzen direnen kopuruetan baino nabarmen apalagoak izan dira.

4. taula. Euskaldun berrien euskararen batez besteko erabilera aurrez aurreko harremanetan, erantzun aitortuetan oinarrituta; doitze-koefiziente baten kalkulua hitzun guztien erabilera aitortua eta behatua harremanetan jarrita; doitze-koefizientea aplikatuta euskaldun berrien batez besteko erabileraren kalkulua. Hegoaldea nagusitasun-eremuka, 1996-2021 (datu metatuak).

Hitzun guztiei buruzko datuetan oinarrituta, doitze-koefizientearen kalkulua							
Euskaldun berrien euskararen batez besteko erabilera (%) aurrez aurreko harremanetan (ISL 2021, 16 urtetik gorakoak, erantzun aitortuak) <i>a</i>	Euskaldunen euskararen batez besteko erabilera (%) aurrez aurreko harremanetan (ISL 2021, 16 urtetik gorakoak, erantzun aitortuak) <i>b</i>	Euskaldunen proportzioa hitzun guztiekiko (ISL 2021, 16 urtetik gorakoak) <i>c</i>	Hitzun guztien euskararen batez besteko erabilera (%) aurrez aurreko harremanetan (ISL 2021, 16 urtetik gorakoak) <i>d = b*c/100</i>	Kaleko erabilera behatua (HEKN 2021, 2 urtetik gorako hitzunak) <i>e</i>	Doitze-koefizientea (aitortutik behatua dagoen alde: aitortua 1 bada, zenbat den behatua) <i>f = e/d</i>	Euskaldun berrien batez besteko erabilera (%) aurrez aurreko harremanetan, 2021 (erantzun aitortuei doitze-koefizientea aplikatuta) <i>g = f*e</i>	
Erdararen nagusitasun handiko udalerriak (euskararen erabilera <% 20)	25,3	41,1	23,6	9,7	5,2	0,54	13,5
Erdararen nagusitasun ez erabateko udalerriak (euskararen erabilera % 20-40)	36,6	69,2	56,6	39,1	29,3	0,75	27,4
Nagusitasun argirik gabeko udalerriak (euskararen erabilera % 40-60)	46,7	77,6	71,5	55,5	49,5	0,89	41,7
Arnasgune erasanak (euskararen erabilera % 60-80)	53,1	84,4	76,2	64,3	69,9	1,09	57,8
Arnasgune beteak (euskararen erabilera >% 80)	55,6	89,6	90,1	80,7	86,8	1,08	59,8

Iturria: egileak landua [jatorrizko iturriak: ISL eta HEKN].

3. taulako datuek eta 4. taulako a zutabekoek zein baliozkotasun⁵ izan dezakete hiztunen *benetako* erabilera-ohiturak kuantifikatzeko garaian? Ez da azkar-azkar erantzuteko moduko galdera, eta goazen astiro. Hasteko, oinarritzko gogoeta bat: kopuru horiek hiztunen lagin batek inkesta bati emandako erantzun aitortuetan oinarritzen dira, ez dira zuzenean hiztun horien portaeren zenbaketa baten emaitza. Zein puntutan etorriko dira bat elkarrizketatuen portaerak eta elkarrizketatuek beren portaerei buruz inkestan emandako erantzunak? Inkesta-tekniketan sarri gertatzen den bezala, uste izatekoa da portaera errealek eta inkestako erantzunek lotura argia izango dutela, baina ez direla % 100ean bat etorriko; alboratze bat egongo baita egiten dela esaten denaren eta *benetan* egiten denaren artean. Alde horri buruz aspalditik hitz egin izan da nazioarteko soziolinguistikari buruzko literatura metodologikoan (Dell'Aquila eta Iannàccaro, 2019: 530; Fasold, 1996: 186; Vila eta Sorolla, 2009: 79).

Oro har, inkestako erantzunetan hizkuntza gutxituaren erabilera *puzteko* edo *hanpatzeko* joera egongo da hizkuntza gutxituarekiko jarrera positiboa nagusitzen den testuinguruetan eta erabilera hori dena baino txikiagoa azaltzeko joera hizkuntzarekiko jarrera negatiboa nagusi denean. Logika orokor horren baitan, Euskal Herrian agerikoa da erabilerari buruzko erantzun aitortuetan oinarritutako datuek «hobetu» egiten dituztela behaketa bidez jaso izan diren erabilerari buruzko datuak (Iurrebaso, 2012). Har ditzagun, adibidez, 2021eko erabilerari buruzko bi datu: 2021. urtean Euskal Herri osoan behaketa bidez egindako neurketan, % 12,6koa⁶ izan zen euskararen erabilera-tasa (Altuna *et al.*, 2022: 17); urte bereko inkesta soziolinguistikokoan jasotako erantzun aitortuen arabera, berriz, % 16,6koa izan zen euskararen batez besteko erabilera 16 urtetik gorako hiztunen artean. Alde ohargarria dago, hortaz, inkestetan jasotzen den informazioaren eta behaketa batek ematen dituen emaitzen artean. Bi kopuru horien arteko aldean bestelako alderdiek ere eragiten dute, ez gara orain horretan luzatuko; baina erabilitako teknika (inkesta batean, behaketa bestean) funtsezko alderdia da bi kopuru horien arteko aldeak azaltzeko. Ez dago esan beharrik, hiztunen portaera errealak gertuago egongo direla behaketa-teknikek ematen dituzten balioetatik erantzun aitortuetan oinarritzen diren inkestetako datuetatik baino.

5. Baliozkotasunak, ikertzaileak benetan neurtu nahi duena neurtzea lortzen ote duen erakusten du: baliozkotasuna, izan ere, «irudikatzen saiatzen den egoeraz egiazki irudikatzen duen maila gisa defini dezakegu» (Etxeberria Murgiondo, 2011, 25. or.).

6. Kale-neurketetako datua hiztun guztiei dagokie; haurren erabilera ere barnebiltzen du hortaz. 15 urtetik gorako hiztunen erabilerara mugatuko bagina kopurua apur bat baxuagoa izango litzateke, eta inkesta soziolinguistikoko datu aitortuarekiko aldeak, apur bat handiagoa.

Inkestako datu aitortuek berez dakarten alboratze hori, gainera, ez da gizarteko alor guztietan homogeneoa izaten, gaiari buruzko metodologia-literaturan esan ohi zaigun bezala: arrazoi ezberdinak tarteko, alor batzuetako elkarrizketatuek beren *benetako* portaerak gehiago *hanpatzeko* joera izan ohi dute beste alor batzuetakoek baino (De Rosselló eta Ginebra, 2014, 257. or.; Fasold, 1996, 187. or.; Ó Riagáin, 2018, 40. or.). Ideia horri tiraka, hona hemen gure datuak interpretatzerakoan garrantzitsuak izan daitezkeen bi ideia: batetik, uste izatekoa da alboratzeak handiagoak direla euskara gutxitan edo noizbehinka erabiltzen duten elkarrizketatuen artean, euskara eguneroko hizkuntza nagusi dutenen artean baino. Hortaz, uste izatekoa da nagusiki euskaraz aritzen direla dioten ehunekoen 3. taulako balioek alboratze txikiagoa izango dutela errealitatearekiko, hiztun guztien euskararen batez besteko erabilera jasotzen duten 4. taulako a zutabeko datuek baino.

Bestetik, pentsatzekoa da lurraldearen euskalduntasun-mailak ere zerikusia izango duela erantzunak gehiago edo gutxiago *hanpatzeko* joerarekin. Horrela, metodologia-literaturak dioenari jarraikiz, uste izatekoa da aitortutako erantzunetan oinarritutako kalkuluak gehiago *hanpatuko* dituztela erabileraren emaitzak ingurune erdaldunagoetan ingurune euskaldunagoetan baino (Iurrebaso, 2024, 257. or.). Guk eskura ditugun datuek ere ideia hori berriro baieztatzen garamatzate (hiztun guztiei buruzko datuak dira orain, ez euskaldun berriei buruzkoak soilik). 4. taulako d eta e zutabeetan ikus daitekeen bezala, erantzun aitortuetan oinarritutako batez besteko erabileraren eta behaketa bidez jasotakoaren arteko desoreka aldatu egiten da ingurunearen arabera: ingurune erdaldunagoetan handiagoa da *hanpatze* hori euskaldunagoetan baino⁷.

Joera ezberdindu hori ezagututa, 4. taulan *hanpatze* horren eragina saihesteko kalkulu batzuk egin ditugu. Horrela, hiztun guztien artean, aitortutako batez besteko erabileraren eta erabilera behatuaren artean dagoen desorekarekin doitze-koefiziente bat kalkulatu dugu f zutabearen nagusitasun-eremu bakoitzerako. Ondoren, koefiziente hori a zutabeko euskaldun berrien batez besteko erabilera aitortuaren ehunekoari aplikatuta, datu doituak sortu ditugu g zutabearen. Hanpatzearen eragina neutralizatuta sortutako datu horiek hurbilpen egokiagoa izango dira eremu batzuetan eta besteetan euskaldun berriek egiten duten erabileraren berri izateko, zuzenean erantzun aitortuetan oinarritutakoak baino; g zutabeko datuak hobetsiko ditugu, beraz, euskaldun berrien euskararen batez besteko erabilera zertan egon daitekeen kuantifikatzeko. Datu horien arabera erdara oso nagusi den udalerrietako euskaldun berriek % 13,5ean darabilte

7. Are gehiago, arnaguneetan apur bat handiagoa da erabilera behatuak euskarari ematen dion tokia erantzun aitortuek ematen diotena baino.

euskara batez beste euren aurrez aurreko harremanetan; kopuru hori % 59,8raino iristen da arnasgune beteetan. Tarteko eremuetan, tarteko balioak hartzen ditu batez besteko erabilerak. Aipagarria da emaitza hauen arabera arnasguneetako euskaldun berriek erdarari baino toki handiagoa ematen diotela euskarari euren eguneroko jardunean.


Euskaldun berrien inpaktua laburtuz

Atal honekin amaitzeko, 9. grafikoan euskaldun berrien erabilerari buruzko datu nagusiak laburtu ditugu. Bertan ikus daitekeenez, erabilera errotik aldatzen da hiztun hori bizi deneko udalerriaren euskalduntasuna aintzat hartuta. Laburtuz:

- Oro har, euskaldun berrien % 7,1 bihurtu da nagusiki euskara darabilen hiztun erdararen nagusitasun handiko udalerrietan; kopuru hori, % 47,6ra igotzen da arnasgune beteetan. Tarteko eremuek bi mutur horien arteko tarteko balioak hartzen dituzte.
- Batez besteko erabilerak aztertuta (eta erantzun aitortuek izan dezaketen alboratzea zuzenduta), euskaldun berrien jardunaren % 13,5 da euskaraz erdararen nagusitasun handiko eremuetan. Kopuru hori % 59,8ra igotzen da arnasgune beteetan. Adierazle honetan ere, tarteko eremuek tarteko balioak hartzen dituzte.

2. grafikoa. Euskaldun berrien artean zenbat bizi diren nagusiki euskaraz eta haien batez besteko euskararen erabilera, nagusitasun eremuen arabera.

Hego Euskal Herria, 1996-2021(datu metatuak).



Iturria: egileak landua [jatorrizko iturria: ISL].

Inpaktuari dagokionez, hortaz, argia da ondorioa: jatorriz erdaldunak ziren hiztunak euskalduntzeak erabileran duen inpaktua aldatu egiten da ingurune soziolinguistikoaren arabera. Zenbat eta ingurune euskaldunagoa, orduan eta inpaktu handiagoa. Izan ere, ingurune euskaldunagoetako euskaldun berriek askoz ere ekarpen handiagoa egiten diote euskararen erabilerari batez beste, ingurune erdaldunagoetakoek baino. Muturretara joz, arnasmune bateko euskaldun berri batek euskararen erabilerari egiten dion ekarpena, batez beste, ingurune oso erdaldun batekoak egiten diona baino bost edo sei⁸ aldiz handiagoa da.

Ondorioak

Euskalduntzearen inpaktu aldakorra, testuinguru soziolinguistikoaren arabera

Euskaldun berriek euskara gehiago erabiltzen dute bizi diren udalerria zenbat eta euskaldunagoa izan. Horregatik, jatorriz erdaldunak ziren hiztunak euskalduntzeko egindako ahaleginak inpaktu ezberdina izan du nagusitasun-eremuen arabera: igo egiten da nabarmen euskaldun berriak bizi direneko lurraldearen euskalduntasuna igo ahala. Zonarik euskaldunenetan lortutako eragina, zona erdaldunenetan lortutakoa baino 5-6 aldiz handiagoa da euskalduntutako pertsonako. Horixe gure ikerketaren ondorio nagusia.

Inpaktu aldakorra zergatik ote?

Zergatik ote 5-6 aldiz handiagoa inguru euskaldunagoetako euskaldun berrien erabilera (eta inpaktua) gune erdaldunenetakoa baino? zein logika soziolinguistikok azaltzen ditu batzuen eta besteen arteko aldeak? Testuinguruak zuzenean baldintzatzen ditu hiztun batzuen eta besteen erabilera-maila ulertzeko funtsezkoak diren hainbat alderdi. Hasteko, ingurune euskaldunagoetan, hiztun berriak euskara erabiltzeko aukera gehiago izango ditu ingurune erdaldunduagoetan bizi denak baino. Aukera ez ezik, euskara erabiltzearen aldeko bultzada sentituko du sarri asko arnasmuneetako euskaldun berriak, erdara nagusi den eremuetan, arau soziala gatzelania erabiltzearen aldekoa den bitartetan. Zentzu berean, mintzakide elebidunen gaitasun erlatiboak (euskaraz edo erdaraz egiten duten errazago) ere euskara erabiltzearen alde eragingo du zona euskaldunagoetan eta erdararen alde zona erdaldunagoetan. Horrek guztiak zeharo baldintzatzen ditu eremu batzuetako eta besteetako hiztun berrien praktikak. Erabileraren erabileraz, gainera, zona euskaldunagoetako hiztun berriak euskal gaitasun

8. Borobildu egin ditugu muturreko eremuen arteko ratioak; hemen kopuru zehatzak: euskaraz nagusiki bizi direnak % 7,1 dira erdara oso nagusi den eremuetan eta % 47,6 arnasmune beteetan (ratioa = $47,6 / 7,1 = 6,7$). Euskararen batez besteko erabilera doituia % 13,5ekoa da erdara oso nagusi den eremuetako euskaldun berrien artean eta % 59,8koa arnasmune beteetakoetan (ratioa = $59,8 / 13,5 = 4,4$).

sendoagoa garatuko du batez beste ingurune erdaldunagokoak baino, eta horrek berak ere bultzatu egingo du gehiago erabiltzera; zona erdaldunagoetako euskaldun berri asko, ordea, erabilerarako urratsa eman ezinda geldituko dira, testuinguru oztopatzailean trabatuta, eskuratutako gaitasuna baliatu eta garatu ezinda.

Hipotesi bat efizientziaren azterketaren zain

Sarreran aipatu dugu erronka dugula indarberritzean egiten diren ahaleginen inpaktuan eta efizientzian eragiten duten ardatzak detektatzen. Ikerlan honetan lurraldearen araberrako inpaktuaren azterketara mugatu gara. Inpaktua ez ezik, efizientzia ere neurtuko bagenu, hots, euskaldun berri horiek «ekoizteko» egindako ahalegina eta jarritako bitartekoak ere ekuazioan sartuko bagenitu, eta ahalegin hori sortutako inpaktuarekin harremanetan jarri, uste izatekoa da eremuen arteko aldea inpaktuan ikusitako 5-6ko ratioa baino are handiagoa izango litzatekeela. Izan ere, pentsatzekoa da euskara ikasteko prozesu bera ere azkarragoa-errazagoa izango dela udalerrri euskaldunetan gainerakoetan baino. Ondorioz, egindako ahalegina eta erabileran izandako inpaktua harremanetan jarrita 5-6ko ratio hori aise gaudituko litzatekeelakoan gaude. Ideia hori, dena den, datuekin noiz landuko zain, hipotesi gisa planteatuko dugu oraingoz.

Orokortzeko modukoa ote inpaktu ezberdinduaren logika?

Hego Euskal Herrian hizkuntza gutxituaren ahaleginean inpaktu-maila lurraldean hizkuntza gutxituak duen nagusitasunarekin lotzen duen joera hau orokortu ote daiteke beste hizkuntza gutxituen kasura? Ez dugu galdera horri zorrotz erantzuteko oinarri askirik. Hala ere, hemen gure iritzia: Hego Euskal Herrian atzemandako inpaktu aldakor hori, orokorrak diren prozesu eta logika soziolinguistikoen ondorioz ematen denez, uste izatekoa da gainerako hizkuntza gutxituetan ere fenomeno bera aurkituko dugula. Espero dezagun etorkizuneko ikerketek argia ekarriko dutela gai hauei buruz.

Zergatik eragin lurralde ikuspegiz

Lurralde-ikerketatik indarberritze-politiketara: baratze emankorrenen bila, politiken eragina handitzea helburu

Ikerketaren ondorio nagusia izan da inpaktu ezberdina izan duela euskalduntze-ahaleginak lurraldean; lurralde euskaldunagoetan euskara ikasi dutenek gehiago erabiltzen dutela euskara, lurralde erdaldunagoetan ikasi dutenek baino. Ondorioz, batez beste inpaktu positibo handiagoa izan du lurralde euskaldunagoetan euskaldunetako euskaldun berriak lurralde

erdaldunagoetakoak baino⁹. Efizientziari buruzko azterketaren zain, baina erratzeko arrisku handirik gabe, esan dezakegu lurralde euskaldunagoetan egindako ahaleginak nabarmen emankorragoak izan direla lurralde erdaldunagoetan egindakoak baino. Horiek horrela, hona erantzun beharreko funtsezko galdera praktikoa: dinamika hori kontuan hartu behar ote da politika publikoen eta eragile sozialen ahaleginak non eta nola bideratu erabakitzerakoan, edo politika horiek errealitate hori aintzat hartu gabe lantzea ote da egokiagoa?

Metafora bat: gosetea eta elikagai-gabezia larria bizi dute herrialde batean. Baratzte ezberdinak dituzte euren lurretan, eta azken uztetan frogatu dute horietako batzuetan ereindako haziak fruitu nabarmen ugariagoa eman dutela besteetan ereindakoek baino. Horiek horrela, zer egin datorren urteari begira? Baratza guztietan haziak proportzionalki banatu edo sail emankorragoetan hazi gehiago erein? Uste dugu balizko egoera horretan inor gutxik jarriko lukeela auzitan zein den erabaki egokia: haziak (beti mugatuak) baratze emankorragoetan gehiago ereinda, uzta orokor handiagoa ekarriko lieke guztietan haziak berdintsu banatuta baino.

Gure egoerak badu antzekotasunik metaforakoarekin. Gure ustez, zentzu betea du minorizazio gorrian dagoen hizkuntza-komunitateak bere baratze emankorrenetan ahaleginak biderkatzeak. Ahalegin orokor gutxiagorekin, gehiago aurreratu ahal izatea ez da garrantzirik gabeko argudioa: euskarak adierazle nagusietan egun dituen balio baxuetatik igo beharra dauka, igoera hori azkarren nola egin funtsezko auzia da.

Horrek lurralde-estrategia baten premia jartzen du mahai gainean. Ez da horrelako estrategia bat justifikatzeko argudio bakarra.

Lurraldean ematen den dinamika soziolinguistikoa aintzat hartzearen onurak

Ezaugarri soziolinguistiko ezberdinak dituzten eta elkarreraginean dauden lurralde-eremu interkonektatuen batura da egungo Euskal Herria. Lurralde-eremu euskaldunagoek euskalduntzearen aldeko eragina daukate gainerakoetan;

